

Trini Torner



Mirandaren Oharrak

Barne hausnarketarako
aitzakia

“Mirandaren oharrak”

Barne hausnarketarako aitzakia

© B-0992-10 / Trini Torner – 2010

© HakaBooks.com 2010

Diputación, 319, atico- 08009 Barcelona

Autoedición y diseño: HakaBooks.com

Fondo de ilustración: Antonia Cortijos

Diseinu grafikoa: Juan Martín Fourcaud – Ant Studio

ISBN-13: 978-84-938023-2-5

Debekatuak gelditzen dira, legeak ezarritako mugen barruan eta aurreikusitako legezko oharrarazpenen mendean, lan hau osoki edota zatika erreproduzitzea edozein hedabide eta prozedura, bai elektronikoa edo mekanikoa, erabiliz; trataera informatikoa; lanaren alokera edo lagatze era guztiak copyright-aren jabeen baimen idatzia izan gabe.

Trini Torner

Mirandaren oharrak

Barne hausnarketarako aitzakia

Eskaintzak

Katka, Herry, Kayla eta Matteo-ri

Eskertzak

Niregan konfidantza izan duten pertsona guztiei, bai profesional, bai pertsona moduan. Nire lagunei, beti bertan egoteagatik.

TT.

Sarrera

“Mirandaren oharrak” gidoi ireki bat da gure emozioak eta garapen pertsonalean duten beren funtzioak ulertzeko.

Gidoi hau bizitzako komedia bati buruz, edo bizitzari buruzko komedia bezala idatzi nuen, testu eta aitzakia bezala, ludikoki, garapen eta heldutasun emozionalerako gonbidatzen gaituen barne hausnarketarako modu bat sortzeko.

Lehengo zatian, “Bost gau eta sei egun”, istorio bat hasten da non pertsonaia batzuen artean ohiko harremanak eratzen diren, arruntak eta ez hain arruntak, bere egunerokotasunean. Haientzat, errealitatean bezala, bitzta eraldatzen da eta eraldatzen ditu, emozioanala eta errazionalaren artean etengabeko sokatira gogor batetik.

Emozioak kudeatzeko, lehendabizi ezagutu ahal izan behar ditugu gure burua epaitu gabe; bigarrenez, erantzunkizunez eta begirunez adierazi ahal izan behar ditugu; eta, azkenik, erabaki eta ekintza proportzionatuak, ereikitzaileak eta gogo-betekoak hartu; hau da, gure

emozioak eta sentimenduak funtzionalak izan daitezzen.

“Bost gau eta sei egun” testua “konturatzeko” gaitasuna entrenatu eta berreskuratzeko aitzakia da. Sinesmenak eta baloreak, epaiketak eta aurreiritzien ñabardura emozionalak, sentipenezkoak eta sentimentalak aurkitu.

Kapitulu labur bakoitzaren atzean galdera batzuk sartu ditut lehenengo pertsonan, adibide moduan, barne hausnarketa trebatu nahi dutenentzat; pertsonaiek sortutako ñabardura horietatik eta harremanetan jartzeko bere era berezitik abiatuta. Dena den, garrantzitsuena irakurle bakoitzak, maila pertsonalean egin ditzakeen bere galdereetatik etorriko da. Izan ere, galdera zuzenak erantzun egokien gakoak dira.

Bigarren zatian, “Mirandaren oharrak”, ikasketarako lagunduko duten hainbat kontzeptu eta informazio teoriko erantsi dut. Eta liburuaren bukaeran, mintzaira desberdinetatik ikuspegi bera eskain dezakeen irakurketa gida labur bat ere sartu dut.

Lan labur hau, barrualdea eta kanpoaldea, arintasuna eta sakontasuna, umorea eta seriotasuna lotzen dituen ate bat izan dadila desiratzen dut. Beste modu batean esanda, bai gure alderdiak itzaletan bai argitsuenak ezagutu eta integratzera gonbida dezala.

TT.

I. ZATIA

Bost gau eta sei egun.

I. kapitulua

Astelehena gauean: Liga zuzenean

I Kupidagabe, sarrera gelako mahaitxoaren gainean, hainbeste gorrotatzen zuen eta alferrikako “badaezpada ere, ez dut botako” horien guztien gordetzaille bihurtutako jarroi beltzak irauten zuen. Etxera sartu eta irtetzen zen bakoitzean jarroi beltza, ezkontzaren oparia, atsekabearen oroitzapena zen, eta bere izeba mindu ez zedin inoiz ez zen ausartu puskatzera edo oparitzera.

Juan Ribaud etxera iritsi berria zen. Giltzak, arduragabeki, jarroi beltzaren ondoan jarri zituen, zapatak erantzi eta, presa handiz, oliba plater bat, patata frijitu poltsa bat, taula txiki bat zenbait mantxego gazta zatirekin, tabako paketea, txiskeroa eta hautsontzia ipini zituen egongelako mahai baxuaren gainean. Oraindik trajearen galtzak zeramatzan jantzita, denboraz larri heldu baitzen. *Baiiii... ez zikintzeko ardura izango dut* –pentsatu zuen etorkor doinuz, beste pertsona bati erantzungo balio bezala. Gorbata lepoko zapi bezala zintzilikatzen zitzaion eta alkandoraren lehenengo bi botoiak askatuak zeramatzan.

Futboleko esatariek partidaren hasiera iragartzen zuten eta, garagardo pare bat eskuan zituela, zerraldo erori zen besaulkian telebista aurrean, pozaren pozez bakarrik egoteagatik “hotsandiko” erronka ikusteko: Madrid – Barça zuzenean Bernabeu-tik.

Jokoaren bost minutu ez ziren pasa telefonoak jo zuenean.

–Kaixo seme, zer moduz zaude? Dagoeneko arropa erosoarekin al zaude?

–Baiiii ama –erantzun zuen gogaikarri aurpegiarekin eta begirada pantailatik aldendu gabe – Zer nahi duzu?

–Ez dut ezer nahi. Zure anaiak ezkontza bat dauka.

–Eta?

–Zuk traje asko dituzula eta...

–Eta?

–Oso ongi geldituko litzaiokeela hori, erakutsi zenidan festa hartako argazkikoa...

–Mñm bai, mñ no problem... Baina beste bat hobea daukat, noizko nahi du?

–Jaten ari al zara hizketan ari garen bitartean?

–Uy uy uy!!!!!!!!!!!!

–Zer duzu, seme?

–Ia-ia bat sartzen digute...

–Ikusten dut, jan eta telebista ikusten duzu zure amak hitz egiten dizun bitartean. Gero deituko dizut?

–Ez, ez da beharrezkoa, entzun ahal dizut...

–Zergatik ez diozu utzi nahi festa horretakoa?

–Ez dut hori esan. Beste hobea dudala es... Koldar halakoa!!

–Zure anaia?

–Ez, ez, eeeeeeez! Izorratu egin dute, jada, zelako gola sartu diguten. Hori gertatzen da arreta ez jartzeagatik! Esaiozu anaiari deitzeko eta gure artean konponduko dugu trajearena . Ados, ama?

–Hori gertatzen zait lagundu nahi izateagatik. Zer afalduko duzu? Ez esan poltsako patatekin eta kakahuetekin elikatzen zarela...

–Bai, bai, bai... Gooooooooool! Ze gola, jaun-andreak! Orain ikusiko dute zer egiteko gai garen...Gero hitz egingo dugu, ama. Muxutxoak.

Eta Juanek komunikazioa moztu zuen bere amaren agurra entzun gabe. Atsedendian pizza bat eskatu zuen etxera, toailazko albornoza jantzi eta “Zuzendaria minutuan” utzi zuen ohe gainean. Liburu horiek irakurtzea gustatzen zitzaion, entretenigarriak izanda, esparru guztietan hain ongi erabiltzen zituen lidergo estrategiak eta langileen sedukzioa indartu egiten zituzten eta.

Goizean, iratzargailuak jo zuenean, bere gogoko taldearen goleatzailea bezala sentitu zen. Egun desberdina izango zuen. Bulegora ordu pare bat bakarrik joan eta, gero, Adimen Emozionalari buruzko mintegi batera joango zen.

Bere salmenta lan-taldeak hobeto funtzionatzeko edozein teknika ongi etorria zen.

Baina berak bazekien lastoa eta garia ongi bereizten eta,

enpresagastuetan sartu baino lehen, nahiago zuen lehenago bera bakarrik joatea ikastaroetara, gero erabakitzeke ea bere lan-taldeak behar zuen edo ez horrelako gaikuntza mota.

Mintegiaren egitaraua begiratu zuen nork ematen zuen ikusteko.

–Beste emakume bat! Espero dezagun new age-ko maitasuna eta pakea kutsu hori ez izatea.

Bere buruarekin haserre samar sentitu zen irakasleari buruz erreferentziak ez eskatzeagatik. Ongi pentsatuz, ez zeukan ideiarik Adimen Emozionalari buruzko “bizitzeko mintegi” batean zer helburu lor zitzakeen, baina Jorgek iradokitzen baldin bazuen...

–Kakazaharra! Zortzietan amaitzen da, eta bederatzietan Garciaren festan ezagutu nuen beltzaranarekin gelditu nintzen... Nola zuen izena? Irribar ikusgarri zeukan... Etorriko al da? Hobe deitzea baieztatzeke... Kaka zaharra! Ez dakit non utzi nuen bere txartela! Baina ia ziur etorriko dela... Inoiz ez didate huts egiten ...

Bere pentsamenduekin jarraitu zuen garaipenezko begitartearekin, ispilu aurrean bere buruari azken aldiz begiratzen zion bitartean.

1. gida

Besteen alde aritzen naiz haiek niri eskatu gabe?

Nolakoa da nire barneko elkarrizketa, neure buruari lehenego pertsonan hitz egiten diot, edo “beste batek” hitz egingo balit bezala egiten dut?

Benetan aditzen al dut entzuten dudan guztia?

II. kapitulua

Asteartea: Jardunaldi desberdina

Hotel dotore baten hall-ean, oso diseinu finezko kantore baten gainean, jardueren gutun batek hotelaren negozio gunean programaturiko gertaeren menua iragartzen zuen.

Adimen Emozionala: 20. solairua, Kulturen gela –
Liz. Miranda Lynch, Giza Harremanetan aholkularia.

–Hara noa, polita. A zer nolako begi izango dituzun izen horrekin! – Txantxetan aritu zen berekiko igogailua bilatzen ari zen bitartean.

Hogeigarren solairura iristean, banaketazko hiru pasabide zabal behatu zituen, inongo seinalerik gabe. Ikusmena apur bat jaistean, beste kantore bat topatu zuen non, doitasuna errezarekin, gela bakoitzaren kokapenaren eskema zehazten zen. Bere norabidearekin seguru, eta erdiko pasabidean zehar aurreratu baino lehen, Juanek

Jorgeri deitu zion, bere bulegoan kontrataturiko kanpoko aholkularia bere giltza langileen gaitasun bereziak hobetu eta haien helburuak lortzen laguntzeko.

–Kaixo Jorge, neu naiz, dagoeneko barruan nago. Mugikorra “bibratzeko” funtzioan ipiniko dut, beraz, aitzakiarik ez. Elkarrizketatu ondoren, bakoitzaren betetze mailaren ebaluazioarekin mezuak bidal diezazkizazu, OK? Norekin hasiko zara?

–Joserekin. Gero, Loli, Martín, Oriol, Quito, eta azkenik Viqui. Ikusten duzunez alfabetikoki egingo dut coach-arena.

–Abizenarengatik ezagutzen ditudala izango ez balitz, jenio bat zarela esango nizuke. Nori buruz hitz egiten didazun jakin nahi dut emaitzak bidaltzean. Nola egingo dugu?

–Nire antolamenduari eutsiko diot, Juan, beraiekin horrela adostu dut. Boli bat al duzu?

–Bai, haien abizenak esan zure eskemaren arabera. Azkar, hau hastera doala dirudi...

–Erreza da. Zure hurrenkerak TARGET hitzaren hizkiak jarrituko ditu (Torrás José, Almeida Loli, Rovira Martín, González Oriol, Estevez Quito, Trigueiro Víqui).

–Konponbide azkarretarako sortzailea zara, ez dago zalantzarik. Zorte on. Utzi behar zaitut.

–Baita zuretzat ere. Eta lasaitu zaitez, gizona, zure lan-taldea esku onetan dago eta! –esan zuen Jorgek komunikazioa moztu baino lehen.

Mintegiko tokira hurbiltzean, gelaurrean, gazte oso

atsegin batek folio bat eman zion partaideen zerrenda zenbatuarekin –hamaika, irakaslearekin kontatu gabe–, eta bertan azaltzen zen: izen osoa, lanbidea edo ordezkatzaren enpresa eta haien laneko telefonoak. Jarraian, marrazki batek U-n partaide bakoitzaren eserlekua zehazten zuen, zerrendaren zenbakiaren arabera. Azkenik, informazioaren erraztasun grafikoak jarraituz, aurreikusitako atsedendaldien ordutegia azaltzen zen.

Lehenego *coffee-break*-erako bi ordu falta ziren eta lau bazkarirako. Prezioaren barruan zegoen, baina Juanek bulegoan zehar buelta bat ematea pentsatu zuen Jorge ikusteko eta, kasu horretan ogitarteko bat jatea lauretan jardunaldia jarraitu aurretik. Bostetan 15 minutu izango zituzten, eta hemeretzi eta hogeita hamarretan agurtzeko cocktail bat izango zen. “*Orduaren puntualitatea mantentzen saiatuko gara, zuk laguntzen badiguzu. Eskerrik asko. M.L*”, zioen orriaren bukaeran.

Itxiera ere saihestuko dudala uste dut. Usain gozoko kandela pare bat eta lore batzuk erosi nahi ditut etxeratu aurretik. Irribarre horrek merezi du.... Zer izen esan zidan? –pentsatzen ari zen Juan denak gelan sartzen ziren bitartean. Esparruaren ateko bi orri irekiek osatzen zuten arkua zeharkatu baino lehen, gazte batek, beltzarga eta praka gris ilunekin, lehenego laguntzaileak bezala jantzita baina ezpainak ez ikusiarena egiteko zaila zen gorri koral batez margotuta, modu oso egokiz telefonoa

itzaltzeko eskatu zion, oraindik ez bazuen egin.

–Ez kezkatu, ez du joko.

–Beharrezkoa ikusten baduzu, idazkaritza zerbitzua daukazu jardunaldian zehar.

Erantsi zuen laguntzaileak mahai luze bat seinalatuz gutxienez hamar telefono mugikorrekin; bistan zenez, mintegikideek utzirik eta zator-grizezko neska-mutil jatorrek oso ongi zainduta, folio eta boligrafoz armaturik.

–Ez da beharrezkoa izango. Eskerrik asko, dena den. Ez dut nahasketarik sortuko, zin dagizut.

Gelak argi naturala zeukan. Juanek sentsazio arraroa izan zuen. Usain eta tenperatura atseginak atzeman zituen. Partaide bakoitza, bere orriak eta zerrendako kokapen zenbakiak lagunduta, jazarri zen inongo nahasterik gabe. U formako mahaiaren gainean, bakoitzarentzat karpeta bat zegoen eta zilarrezko euskarri bat ere bai, non txartel bat altxatzen zen, seguruenik, zeuden pertsonen izenarekin; Miranda Lynchen begi bistan ezezik, baita beste guztiena ere. Kopa eta ur mineral botila txiki bat, errotugailua eta karpeta bat ere zeuden; azken honetan folio bat galderekin inprimatua, Miranda Lynchek sinatutako testu laburra eta ohar pertsonaletarako hainbat orri zeuden. Juanek antolakuntzaren xehetasuna aintzat hartu zuen: bi gizonezko partaide bakoitzeko, lore naturalezko bouquet batek emakume baten presentzia nabarmentzen zuen. Hala

ere, berezko leuntasuna saihestu nahian edo, bere barne ahotsak ondorioztatu zuen: *“Kaka zaharra! Lehenego aldiz ikusten dudala emakume gutxiago gizonezkoak baino honelako jardunaldi batean...”*

Eseri aurretik, begirada aurrera altxatu zuen eta ... horrela egon zen, mugitu ezinik, gelaren atzeko aldeak erakusten zuen irudiak hipnotizaturik, hizlariaren zilueta ozta-ozta moztuta. Hormek, nahiko garaiak eta kristalezko panelez ereikiak, bertikalki ikusita zero urdinaren gainean, hainbat hodei alfer ikusten uzten zuten, naif estetika zutenak, 3D animazioan bezala. Juanek beste errealtate batean zegoela sentitu zuen.

–Ongi etorri Ribaud jauna. Hemendik aurrera Juan deitu diezazuket? –Durundatu zuen Miranda Lynch-en ahotsak, bat bateko ixiltasunaren erdian.

–Oh! Bai, jakina – Erantzun zuen apur bat asaldaturik, oraindik erdian zutik zegoen bakarra zela ikustean. Eta zerrendaren seigarren zenbakia zenez, U formako mahaiaren sabelean bertan jazarri zen. – Sentitzen dut, izan ere...

– Ez desenkusatu, zure distrakzioak toki honetako ikuspegiak erakutsitako espektakulu zoragarria ikustea ahalbideratu digu, halako edertasunaren aurrean sentiberatasunez egin izan ez dugunontzat, behintzat.

–Oso atsegina zure partez –eskertu zuen Juanek zintzotasunez emakume horrek izandako adeitasunarengatik bere burua birkokatzeke, bere

distrazioarengatik enbarazurik egin gabe.

–Ongi, has gaitzkeela uste dut. Denon aurrean aurkeztu aurretik, elkarrekin jardunaldi bizia pasako dugunez, karpetak irekitzeko eskatuko dizuet. Lehenengo orrian galdera sorta txiki bat aurkituko duzue, eta zintzotasunez erantzuteko erregutzen dizuet. Egin dezakezue idatziz edo ez. Zuen buruarentzako kokapena xume bat da. Orain, intimitatez egin ahal izateko, Juan Ribau jauna hainbeste ukitu duen dekoratu natural zoragarriari agur egingo diogu.

Une horretantxe, Mirandak eskuan zeukan urrutiko kontrolaren botoia sakatu eta, sorginkeria balitz bezala, oihal ilun handi bat hasi zen ixten beirazko hormaren kontra, aholkulariaren aulkiak eta mahai laguntzaileak blokeatutako U-aren aldea epel-epel argitzen zen bitartean.

Lehenengo puntua erantzun gabe – non aipatzen zen bakoitza zer gauza arituko zen egiten mintegian egongo ez balitz–, Juanek gainbegirada bat bota zion galdeketari ariketaren ideia orokorra izateko eta bere zabalpena ebaluatzeko. Bigarren item-era itzuli eta deseroso sentitu zen. Une batez pentsatu behar izan zuen. Bigarren puntuak honelako galdera egiten zuen:

2.- ZU HEMEN ZAUDENEZ, ADIMEN EMOZIONALARI BURUZKO BIZITZEKO MINGEGIAN, PREST ZAUDE ZAIN DITUZUN GAIK PARENTESI BATEAN GILTZAPERATZEKO, IKASKETA BERRIETAKO JARDUNALDI HONEKIN KONPROMEZUA HAR DEZAZUN?

Juanek bere amerikanaren barruko poltsikoan eskua sartu eta atsekabe handiz, haztatuz itzali zuen bere mugikorra, lehengo aldiz bibratzen zuen une horretantxe bertan.

Jarraian, Juanek beste galdera guztiak erantzun zituen idatziz, zalantzarik gabe, azkenekoan izan ezik:

10.- UNE HONETAN BERTAN, ZER SENTITZEN DUZU?

Momentu batez hausnartu zuen eta gero bere buruari esan zion: *Orain arte... mintegi hau ondo pentsatuta dagoela.* –Berriro irakurri zuen galdera, begiak itxi, eta nahigabe ortzian goxo-goxo zintzilikatutako hodei hura bistaratu zuen berriro. Bere aurpegiak irribar xume bat marrazten zuela sentitu zuen. Une horretan idatzi zuen (sentsazio bat eta ez pentsamendua): Lasaitasuna.

Une labur batez, denek haien erantzunak bukatutzat eman zituztenean, Mirandak bi modu proposatu zituen *Adimen Emozionari* (“*AE*” *deitzen hasi zenari*) buruz mintegia garatzeko eta gehiengoaren botazioaren arabera utzi zuen:

Modu tradizionalak, zeinek Mirandak, hitzaldi baten era dotorenean, gaiak eta denborak antolatuko zituen *AE* ri buruz pentsatzen eta zekien guztia azaltzeko, azken ordu erdia kezkek erantzuteko utzirik, jakina; boto bakarra izan zuen.

Beste guztiek, irritxo urduri asko eta aldez aurreko begirada konplizeekin, lan eskuartzaile baten alde botatu zuten, non bilatutako ezagupenak partehartzaile bakoitzak izan eta aportatutako ezagupenetatik ereiki zitezen.

–Ongi. Mintegi hau bizitzeko ikasketa tailer moduan hartuko dugu -esan zuen Mirandak hasi baino lehen. Minutu batzuk beranduago, sarrera baten ondoren; non batez ere berak profesional moduan egiten zuen lanaren inguruko konpromezua, errespetua, partehartzea eta interesari buruzko bere postulatuak ziren; Mirandak partehartzaileak maisuki koordinatu zituen, baita timidoenak ere, eta ezagupenen lehengo atalaren itxierara zuzendu zituen. Orduan, gosariaren ordu erdia iritsi zela iragartzean, urrutiko kontrola hartu eta lipar batez, grisez jantzitako bi mutilek gelaren ateak ireki zituzten partehartzaileen usaimena adina. Izan ere, kafe on egin berriaren eta labean berriki erretako pastelen usain gozoak denen itxaropenak ziurtasunez bete zituela ematen zuen.

Bi orduak berehala igaro ziren eta halako laguntasun giroan non kanpotik ikusita inork ez zukeen esango partehartzaileak berriki ezagutu zutela elkar.

Aginduen artean egon izan balitz bezala, inork ez zuen mintegiaz hitz egin gosariaren bitartean. Atsedean pizgarriaz disfrutatu zuten soilik. Bi pertsona mugikorren mahaira gonbidatuak izan ziren larrialdi txikiak erantzuteko; bata etxekoa eta bestea lanekoa. Horretaz konturatzean,

Juanek bere ongizate pentsaezina moztu eta erabaki bat zuen (hau ere pentsaezina bi ordu lehenago)

Bere telefonoa hartu eta honako mezu hau idatzi zuen Jorgerentzat:

ZUREGAN KONFIDANTZA DUT.

EZ SMS + EZ BD SORTZN.

SI YU TUMORROU

JR

“Bidali” sakatu zuen, mugikorra itzali, bularraren kontra gorde eta koralezko ahoko neskarenganantz zuzendu zen. Bere txaketa ireki zuen barruko poltsikoa erakutsiz eta, tonu bihurri batez, esan zion:

–“Armak ken diezazkidazun utziko dut”.

Minutu batzuk beranduago, batzuk kafea errepikatzen zuten bitartean, maitre batek banatu zuen txartel trokelatu bat bi zatitan erraz banatzeko. Denen gusturako, jatetxeko arduradun hark menuaren bi aukerak banatu zituen, bazkaria eta bazkalondorako aurreikusitako denboran atzerapenak saihesteko.

Norbait txantxetan aritu zen galdetuz ea ez ziren mintegiz konfunditu eta ea ez ziren egongo “Erabateko Kalitatea” mintegian, Peter Druckerrena, enpresarien guru zaharra.

Mirandak losintxa entzuten jakin zuen, eta argitu zuen garapena posiblea zela baldin eta pertsonak beren ezagupenak aplikatzen baldin bazekiten modu integralean eta ez zatikatuan, haien bizitzako alor guztietan. Bere hitzen ondoren, taldea partekatutako ikasketa birartzera gonbidatu zuen.

Ez da beharrezkoa esatea Juanek agurtzeko cocktail-a konpartitu zuela. Hotelaren atarian bere mintegikideen artean ez berandutzea ere deitoratu zuen baina... Inoiz ez luke dama bat bertan behera utziko, nahiz eta bere izena ez zuen gogoratzen.

Bere etxera hurbiltzen zen neurrian, hain aberasgarria izandako jardunaldi osoan zehar inbaditutako ongizate sentsazioa desagertzen ari zitzaion. Beharbada bakarrik egon behar zuen eta bera kide izandako esperientzia ebaluatu. Baina ez zuen hitzordua ezeztatuko azken momentuan... egin ere ezin zuen egin... Inoiz ez zituen bere konkisten telefonoak gordetzen , ziur baitzegoen berari deituko ziotela.

Lehenego aldiz bere begirunegabeko alderdiarekin kontaktatu zuen. Eta bere kontra zetorkiola sentitu zuen, bumerang bat bezala.

2. gida

Haibat tokitan batera egoten saiatzen al naiz?

Ardurak eskuordetzeko zailtasunak al ditut?

Azkenaldian zer gauzek liluratu naute?

III. kapitulua

Amodio kontu baten emaitzak

Juan guztiz urduri eta deseginda zegoen. Ezin zuen loak hartu. Birak eta birak ematen zituen bere ohean eta horrek gero eta gehiago narritatzen zuen. Ederki asko zekien bere loezina ez zen laneko estresarengatik, ez liseriketarengatik, beheko tabernan turistek antolatutako iskanbilarengatik ere ez, ezta AE ikasketa egunak sortutako zirrarengatik ere.

Ahal izan zuen denbora gehiena jasan zuen ohean; izan ere, azken batean, hori lo egiteko ordua zen. Eta Juan, sakonean, araei oso atxikitutako gizona zen.

Berak antolatutako gualdiaz pentsatzeari ezin zion utzi. Ezer ez zen atera aurreikusi bezala. Horrek ez zuen paketa uzten. Azkenean Juan altxatu, ordu txikietan gosaria prestatu eta, etsipenez eta pazientziaz, gertaerak erreparatzen aritu zen.

Juanek bazekien erakargarria, hezibide onekoa eta azkarra zela. Dohai horien jakitun izanda, seduzitzaile

bihurtu zen. Bereziki emakumeekin.

Egia da bere emazteak duela urte pare bat utzi egin zuela... baina hori beste upelako sagardoa zen eta hobe izango litzateke oroitzapen txarrak ongi gordeta uztea. Esperientzia hori oraindik oso mingarria zen berarentzat eta, azken batean, ondo moldatzen zen beti lagunduta egoteko. Inork ez zion uko egiten. Bere emazte ohiarena izan ezik, jakina. Baina, osterantzean, dena kontrolpean zeukan.

Zita kontuetan aditua zen. Halako moduan prestatzen zituen non topaketa batek ere ez zion lau ordu baino gehiago emango, eta erosotasun gehiagorako, bere etxean bertan.

–*“Norberaren zelaian jokatzea baino hoberik ez dago”* –esaten zuen beti. Dena izaten zuen prest, ezer ez ihes egiteko bere aukeretatik. Ardo gorria gorrotatzen zuen, baina badaezpada ere, beti izaten zuen botila pare bat gordeta okasiorako. Harritzea gustatzen zitzaion, baina ez harritua izatea. Beraz bere etxean ez zen ezer faltatzen: musika nabarra, tragoxka desberdinak, eta mota guztietako janariak eta espezieak.

Maitemintzeko artean txapeldun sentitzen zen. Banadu zenetik, hainbeste emakume pasa ziren bere bizitzatik non ezinezkoa zitzaion haien izenak gogoratzea. Horregatik, sailkatzeko sistema oso praktikoa asmatu zuen:

Alfa taldea: llehoriak, ardo txuria, oilasko edo arrain arina belar finez, musika melodikoa, limoizko musse-a eta satinezko izarak.

Beta taldea: Beltzaranak, ardo beltza, azpizun on bat puntu-puntu, erritmo kubatarrak, profiteroleak eta... egongelako besaulkia nahikoa zen haien pasioak askatzeko.

Agian alfa taldekoak nahiago zituen, dena txukuntzeko errezago uzten zuten eta...

Dena den, bere oroitzen gehiago murgiltzen zen norbait beti azaltzen zenez, eta izena gogoratzen ez zuenez, arreta jartzen zuen honelako zehaztapenetan: *“hortxe orezta duena...”* edo *“zigarroarekin alfonbra erre zuena”*... Eta honekin nahikoa zen hainbat une atsegin bere oroimenean birsortzeko edo lagunekin harropuzkerietan ibiltzeko.

Baina gau horretan ezin zuen loak hartu. Carlak eragozten zion betazalak itxi eta dena ahaztea... Carlak bere buruan etengabe errepikatzen zen azken hitz batekin agur egin zion. Carla, Carla... Carlak izena zeukan! Eta gogoratzen ari zen!

Carlak gogaitu zuen lehengo unetik. Juanek zuzendu zitekeen lanpara bat zeukan eta bere argiak juxtu “iradokitutako” diskoen bi apalak argitzen zituen. Ba berak, goiko apalean begiratu behar izan zuen eta entzuten zen

boleroa Vivaldiren “Lau urtaroak” diskarekin aldatu. Eta hala eta guztiz ere...

Ikaragarri ongi usaintzen zuen azpizuna barrengorri erara prestatu zuen (garbi baitzen Carla beta taldekoa “izan” behar zela), eta afaltzeko orduan... barazkijale aitortu zen.

Eta gainera, errespetu gutxikoa da. Alde batetik hamaika galdera personal egin zizkion, sentitutako erantzun bat ematera behartzen duten horietakoak. Eta bestetik, galdezka eta galdezka ari zen bitartean, Vivaldi batuteatzen aritu zen zapatarik gabeko oin horiekin, hain oin sentsualak non nerbio denak airean jarri zizkioten, baina guztiz paralizatua geldituz. Nondik sortu zitzaion, nor eta berari, halako lotsa jasangaitza?

Zitaren hondamendia errematatzeko, Carla alfonbratik altxatu zen bat-batean. Lasai asko zapatak jantzi, eta dagoeneko agurtzeko ordua zela iragarri zuen. Eta berak, inozo halakoa, dena onartzen... Orduan, zaldun baten keinua izateko bere azken ahaleginean, ateraino joan zen neskak baino lehen irekitzeko. Agurtzeko jiratu zenean, munduko irribarrerik onena topatu zuen, munduko aho onenean, xingleki esanez:

– *Agur, astronauta!*

Juan, beste behin, mutu gelditu zen eta beste agur batekin erantzuteko ere ez zuen asmatu.

Bere berrikusketaren puntu honetara heltzean, dagoeneko hotza zegoen kafesne katiluari beste zurrutada bat eman behar izan zion. Katilua altxatzean, pultsua dardarka zeukala nabaritu zuen eta nahasmen handia sentitu zuen, poliki-poliki atsekabe larri bihurtzen ari zitzaiena.

Hori ez zen losintxa bat izan... Munduan egingo lukeen azkena astronauta bihurtzea zen. Zer zen Carlak esan nahi ziona irribar zoragarri horrekin eta izen inkongruente horrekin? Edo agian “astronauta” hitza izenondo bezala erabili zuen?

Juan bere buruan konparaketa desberdinak bilatzen ari zen, harilaren muturra emango zion metafora bat. Ziur baitzegoen hainbeste hunkitu zuen “astronauta” halakoak, mezu garrantzitsu bat izan behar zuela berarentzat.

Ez zuen ulertzen. Garunak urtzen ari zen eta ez zen asebetzen zuen inongo ondoriora heltzen. Hala ere, bere sentipen fisikoak kontutan hartzen hasi zen: airea falta zitzaion, etxea inoiz baino txikiagoa iruditzen zitzaio, leihoak ireki behar izan zituen eta, orduantxe, aztarna bat aurkitu zuen.

Sentipen horiek guztiek antza handia zuten “itxialdi” “ari buruz zeukan ideiarekin. Magikoki, hitz horrek ahalmen handia balu bezala, Juanek lasaitasuna berreskuratzen ari zela sentitu zuen. Berrito eseri zen begiak zabal-zabalik, lozorro luze batetik esnatuko balitz bezala, eta irribarre

berri eta egitazko batekin aurpegian, aspaldian adierazten ez zuen moduan.

Carlak bete betean asmatu zuen, jakin gabe ere. Etxea ez zen ustekabeko itxialdi sentsazioa eman ziona. Baina Juan une horretan konturatu zen denbora asko egon izan zela bere barruko kapsulan. Ikuspegi hain asmotsu honetatik pentsatzen jarrita, bere jarrera guztiek itxurazkoak ziruditen...

Eta bat-bateko tristura apur bat sentitu zuen, ez ziolako telefonoa eskatu Carlari... *Noski, "astronauta" bat nintzenean, nire mugikorra eta helbidea ematen nituen soilik, deituko zidatelakoan* –hausnatu zuen Juanek samurtasun apur batez... Baina gero Carlak beste aukera bat ez emateko erabakiaren beldurra sentitu zuen.

Juan dagoeneko egunargiz zela konturatu zen eta bi ordu besterik ez zela falta lanera joateko. Goizeko dutxa hartu aurretik; tarte batez bere emozioak, orain lasaiak, baztertzea erabaki zuen.

Jorgek mintegian zehar bidalitako mezuak berrikusi zituen. Eta tarte luze bat iragan zuen oharrak hartzen target hitzak erakusten zuen ordenean, beranduago bere taldeko coacharekin iritziak trukatzeko.

3. gida

Pertsonak sailkatu eta etiketatu ohi ditut?

Esaldi eginak, orokortzeak eta aurreiritzietan oinarritzen naiz maiztasun gehiegirekin?

Nire esperientzi mingarriak ukatzeko joera izaten al dut?

IV. kapitulua

Asteazkena: diboak, jainkosak et “marisukaldeak”

Miranda Lynch-entzat, mintegi bakoitza abentura bat zen. Eta esperientzia berriari buru belarri lotzen zitzaion behin eta berriz. Bere Komunikazio Zientzietako lizentziaturatik, laurogeigarren hamarkadan zehar, mundua zabal-zabal ireki zitzaion eta hainbat urte iragan zuen alor desberdinetan formatzen. Beraren ustez, disziplina eta lanbide ezberdinek irteera eta helmuga puntu bakarra zuten: pertsonen ongizatea.

Mintegi egun baten ostean, Mirandak bere gaua luzatzen zuen egunsentia arte. Aisialdiak behar zituen, presarik gabe eta arduretatik kanpo. Ikastaro bat eman ondorengo egunean sekulan ez zuen lan egiten eta, orduan, hurrengo esnatzea ez zen inoiz goiz erdia baino lehen izaten. Opari hori eta baita bere 48 urteek eta gorantz zihoan lan-jarduera askeak baimentzen zituzten erregalu guztiak ematen zizkion bere buruari.

Sakonki egiten zuen lo telefonoak jo zuenean:

–Kaixooo –Erantzun zuen Mirandak ahots arrastatu eta lodi batez.

–Lo seko egiten duzula ikusten ari naiz, polita! Hamabost minutu daramat zuri txirrina jotzen. Tira! Ireki ezazu atea, kruasanak hozten ari dira eta.

–Jainkosa! Jainkosa hutsa zara! Guztiz gose nago... Oraintxe irekiko dizut, Carla.

Mirandaren pisura sartzean, Carlak bere laguna topatu zuen bainu-txabusina batean bilduta, bere neurrirako apur bat txikia, arrosa ahaztuaren tonukoa eta urratu batekin bizkarrean. Goma-aparrezko errulo pare bat, kopeta-ile gorrixketan gaizki nahastuak, zintzilikatzen zitzaizkion kopetan. Eta bere begiek, gauean makilajea kendu gabe, hipertiroidismoa duen mapatxe bat ematen zuten.

–Esaidazu nor zaren eta AEko diboia den nire laguna non dagoen – esan zuen Carlak erantzuki eta atseginez .

–Ay! Ez hasi gauza horiekin, guztiz esna nadila utzi, behintzat... Gainera ez dakizu gosarietako lagun leial hau azalean zer ongi sentitzen den.

–Zure azalari hobeto emango liokete lagun iletsu baten laztanek, nahiz eta guztiz leial ez izan.

–Hara nork hitz egiten duen... Bide batez! Nola joan zen zure zita? Zehatz-mehatz kontaidazu dena, txirrina jo zenuenetik...Ez, hobeto zure etxetik atera zinenetik. Zer jantzi zenuen?

–Beltza estua eta sandalia batzuk ongi bilutsik.

- Mmm Hau sexia! Ezpainak margotu al zenituen?
- Galdetu zuen Mirandak, bere lagunari bizkarra emand kafea prestatzen zuen bitartean.

Bat-bateko isiltasunak gasazko sukaldearen soinua nabarmendu zuen. Erotutako kanpai faltsuen metalezko zarata jasanezina igo zen kaletik, butano saltzaileak sortuak. Azkar, Mirandak sukaldeko leihoa itxi eta Carla ondoan eseri zen. Honek, aurpegi nahigabetua ukondoak mahai gainean jarrita heltzen zuen.

- Zer gertatu zen? Apoa gertatu zen?
- Dena izorratu nuen... Nire burua gorrotatzen dut! Neu, neu naiz garatzadun apo zikin- nazkagarria!
- Baina zer didazu! Zer gertatzen da zure burua horrela erasotzeko? Zer egin duzu?
- Begira, eder eta atsegina gogoratzen nuen Garciak; badakizu, nire soinu-teknikariak; emandako festaren argiantz pean...
- Eta?!!!!
- Eta... argi elektrikoaren bete-betean, hasiera-hasieratik, atea ireki zidanean, "kirioak dantzan" jarri ninduen... Mila kilowats-eko lokia sartuta... Hitz egin gelditu gabe, baldarkeriak egiten eta...
- Eta?!!!!
- Gezurak ere esan nituen... Eta, eta joan nintzenean, ez dakit nondik atera zitzaidan zentzugabekeria esan nion... Izan ere, ezin nuen ezta jan ere ... Tupustean pentsatu nuen hanka tartetik, urdailean zehar igarota eta lepauztairaino helduta, gorputzean neukan bakarra Alien

bat zela taupadaka... Menderatzeko modu bakarra zen... zen... Jainko maitea, eraso nuen eten gabe!

–Burutik jota zaude... Zer gezur esan zenion?

–Barazkijalea naizela, boleroak ez zaizkidala gustatzen, goiz oheratzen naizela... Zer dakit nik, hamaika astakeria segunduko! Hain ongi usaintzen zuen!

–Ongi, gutxienez usaintzeko nahiko gertu egon zineten. Guau, zer primitibo!

–Ezta pentsatu ere! Ongi usaintzen duena gaixoak prestaturiko azpizuna zen, baina...

Esku horiek, ay, Miranda... Batez ere, ezkerreko eskua... Toki guztietan irudikatu nuen... Okerrena naiz: Bekataria eta damutua! Jarzazu zianuroa nire kikanan, mesedez. Hobeto, gaia alda dezagun. Eroso sentitu al zinen nire antolatzeko erarekin?

–Zoragarria. Lehenengo aldiz lortzen dudala guztiz lasaitzea giro berri batean. Dena ezin hobeto zegoen. Zerbitzu bikaina. Dotorea gaizki-esakarik gabe... Izan dudan antolatzailerik onena zarela uste dut. Eskerrik asko Carla, zuri adierazteko betarik ez didazu eman. Aurrerantzean, dena zure esku uzten jarraituko dut... Nahiz eta zu gelditzea gustatuko zitzaidakeen... Bide batez, datorren hilean bitartekaritza tekniken inguruan hitzaldi bat emango dut. Kontutan hartu zure agendarako.

–Astronauta! Hori da esan niona agurtzean. Sinestuko al duzu? Zer esan nahi du horrek? Ea bada, zure interpretazio freudiarrek erabil itzazu...

Miranda bere laguna baino hamabost urte zaharragoa zen eta ama baten moduan irribar egin zuen

Carlaren erreakzioaren aurrean.

–Aztarna bakarra emango dizut zure inkonzientearen ekintza okerra zuk zeuk interpretatzeko... Ilargi-jotzailea eginda izateaz gain... Zein planeta, astro edo sateliterekin identifikatzen zarela esan ohi duzu eten gabe?

–Ilargiarekin... Beti esaten dut Ilargia naizela, Yin...

–Ez da izango azkenean norbait; berez zurekin aurkakoa eta oso osagarria, hau da “oso Yan”, ilargiratu zela, edo egiteko mehatxatzen ari dela?

–Ay, Miranda! A zer erromantikoa ematen du horrek! Hainbeste... ezen apur bat gogaitu egiten duen.

–Erromantikoa ez badagokizu zuri, hain Ilargia izanda... Utz nazazu frogatzen interpretazio gaizto eta zuzen batekin. Ez da izango norbaitek Ilargiko larruan jo zintuela zuk kontutan hartu gabe eta akojonatu egin zinela?

–Mesedez, ez erabili hitz sexistarik, ezta matxistarik ere, ez daukagula potrotrik eta!

–Orduan zergatik egin zenuen zangartxoarena, emakumezkoen generoari halako poza eman beharrean?

–Begira, ez hitz egin gehiago eta beste kafe bat bota iezadazu, goiz honetako onena da eta. Eta errulo zatar horiek ken itzazu behingoz, horrela agure gordina baino gordinago bat erakartzeko adina sex appeal-a duzu eta!

–Ixo, ixo,menopausian sartzen ari naizela uste dut eta. Aspalditik ez datorkit... Edozein momentutan zahar etxean te kanasta bat antolatzeke eskatuko dizut...

Barrezlehertzen haien aitormenak eta ateraldiengatik, gosaria amaitu eta goiza hartzea erabaki zuten erosketak

egitera joateko.

Mirandak liburu batzuk bidali nahi zizkion Albari. Duela sei hilabete ez zuen bere alaba bakarria ikusten; Javier, bere suhia, Manaos-a bidali zutenetik lan egiten zuen enpresaren filial bat martxan jartzeko. Albari eleberririk irensten zituen eta segurazki gaztelerazko literatura faltan botatzen ari zen jada.

28 urte izanda ere, Javier emozionalki heldua zen eta Alba babesten jakin izan zuen bere aita hil zutenetik. Miranda baketan zegoen. Eta nahiz eta itxuraz bere alarguntzaren dolua gainditua ematen zuen, duela lau urte aire-istripu larri batean hildako bere senarrarekin barne elkarriketa antzeko batean aritzen zen. Dena kontatzen zion. Barru-barruko eguneroko bat eramango balu bezala. Eta bere laguntasuna maite zuen baita behartutako bere aldentze horretatik ere.

Mirandak liburuak aukeratzen zituen bitartean, Carla mihisedenda batean sartu zen eta saten urdinezko txabusina zoragarri bat erosi zuen, oso egokia intimitatean libidoa izozkailu barruan gordeta zuela ematen zuen lagun ilegorri batentzat..

–Tori, printze urdin batekin gosaltzen duzunerako –esan zuen Carlak apur bat beranduago, agurtzeko zorian zeudenean.

–Nik izan nuen nire printze urdina, Carla. Ez da nire gainditu gabeko ikasgaia...

–Badakit izan zenuela, eta inork eta ezerk ez dizu lapurtuko! Baina maitasuna eskuzabala da... eta zu... Zu ez zara oso koherente izaten ari zure AEko hitz jarioarekin... Horra hor taxi bat, grisezko nire neska-mutilekin daukat bilera. Zer iruditu zitzaizkizun? – Galdetu zuen Carlak, trafikoa mozten zuen kotxean sartzen zen bitartean. Taxilariak aginte tonuan esandako zerbaitek bere lagunaren erantzuna entzutea eragotzi zion. Baina Mirandaren aurpegia eta keinuarengatik, harrotasunak hartu zuen; halako moduan, non gidariarengana zuzendu zen Sabako erreginak egin izan balu moduan.

4. gida

Maitasunerako zer toki dago nire barruan? Eta laguntasunerako?

Agresiboki jokutzen dut segurtasun falta sentitzen dudanean?

Sentitzen dudana eta adierazten dudanaren artean koherentea al naiz?

V. kapitulua

Produktu zail bat

Juan merkatuan produktu berriak sartzeko estrategien garapenean lan egiteko ohituta zegoen. Erronken zale amorratua zen, nahiz eta gehiago disfrutatu bidean helburuan bertan baino. Lorpenak erdiesten zituenean, pixka bat aspertzen hasten zen.

Oraingo honetan, produktua ona iruditzen zitzaion, berria, asmo onekoa eta saltzeko erabat zaila.

Hori bai, jubilatua eta pentsiodunak benetako kontsumo indar bihurtu dira... Espainian bakarrik zortzi milioi pertsona dira hirurogei urte baino gehiagoko kontsumitzaileak... Arraio! Pentsioen menpe egonda ere... egia esan, dibisa mugimendu oso garrantzitsuak dira, berez... Baina ohiturak aldatzeko orduan, marraskatzeko hezurrik gogorrenak dira!

Juan bere produktua zuzendu behar zuen taldearen diru eta giza egoera birpasatzen ari zen, lanera zeraman

taxi barruko mugikorrek jo zuenean. Mobilaren bisoreak bere telefono finakoaren zenbakia erakusten zuen...

–Juan, zure ama naiz. Afaltzeko jendea izan al zenuen?

–Zenbat aldiz esan behar dizut ez dudala nahi zuk lan egiterik. Paquitak txukunduko du, horretarako ordaintzen diot eta...

–Ooondo, ez haserretu. Zuk badakizu etxeko lanak egitea izugarri atsegin dudala...Gainera Paquita egun pare bat barru ez da etorriko. Erosketaren bat egitea nahi?

–Ama, egunen batean norbaiti ezuste bat emango diozu...

–Zer ba... andregaia duzu eta ez zara niri kontatzeko gai izan ala?

–Ay, ay, ay, ama... Dirurik ba al duzu?

–Noski, eta arkatz bat eskuan apuntatzeko. Zer behar duzu?

–Utzi ikusten... Balkoiko landareak nola dauden fija zaitez, ongarrri apur bat eta adituaren zainketa behar dituztela uste dut. Mesede ikaragarri hori egingo?

–Bai, eta leungarria eta barazki freskoak falta direla eta komuneko paper gutxi gelditzen dela ere ari naiz ikusten.

–Armairuei ere giltza jarri beharko al diet?

–Begiluzetzat jotzen al nauzu? Baina jakin badakizu gorra, mutu eta itsu naizela atetik kanporantz...

–Ama, lanera heltzen ari naiz. Nahi duzuna egin, baina pasatu gabe. Esfortzurik ez egin, ados? Gauean deituko dizut. Muxu bat. Kaixo, kaixo, kaixo...

–Bai? Zer ahaztu duzu, seme?

–Ea zure belaunak nola dauden; zer, bihar euria egingo al du?

Telma, Juanen ama, seme zaharrenak bere osasunarengatik jarritako ez ohiko interesarengatik hain harriturik gelditu zenez, artritisearengatik kexatzea ere ahaztu egin zitzaion. Atseginez agurtu zen, eta eguzkia baino zoriotsuago, eskailera tolesgarria hartu eta egongelako apalik altuenei hautsa kentzeari ekin zion.

5. gida

Askotan kexatzen al naiz?

Inbaditzaile izateko joera dut, edo pribatasun zentzua gogoko al dut?

Zein egoeratan izan / izaten naiz amore-emailea?

Bestea ulertzen badut, nire argudioak desagertzen ohi dira?

VI. kapitulua

Belarri finak

Juan oso jarrera onarekin sentitzen zen bilerarako Jorgerekin. Itxaropen handia zeukan elkar-trukea, ebaluazioa eta planifikatzeko egun horretan, bere lan taldea eta *Golden Net & Up*-en aurrean – lehehengo lerroko informatika produktua Interneterako eduki berriekin – iritzia eta erantzuna tanteatzeko aukeratutako pertsonen arteko lehenengo bileren emaitzen arabera. Horregatik, merkatuan marra ziklope bat gurutzatu behar zuen: Espainiako hirugarren adina.

Lo egin gabeko gau bat ez da nahikoa arrakastarako estrategien heroi nazionala suntsitzeko – bere burua animatu zuen Juanek igogailua bere solairuko harreragilearen aurrean irekitzean.

Clara andereño sinesgaitzaren atzean, zein pago egurrez egindako erakusmahai garai eta erdi-biribilaren gainean nekez agertzen zen, granitoz eta metalezko erlibe handi bat altxatzen zen, enpresaren logotipoarekin eta, nabarmenago oraindik, *Softiberia Marketing Relacional*

S.A. iragartzen zuen bere departamenduko izenarekin, platino kolorean.

Clarak –emakume erlikia bat, enpresan tinko irauten zuena bere hastapenetatik laurogeigarren hamarkadan, komunikazioak gaur egun historiaurrekoak ematen duten telefonoguneetatik egiten zituen garaian– guztiak harritzen zituen, belaunaldiz belaunaldi, bere entzumen oroimen harrigarriarengatik: pertsonak behin entzutea nahikoa zitzaion inoiz ere berriro ez galdetzeko norik hitz egin edo norekin komunikatu nahi zuen. Bertute honetaz gain, behin ere ez zuen huts egin lanean, behin ere ez zitzaion urduri edo haserre ikusi eta bere ahotsaren tonua erabiltzen zuen begikortasuna, ulermena, eraginkortasuna edo irmotasuna transmititzeko, egoerak eskatzen zuenaren arabera, inoren hitzez edo denboraz abusatu gabe.

Lehenengo aldiz Juan konturatu zen emakume ilehori hura lekuko susmagaitza bezalakoa zela, eta gainera lehengo aldiz bere funtzio eraginkor eta ia anonimoaz sentikor bihurtu zen. Izan ere, komunikazioaren bitzta emari jarraikor eta diskreto bihurtzen zuen eta hain eroso non inork ez zion bere pertsonari benetako arreta ipintzen, inork ez zion bere esker on esplizitua ematen, eta berak ere behin baino gehiagotan bere bizkarretan altxatzen zer erliebe futurista barruan xehetasun eklektiko moduan ikusi izaten zuen.

–Egunon Clara, zer atsegin izaten den goizero zure presentzia soil eta lasaiarekin topatzea. Berririk niretzat?

–Oh, oso gizabidetsua zara. Zu sartzen ikusi orduko, zure ama atxiki dut bigarren lineatik; gaur deitzen duen bigarren aldia da.

–Ez dakit mugak nola jarri, Clara. Oso gaizki dago. Agian bost urte dudala uste du...

–Ez nahastu. Eskari bakoitza maitasun eskaria da. Etengabe beren guraso hiperlanpetuei txutxeak edo gutziak eskatzen dizkieten umeetan pentsatu... Txutxeak ari dira eskatzen benetan?... Jarrera horrek edozein adinetarako balio du. Azkar Juan jauna, kasu egin Telmari.

Zoragarri –zioen Juanek berekiko bere bulegora sartzean deia jasotzeko–. *Alde batetik, azkenean barruraino sartu zaidan emakume eder baten aurrean guztiz ergeltzat jokutzen dut. Eta bestetik, telefonistak nire ama gehiago ezagutzen du nik neuk baino... A zer esaldi: “eskari bakoitza maitasun eskaria da” Touché! Clara jubilatzen denean, guru pertsonal bezala kontratatuko dut...*

–(...) Egunkaria erostera gelditu nintzen, ama, horregatik ez nauzu lehenengoan saskiratu...

–Suposatu dut, baina hanka sartu nahi ez dudanez, galdetu nahi nizun non jarri zure liburutegiko amaraunen artean aurkitutako paperak. Paquita gehiago kontrolatu, seme, zuri ez dizute eta dirua oparitzen...

–Zer paper?

–Ay, maitea, zer pena, betaurrekorik gabe ez dut ongi ikusten... Baina denetarik dagoela uste dut: erosketa ticketak, erabili gabeko metro txartela, eta bankuaren zehaztasun batzuk suposatzen dut...

–Ondo egin duzu galdetzen. Utz itzazu jarroi beltzaren barruan. Gero ongi aztertuko ditut ezer bota baino lehen. Egun korapilotsua daukat, horregatik deskonektatu dut mugikorra; beraz, premiazkoa ez bada, neuk deituko dizut gauean, ados?

– Bai, laztana. Ez kezkatu ezerengatik. Esango didazu nola aurkitu duzun etxea. Parket-a ispilu bat bezala gelditu zait. Gaua arte.

Juanek burua mugitu eta, azken batez, agian lo kuluxka egin behar zuela pentsatu zuen. Hurrengo garaietan pazientzia dosi ikaragarria eskatuko zitzaioala aurreikusten zuen. Baita bere buruarekin ere. Azken hogeita lau orduetan entzundako hainbeste gauzen aurrean ezin zuen gorrarena egin.

Sakonki arnastu zuen, eskuak kementsu astindu zituen pianoa jotzen hasiko balitz bezala, bere telefonoko “esku askeak” botoia sakatu eta, zutik kafeontzirantz, interfonoaren bigarren zenbakia sakatu zuen:

–Jorge, hor al zaude?

Juanek ez zuen berehalako erantzunik jaso eta beste telefono deiren batekin arituko zela pentsatu zuen; eta bukatzeko astia ematen zion bitartean, birentzako kafea prestatzen hasi zen.

Egia esan, Jorge bere lantokian zegoen, ordenagailu aurrean, begi sukartsuekin, mezu elektronikoko bero xamar

bat erantzuten. Duela pare bat hilabetetik, egunero berari zuzendutako gutun bat aurkitzen zuen, bistan zenez emakume batek idatzia –nahiz eta sinatzeko erabiltzen zuen goitzen maskulino samar eta zalantzarria; "Komodo" hitza erabiltzen baitzuen, bai izenondo "maskulinoa" bai ugarte "femeninoa" izan zitekeen eta -. Bere proposamenek eta hizkuntz jolasek, izenorde haren eta hotmail.com kontuaren bidez babestuak, guztiz liluratu zuen. Hasieran haserrea sentitu zuen ikustean ezezagun batek bere korreo elektronikora sarbidea izan eta modu horretan, aurpegia eman gabe, idazten ziola. Gero lotsa nagusitu zitzaion, aspalditik ez baitzuen beste sexuarekin ez gogor eta ez leun jolasten. Baina apurka-apurka dibertimendu kezkarria irabazten joan zen; guztiz urratzailea, misteriotsua eta, batez ere, erabat kitzikatzailea egiten zitzaiolako muga eta arriskurik gabeko sexualitatea aurkitzea. Dena buruan zegoen. Dena sarean gelditzen zen... Eta aurpegirik gabeko intimitatea bistara izateak liluratu ere egiten zuen. Lasterregi idatzi zuen: Gehiago nahi dut, ausartzen bazara. Bihar arte izango da, orain bidaltzen dizudan muxu mamitsua zure gorputzeko zein ataletan pausatuarazi duzun kontatuko didazunean. Ni. –"Bidali" sakatu, Interneteko nabigatzailea itxi, eta kalkulu orri bat ireki zuen ordenagailuaren pantailan, bere eskuak azkar pasa zituen bere ileen tartean atzerantz argituz, horrela bere burua ere argituko balu bezela eta, freskotasun osoarekin, nagusiari erantzun zion:

–Egun ona, mutil! Barkatu atzerapena, on-line nengoen...
Nola dihoa bizitza?

“AE borrokaldian” desagertu zinela pentsatu nuen!
Bazatoz edo banoa?

–Bizitza hiru, Juan huts. Markagailuak hori adierazten omen du, Jorge... Hobeto nire bulegora etor zaitez. Bitan berotu gabeko kafea hartuko dugu.

–Ez zaitez bihozgabetu, lehengo denboraldia hasi berri da. Hara noa.

Jorgek bazekien txantxak faltsukeriarik gabe adierazteko modu eraginkorrenetakoa zirela... Hortaz, sakon arnastu ere egin zuen pentsatzean bere informeak ez zuela lagunduko Juanen adoregabetasuna hobetzeko, lan egitea hain bizkorgarri egiten zitzaion nagusi bikain hori. Gero eta gertutago sentitzen ziren elkarrekin, eta biek benetako laguntasuna sumatzen zuten egunez egun ehuntzen; lan helburak, kafeak eta oraingoz oso intimoak ez ziren aitorten txiki artean.

6. gida

Begiratu gabe ikusten ohi dut?

Nire barne elkarrizketak nire zentzumenak logale ditzan baimentzen al dut?

Esker onekoa al naiz? Besteen esker ona sentitzen al dut?

Umore sena al dut?

Nire bizitza lideratzen dut?

VII. kapitulua

Freelance Santua

Bere estudiora heltzean, ia eguerdian, Carlak ez zela egun aproposa sormenaren lurra ongarrizkeko sumatu zuen. Bere grisezko neska-mutilak berandutzen ari ziren, eta beragatik egun osoa emango zuen bere laguna Mirandarekin hizketan jarraitzen.

Programatu behar zuen hurrengo emanaldiak bere lan-talde osoaren inspirazioa behar zuen, aldez aurretikako ideia erauntsi on bat egiteko. Autore garaikide ezagun baten bere azken liburuaren aurkezpena zen, oso polemikoa, show estiloaren laguna eta gizarte espainarraren bihotzean zarata egiteko gogoarekin.

Minutu batzuk beranduago, korala bezalako aho gorriko azafata hura, telefonoz desenkusatu zen eta bilerara joatea ezinezkoa zitzaiola abisatu zuen. Bere neskak baztanga zeukan.

Joaquín, beste laguntzaile bat, garabiaren zain zegoen autopistan. Kotxea hondatu zitzaion.

Carla, inoiz baino ulerkorrago, bileratik salbuesten zituen ia pozik eta, azkar asko, gertaera hauek patuaren seinaleztat hartu zituen. Beraz, guztiak lan hitzordua atzeratzen zela abisatu ondoren, Mirandari dei egin zion zalantza izpirik gabe:

–Oparitu nizun dibaren “robe de chambre”-a probatu al duzu?

–AY, kaixo! Horretan pentsatzen ari nintzen, juxtu! Etxean sartu berri naiz. Eta zu zertan ari zara?

–Bilera suspenditu dut eta zure etxean kokatzeko asmoa daukat ase arte. Nola ikusten duzu?

–Zoragarri. Izkirak, muskuiluak eta txipiroi pila erosi nituen merkatuan. Ardo txuria daukat hozkailuan eta hau guztia jatea lagun bat gabe barkaezina izango litzatekeela uste dut. Kaferako txokolate beltzaren bat bakarrik faltako litzateke. Zu ardura zaitetzke?

–Iragarpena siesta. Berehala noa.

Ordubete baino lehen, aste erdian jai eguna asmatzeko sentsazio urratzailearekin, biak disfrutatzen ari ziren arreta handiz prestaturiko mahai batean, Mirandarentzat bere etxearen bihotza zen sukalde horretan. Itsaso aurrean terraza batean bezala sentitzea ezerk ez zituen eragotzi.

Mahai tresnak txukun-txukunak gelditu ziren eta ahozapiak hondamendia eginak. Kopetan ere –ardo txuri on baten botila osoa apurka-apurka hustu zutenak –, bazkari soil eta zapoetsu baten aztarnak markatu ziren,

alaitasun eta plazerrekin hartua.

–Barazkijalea zinela esan zeniola... Platerean utzi dituzun animalia aztarna pila ikusiko balitu! Zure buruari beste aukera bat emateko deituko al duzu?

–Ez. Ez naiz ausartzen. Berak deitzea nahiago dut.

–Baina ikusteko irrikitan zaude!

–Bai, baina hain ederra denez, neska guztiek deituko diote...

–Ez dut uste “guztiek” “astronauta” esango diotenik. Oraindik airean igeri egongo da zure banpiro soinekoaren espazio ilunean... Eta telefonoa galdu izan balu?

–Hori pensatu dut dagoeneko. Maltzurra izan nintzen, azken batean. Txartel izkutu bat utzi nion entzuten aritu ginen diskoaren kutxatila barruan... Nitaz pentsatzen badu, aurkitzean niri deitzera animatuko da.

–Beti misteriotsua eta erromantikoa llargi ona bezala... Azkenean zeure txartelak egin dituzu? Erakutsiezazkidazu, joan zaitez bila kafea prestatzen dudan bitartean.

Zutitzean, bi lagunek zaratatsu egin zuten barre ispilu batean bezala elkar ikustean: biek balantza egin zuten ardoaren eraginez; ez batak ez besteak ez zituzten zapatak jantzita; eta gerrikoaren botoia, bakoitzarengan, jalekeriaren salatari okerre bezala azaltzen zen, zegokion botoi zulotik kanpo.

Kafea hartu ondoren, beranduegi iruditu zitzairen lo kuluxka egiteko eta oso goiz beharrari lapurtutako eguna amaitzeko. Liseriketak oraindik energia lapurtzen zien

haien puntu ahulei buruz sakonki hitz egiteko eta, etxetik ateratzea... ezta pentsatu ere! Zertarako galdu murmu ordainezin hori?

–Dena zure alde jartzen da, Carla, ezetz jakin zertaz konturatu naizen?

Sofan uzkurtuta eta segundu batzuetako ixilunearen ondoren, Carla erantzutera makurtu zen:

–Harritu nazazula utziko dut. Ez dut pentsatzea pentsatzen...

–Bart pelikula bat alokatu nuen eta ikustea ahaztu nuen. Ikusi nahi?

–Bai! Zoragarria! Ordaindu behar badugu egun ezin hobe honengatik... Gerokoak hor konpon! Ekar ezazu berehala, ez dakizu duela zenbat denbora ez dudala gaurkoa bezalako egitarauaz disfrutazen...Lagile askeen santua izango da?

Mirandak, ama sena handiz bere aldetik, bakoitzarentzat manta eta kuxin pare bat, kruspetak bi bowl-etan eta freskagarriak eraman zituen egongelara. Filma bukatzean, ia afaltzeko ordua zen eta baimen eta laguntasun eguna osatzeko, Mirandak eguerdiko platerak txukuntzen zituen bitartean, Carlak entsalada osatua eta liseritzeko erraz bat prestatu zuen.

Gaueko hamarrak aldean, bere etxerantz abiatu zen lo egiteko prest. Egunak bere lagunaren ondoan bihotza altxatu zion, nahiz eta ohe zabalean oheratzean atsekabe arin batek bere Adan gabeko Eva bezala sentiarazi zuen.

7. gida

Zerbaitek aurreikusitakoa okertzen duenean; eusten diot, setatzen naiz edo beste aukerak ebaluatzen ditut?

Zein pertsonarekin sentitzen naiz erosoen nire bizitzako une honetan?

Zein dira nire plazer handi txikiak?

Haietaz hornitzen naiz nire neurrian?

VIII. kapitulua

Ilargi beteko gaua

Juan Ribaud-entzat ez zen jai egun bat izan, ez zen emankortasunik egon, ezta siestarik ere lo egin gabeko gau baten ondoren. Eguna izu-ikaraz igaro zen, etengabeko eskakizunean arazo txikiak konpontzeko; baina bere plangintza guztiak banan-banan aldaraztea lortu zutenak.

Jorge korrika atera zen enpresatik bere emaztearen deiaren ostean. Bitxia – pentsatu zuen Juanek– pentsatzen jarrita, ez nekien ezkonduta zegoenik. Bah, ez dakit ezer bere bizitza pribatuaz... Seme-alabarik izango al du? Inoiz ez du familiaz hitz egiten... Ongi, egia esan bere adinean logikoa da izatea, eta handi samarrak... Nahiz eta nire hogeita hemezortzi urterekin nik izatea ere logikoa litzatekeen... Amak zuen ilusioarekin amona izateko!

Juan bere buruarekin ari zen solasean etxeko atea irekitzen zuen bitartean, asteazkena inongo gorabeherarik gabe bukatzean, eta adore faltatik hurbil zegoen neke batekin.

Bere pisuko atondoan oinetakoen altzari bat zegoen

ispilu azpian. Honen gainean, estilo japoniarreko jarroi beltzarekin konbinatzen zuen zeramikazko erretilu txiki bat kolore bereko alfonbra errustiko batekin egokitzen zen. Beti egiten zuen moduan, oinustu zen egongelan sartu aurretik eta larru oneko mokasinak altzarian gorde zituen. Oin bat alfonbratik kanpo jartzean, Juanen galtzerdinak lehiaketako eski bihurtu zela eman zuen eta, gertatzen ari zena ulertzen asmatu gabe, metro laurogeiko bere gorpuzkera handiak irrigarri hegan egin zuen airean zehar, bere koxis gainean bete-betean erori arte.

Lurzoru gainean eserita, burumakur eta aho zabalik baina mutu, Juanek sakonki arnastu zuen bizkar osoan zehar igotzen zitzaion mina arintzeko. Azkar kendu zuen gorbata eta airea hartzean, sukoi usainazko aire ahokada gogor batek gainezka egin zituen bere begiak, dagoeneko kolpearengatik itoak. Eztarria atzamarkatzen zion azkura bat eztl egin zuen eta, bere malkoak xukatu ondoren, toki guztietatik dirdira egiten zuen dizdira puztua aurkitu zuen: egurrezko pisuak *bowling* pista bat ematen zuen; altzariak, argazki laukiek eta baita tenis garaikurrak ere argia egiten zuten erakusketa batean bezala.

Airea tirabiratsu kondentsatzen zen garbikarien nahasketarengatik eta Juan bere etxeak behar zuen aireztapen azkarraren premiaz jabetu zen. Lau oinka aurreratu zen balkoira ematen zuen ate irriztatzaileraino eta, eskudelean helduta keinu etsiarekin, Clara andereñoaren esaldia gogoratu zuen: Eskari guztiak maitasun eskariak dira. Udazkeneko gauean islatzen zen ilargi beteari begiratu

zion eta, gaueko astroari begira Carlaren izena ihez egiten utzi zuen tonu leunez, alaraozkoa. -Non egiten duzun lan ere ez dakit, printzesa...

Aire freskoarekin apur bat berpiztuta, egongelan sartu eta bere amari deitu zion. Gelditzen zitzaion pazientzia guztiarekin, ia hogeita minututan zehar entzun zuen, bere etxearen garbiketari emandako bultzada dizdiratsua eskertu zion eta, neke-neke eginda agurtu zen.

Ez zuen sukaldea zikinduko... Gazta desberdinekin taula bat prestatu, lata pare bat ireki pikatzeko eta Martini lehor bikoitz bat prestatu zion bere buruari, desiratzen zuen lo sakona ziurtatzeko asmoz.

Jaten zuen bitartean, Juanek hainbat ohar idatzi zituen "egin gabeko gaiak" koadernoan. Jorgek, bilera utzi baino lehen, informe batzuk ematea lortu zuen; eta bere erantzunkizun zentzumenak ohera joatea eragozten zion egun kaotiko hartatik zerbait positibo ez bazuen erreskatatzen.

√ T. Jose = Haserrekeria justifikatua. Ez dago bere funtzioetan. Beste postu bat agindu zitzaion. Giza Baliabideekin hitz egin. Jeniala izan daiteke sormenezko eta sistemen hobekuntzako ingeniarietan.

√ A. Loli = Eskrupulorik gabeko salmentaren joera. Etorkizuneko pizgarrien sistema birplanteatu.

√ R. Martin = Hamar puntu.

√ G. Oriol = Produktuaren ulermena indartu. Empatia ona.

√ E. Quito = Kasu zailtan ideala. Amaigabeko pazientzia. Soft erabilera ona.

√ T. Viqui = Aurkikuntza. Diskurtsoan sortzailea. Fidagarritasuna sortzen du. Motibatzaile bikaina. Berezko dohai pedagogikoak.

Jarraian, ahalegin gehiagorekin gogoia baino, Juanek *Golden Net & Up*-en balizko erabiltzaileei eginiko inkestaren emaitza adierazgarrienak berriro irakurri zituen.

Ea erabiltzaileek softwarek eskeintzen zituen aukerak disfrutatzea gustoko zutenei buruzko erantzun guztiek positibo ematen zuten:

- Familiako argazkiak berreskuratu eta oritzapen bilduma bat editatu
- Txangoak eta bidaiak neurritan antolatu eta lehiakortasunik gabeko prezioetan
- Lehiaketak, txapelketak eta lehiak belaunaldi bereko gende artean
- Etxez etxeko zerbitzuak eguneko hogeita lau orduetan behar, gutuzi eta burutapen aukera askotarako
- Pertsona urrunekin berriz bildu. Gerra ondorengoetan senide galduen bilaketa
- Munduko biloben aitabitxi izan
- Ipuinak idatzi ume ondoan
- Bildumatzaile eta beste hobbie-en kluba
- Artisautza jarduerak gizon eta emakumeentzat
- Unibertsitate irekia gende helduarentzat
- Erretiro ondorengo bizitzeko era alternatiboak...

- Abesbatza, kontakizunak, antzerkia eta hainbat ikastaro espezializatu “65 up” perfilean

Aukera zerrenda amaigabea eta ondo landua zen. Informazio sarbidearen diseinua hain soil, garbi eta beroa zenez, ez zuen ematen ohiko sistema informatikoei egokitzen zitzaienik. Eskeintza hauen interesa adoretzeko modukoa zen: interesatuak ehuneko laurogeita hamar.

Baina galdeketaren amaieran, galdera bat, ehuneko laurogeita hamabostak EZ biribil batez erantzuna, zen Juan gehien motibatzen zuena. Ea etxean ordenagailu bat izatea gustatuko litzaikekeen erantzuteko orduan... Balizko erabiltzaileek proiektuaz barrez ari zirela ematen zuten, munduko zentzugabekeriari handiena balitz bezala. Ezetz hau zen, hain zuen ere, Juanen erronkarik handiena.

Martini lehorrak bere aurpegi nekatuan marrazten zen irribar apur bat tuntunean laguntzen zuen. Begiak altxa, logelatik aldentzen zuen distantzia kalkulatu eta, baldarki biluztuz gazta eta ogi apurren aurrean, argia itzali zuen eta ilunpetan bere ohearen gainean bota zen.

Ordu batzuk beranduago, ordu txikietan, bere ahotsak esnatu zuen Eureka! bezalako oihu batekin.

–Metroaren txartela!!!

Amesten aritu zela jakitun, baina baita inoiz ez zuela metroz bidaiatzen ere, Juan arrapaladan abiatu zen sarrera

gelara. Jarroi japoniarra hartu eta, buruz behera astinduz jangelako mahai gainean, barreiatzen ari ziren paperak bereizi zituen trebeki. Bederatzi bider bost zentimetroko klasiko baten formatoa buruz behera ikustean, begiak itxi zituen ume baten eskari saio baten keinuak egiten.

Txartelari buelta ematean irakurri zuen:

KOMODO
ZERBITZU BEREZIAK JENDE BEREZIARENTZAT
TELEFONOA 24 ORD – SARTU NIRE WEBGUNEAN

Halako misterioa zeukan, baina oso aldarte zalantzatirekin... Hori ez zen berak aurkitzea espero zuen txartela. Etsipenak bularra uzurtu zion eta, hiri oraindik loaren isiltasunean, Juanek ulertu zuen ez zuela dagoeneko loa berreskuratuko. *Goizeko bostak dira... Ez dago hain gaizki... Segurazki goiz hartu nau loak eta noski, orain lehoi baten goseak nago* –bere burari esan zion Juanek, ingira apur batez, alkoholaren hondarrak zituen edalontzia baztertzen zuen bitartean eta bere amak onartuko lukeen gosaria prestatzeari ekin zion, azken otorduetako proteina balore eskasa kontutan hartuta.

Egia esanda, norbaiti buruz ametsetan ere azaltzeko adina interesarekin pentsatzeak bizi-bizirik sentituarazten zuen. Balkoia irekita gelditu zen eta hotza sartzen zen. Ixtean, eguzkiaren irteera behatzera gelditu zen beirak babestuta. Scout garaitik, ez zuen gogoratzen argia urratzean goizen kolorea ikusi izatea.

Honek Vivaldi merezi du. Udazkena entzun dadila eta... Ole! –Pentsatu zuen musika tresnara hurbilduz. CDaren kutxatila irekitzean, txartel nimiño bat planeatu zen luma baten xarma eta dotoreziarekin bere oin hankutsi baten gainean lurreratu arte.

Une baten ondoren, bizilagun sumindu baten kolpeek durundatzen zuten erdiko hormaren kontra. Juanek behatz nagusia altxatu zuen keinu nahiko gizagabe batez, bizilagunaren erantzun moduan. Baina berehala aurikularrak jarri eta bere itxaropenaren musika entzuten jarraitu zuen bolumen handiz.

Telefonoak jo zuenean, Jorgek bere osasunari buruz galdetzen ari zen.

– Inoiz baino hobeto nago, Jorge. Ikusten da lo egin behar nuela. Besterik gabe. Emaidazu hogeita minutu eta zurekin egongo naiz. Ah! Eta hobe tabernan itxaron nazazun, horrela ez gaituzte moztuko.

Goizeko bederatziak eta hamabost minutu ziren eta, sofan etzanda, oraindik onik non gorde ez zekien feminitate tentagarri eredu nimiño hura gordetzen zuen bere eskuan, presa handiz dutxatu baino lehen. Zalantzengatik, Carlaren datuak agendan, egiteko gaien koadernoan eta bere mugikorraren memorian idatzi zituen; eta gero, txartela bere mesanotxearen kajoian gorde zuen, agurtzeko muxutxo baten ondoren.

8. gida

Nire istripu txikiak (kolpeak, baldarkeriak, ahazteak, objetuen galera) harremanetan al daude neke egoerak, une baten bahiketa emozionalak edota pentsamendu obsesiboekin?

Ametsak gogoratzen al ditut?

Nire bizitzako une honetan zerk ematen dit ilusioa?

Eguna amaitzean lan kontuetatik errez deskonektatzen naiz?

IX. kapitulua

Osteguna: Gorbata bat balkoian

Miranda bere bezeroen zerrendaren zabalpenean hasi zen lanean. Bere azken mintegiaren partaideen profilaz hausnartzean, Juan Ribau partaideen artean pertsona nabarmena izan zela ondorioztatu zuen. Bestei distira lausotu gabe, lider peto-petoaren bere dohaiak erakutsi izan zituen. Bere interes komertzialaz gain, pertsatu zuen oso erabilgarria izango zitzaiola berarekin harremanetan jartzea feedback jaso eta iritziak trukatzeko.

*–Bai...–pentsatu zuen ahots goraz, beste pertsona batekin hitz egiten denean egiten diren geldiune berdinekin–
Eta enpresa honek bere langilen artean gerente bat bidaltzea onartu izana ustekabe atsegina izan zen niretzat. Orokorrean, harremanetako marketing-ekoek mamboaren errege direla uste izaten dute...
Interesgarria. Gainera, tipoak proposamenaren aurrean freskotasunez murgiltzea lortu zuela iruditu zitzaidan. Horiek dira a posteriori analisi gaitasun handiena izaten dutenak. Bere lurraldean bilera bat eskatuko diot.*

Goizak argi distiratzzen zuen, aire freskoaren zeru urdinarekin, aldarte ona eta pentsamenduaren erabakitasunera bultzatzen zuela ematen zuen. Mirandak bere agenda antolatzen zuen bitartean, Carla zeru horren eragina bere auzoko jendearen artean antzematen ari zen. Bere estudiorantz zihoala, bere etxetik kale gutxira, adeitasunak sorginkeria ematen zuen; dendari, banatzaile eta merkatu freskoz beteriko bere gurditxoekin jubilatuen begirada atsegin eta agurra zenbaezin askorekin gurutzatu zen; eta pausu bakoitzean, indar eta eskuzabaltasun sentsazioak energiaz betetzen zuen.

Badakit zer egingo dudan... Agian kontratatu nauen best sellerren izarrarekin sentitzen dudan deserosotasun eta kritika kutsu hau izango da oraindik ez dudalako nahikoa ezagutzen bere mezua eta aurkepenaren itxaropena jasotzeko... Azken batez, beharbada tipoak asko izango du pertsoneri esateko eta, bere showman jarrera, estrategia bat izango da zirrara eragiteko, kontzientziak esnatzeko... Ez dakit ba, aukera bat emango diodala uste dut... Astelehenean da ideien bilera... Lau egun hauek aprobetxatuko ditut bere obra irakurri eta sakon ezagutzeko... Berez, liburuaren izenburuak "Bizitzako krisiak"-ez hitz egiten du eta... Ez dituenak bota dezala lehenengo harria, ezta? ... Bai, lan ona egin nahi dut... Agian nire aukera da nire lanean nabarmentzeko, zergatik ez?...

Alokailuan atiko eder bat zuen ereikuntzara heldu

baino lehen, Carlak erabaki zuen hainbeste gustatzen zitzaion laranja eta kanela egoskina eta programatu berri zuen kontzentrazio jardunaldian zehar pikatzeko fruitu lehor aukera bat erostea. Iristean, telefonoei soinua kendu zien, mezuak gogoko izango zituen atsedendietan bakarrik atenditzeko , eta “Bizitzaren krisiak”-etan guztiz murgildu aurretik, bere terrazaren landare joritsuak ureztatu zituen. Goiza sakon eta esker onez arnastu zuen, jakinminez umekeriazko begirada bota zion parkeari; izan ere, zuhaitzen ababuruek bidetxurretan halako itzalak marrazten zituzten non kakorratz lanezkoak iruditzen zitzaizkion, udazkenaren deiarri aurre egiten zioten hosto ñir-ñirkariekin berregindak. Begiak altxatzean, bere atenzioa deitu zuen balkoi terraza bat ere aurkitu zuen, berearen aurre-aurrean, lorategi publikoaren beste aldean. Gorbata antzeko zerbait grazia handiz astintzen ari zen burdin sare artean, eta Carlak berari agur egiten zion eskutxo bat balitz bezala, kanpoaldea agurtu zuen bere eskuarekin keinu lagunkoi hori imitatuz.

Hogei bat kale gorago, hiriak guztiz aldatzen zuen bere itxura. Ereikuntzek, pertsonak, zirkulatzen ari ziren kotxeek, kafeek, denak dotoreago, dinamikoago eta “chic” gehiagorekin ematen zuten.

Juan bere praktikak adina ebakidura eta izaera italiarra zuen kafetegi batean sartu zen. Jorge baino lehen iristeagatik harrিতua, kokatu zen eta mugikorra mahai gainean utzi zuen, gogokidetasunez berari begiratu. Zalantzenetik, ea memorian sartutako azken zenbakia

oraindik han zegoen berraztertu zuen eta pentsatu zuen: “bilera ondoren deituko dizut, printzesa”.

Minutu batzuk beranduago, gizon abaildu baten irudia argiaren kontra marrazten zen eta bere mahairaino aurreratzen zen. Juanek denbora behar izan zuen Jorge ezagutzeko. Hamar urte zaharrago ematen zuen, eta bere sorbalda, beti apur bat aurreatua, gaur erabat hondoratzen zuen bere bularra, diafragma moztu eta gutxienez izari batean murrizten zuen bere itxura.

Zuhurtasunez, Juanek egunsentiatik laguntzen zion poztasun bizia menderatu eta bere kidea agurtu zuen modu bereziki bero batez.

–Zer moduz dago zure emaztea?

–Dibortzioa eskatu dit.

–Hitz egin nahi duzu horretaz?

–Behar dudala suposatzen dut. Baina gau osoan ezin izan dut gaia aparkatu. Nahiago dut burutu gabeko lan kontuei heltzea. –Juanek telefonoa hartu zuen bere lagunak ebakia eta tea limoiarekin eskatzen zituen bitartean.

–Egun on Clara, Jorgek eta biok goiz honetan tabernan egingo dugu lan. Garrantzitsutzat ematen baduzu bakarrik desbideratu deiak nire mugikorrera edo zuk zeuk abisatu. Posiblea al da?

–Ez kezkatu Juan, egunak lasaia ematen du. Miranda Lynch delako batek bakarrik deitu dizu. Garrantzitsua zela esan du, baina ez larria. Bere telefonoa hartu dut.

–Ondo eginda Clara. Gogora iezadazu ni itzultzean. Gero arte.

Juanek bulego erritmoan jarraitu zuen, gai bat beste batekin lotuz, bere kide hustuari presioa xiringatuz.

–Zertan ari da orain taldea?

–Lasasitu zitez, Juan. Ez daude zereginik gabe. Egun trinkoa antolatu nien talde jardueran, bi edo hiruri izan ezik. Zuri kontsultatu gabe zerbait desberdina agintzeko baimena hartu nuen.

–Zer ari dira egiten?

–Martín, Quito eta Viqui datu baseak antolatzen ari dira: Sail ofizialak, zentru pribatuak, hirugarren adinean espezializatutako teknikoen taldea, hurrenez hurren. Jose arduraduna da bai Lolik bai Oriolek produktua teknikoki eta merkatal aldetik sakonki ezagutu dezaten.

–Atzo zure informea aztertu nuen eta ezin hobeto ulertu nuen. Joseren kontuarengatik giza baliabideen arduradunarekin bilera bat eskatu dut dagoeneko. Putada bat da. Curriculum itzela dauka eta jakin nahi dut ea akats bat dagoen edo bidegabekeria ez ote den errugabea... Ez litzateke nire taldean egon beharko, ez da komertzial bat. Bistan denez, lana behar duzunean, beti ez da posible zaldia hortzak begiratzea, baina oraindik bere neurriko informatika ingeniari bat behar dugu eta...Presio eltze bat bezala egon behar du. Oraintxe bertan esan behar zaio bere egoeraz arduratzen ari garela. Ongi egin duzu hierarkia handiagoko lana ematean, baina ez dela nahikoa sumatzen dut. Ez da haur bat goxokiekin konformatzeko, eta enpresa honek ez du kinder garden batean bezala jokatu nahi. Eta are guxiago nik.

–Ados nago, pentsatzen duzuna jakiteak arintzen nau.

Loliren kasuan, gaia zaila da. Bere trebeziak oso gaizki erabiltzen dituela uste dut. Ez dut inor kaltetu nahi nire ebaluazioekin, Juan, baina arazoak ekarriko dituela ziur nago. Manipulatzailea da. Nik oso ongi antzeman, bideratu eta landu dezaket bere “vamp” irudiaren atzean daukan dominatzaile grina hori. Baina nire funtzioak pare bat hilabete barru amaituko dira, eta mundu guztiak ezin du bere arrazoibide sotil eta nahasgarritik defendatu, non bere gorputz hizkuntzak gauza bat esaten duen eta bere hitz eztenkariak beste bat. Ezinegona egongo da lan taldean. Beste aldetik, inork baino hobeto bultzatzen ditu salmentak... eta hori interesatzen da, garbi dago, baina... Neurri batean enpresaren politikaren menpe dago.

–Gai ona Miranda Lynch-entzat. Bide batez, ezagutzen al duzu? Gaur mezu bat utzi du.

–Sentitzen dut Juan, gertatzen ari zaidan guztiarekin, orandik ez dugu hitz egin AE jardunaldian ea nola joan zitzazun. Ez, ez dut pertsonalki ezagutzen, baina bere berezitasuna giza baliabideei enpresarentzat formakuntza alternatibo bezala iradoki nizkien gaietako bat da, eta profesional moduan bere erreferentzi onak dauzkat. Agian horregatik bidali zintuzten. Interesgarria iruditu zitzazun?

–Bai, oso. Eta baita ikasteko zaila ere, edo ikasketa desberdinekoa ...Gutxienez ohituta gaudenarekin konparatuz... Ez dakit, ez zitzazkidan errezeta ontziratu soilak iruditu... Uste dut interesgarria izango dela berarekin sakon hitz egitea.

–Nolakoa da?

–Pentsatzen hasita, asko gustatuko litzazukeela uste dut. Polita da barrutik eta kanpotik. Daukan izen hori ere ongi dagokio...

–Gorbata hau zeneraman mintegian? Hau marka, txo!
Non erosi zenuen, auzoko azoka txikian?

–Arraioa! Arrazoa daukazu! Zer hortera ikusten den hau!
Lagundidazu beste bat erosten. Bart ezkerreko oinarekin
sartu nintzen etxera ... Ergelduta nengoen eta ez daukat
ideiarik ere non utzi nuen nire gogoko gorbata. Gaur toki
guztietatik bilatu dut.

Juanek bazekien bere lan egoerak beratzea eskatzen
zuela eta denbora erraz jostaraz zezakeen. Gainera, bere
lagunak eguzki pixka bat behar zuela pentsatu zuen.
Kontua ordaindu eta ibilaldi lasaia eginez eraman zuen,
bere aldartea lasaitu eta aitorpenetara gonbidatzeko.
Behin ere ez zuen halako larridura eta tristezia ikusi izan
Jorgeren aurpegian.

9. gida

Zenbat ñabardura emozional deskriba dezaket kapitulu honetako pertsonaiengan?

Hainbat emozioarekin kontaktatzea saihesten al dut?

Besteak ulertzen ohi ditut, epaitu gabe eta errezeta errazak eskaini gabe?

X. Kapitulua

Hiriko konplizitatea

la ehun metrotan zehar, Juan eta Jorge eguzkiaren espaloian zehar ibili ziren hitzik esan gabe. Lehenengoak bere bihotzean bilatzen zituen elkarrizketa hasi baino lehen; eta bigarrena bere buru nekatuaren isiltasunean murgiltzen zen. Baina biak bidezidorra, ibiltzean erritmo lotua eta zinezko komunikazio zubi bat eraikitzen ari ziren. Pixkanaka bere inguruan zaratak arintzen ari zirela ematen zuen. Jendetzak bidea irekitzen zien baldarkeriarik gabe, hamaika aurpegi anonimoren artean eta, orduan, zeharkako kale bat gurutzatzen ari zirenean, intimitatea bultzatzen duen halako mikroatmosfera hori sortzen amaitu zen. Elkarrenganako konfidantza sentimendu batek bildu zituen hiriko konplizitate egoki horren barruan.

–Uste dut ongi egin duzula mintegiari buruz ezer ez galdetzean duela gutxi arte...–esaten hasi zen Juan ahots gora pentsatuz bezala– Ez nuen jakingo zer erantzun. Dena den, hautemangaitza den zerbait ari da aldatzen nire barruan eta, agian, aldaketa hau AE topaketan hasi zen. Jaso nuen informazio guztia nire barruan formakuntzan

ariko balitz bezala da. Ez dakit ongi oraindik...

–Zer aldaketaz ari zara?

–Nabaritzen direla ikusten dut...

–Ez adarra jo. Ez al duzu esan hautemangaitzak zirela?

–Egia. Begira, Miranda Lynch-ek zirkulazioan jarri eta eskaini zuen informazioa alde batera utzirik, uste dut oraingoz ez dela zer, nola baizik... Grafikoa izateko, esango dizut asteartetik dena bizi-bizirik eta zuzenean azaltzen zaidala eta, kontrastean, horrek pentsarazten dit denbora asko pasa dudala bizitza kanpotik ikusten, pelikula bat bezala...

–Inoiz ez da berandu zentzumenak esnatzeko... Maitemintze kontua ematen du.

–Ere bai. Baina ez zen mintegian izan. Gero izan zen. Egia esan, soroa emankor utzi izan balidate bezala...

–Maitemintzeko?

–Beste modu batean hautemateko. Beste modu batean entzuteko... Bai, hori puntu handia izan zen. Entzumena. Eta fija zaitez, mintegitik ateratzean, ordubete beranduago, irribarrea besterik gogoratzen ez nuen emakume batekin neukala afari bat...

Gerente gaztearen ospea ezagututa, Jorgek ia automatismo batekin erantzuten du, “Don Juan” izendapena berarai zer ongi joan izanaz txantxa batekin, baina kontakizunaren tonua beste aldietan erabilitakoarekin oso desberdina zen. Sakontasuna zeukan, ez zuen inolaz ere hutsala ematen. Beraz, bere ohiko zuhertasunarekin, Jorgek adierazten jarraitzeko animatu zuen.

–Hortaz... afarian zehar adimen emozionalak bultzatzen duen “baieztapen-entzumenarekin” jarraitu zenuen, ezta?

–esan zuen Jorgek Juanen ideia osatzen saiatuz.

–Horixe. Egunen batean gehiago kontatuko dizut afariari buruz, baina ez dut gogorik hortaz hitz egiteko orain. Mintegia afariarenarekin lotzen duena da Carlak, etxera etorri zen emakumeak, zerbait berezia esan zuela –edo nik modu berezian entzun nuen-, auto-eztabaidaketarako gonbidatu ninduen. Eta horri esker, nik besteei ematen diedan irudiari buruz pentsatu nuen, eta nik neure burari buruz benetan dudana... Sumatzen dut jardunaldi hartako entrenamenduak astindu ninduela neurri batean... Horrela izan ez balitz, segurazki gau hori, beste gau bat gehiago izango zen... Miranda Lynch-ekin hitz egitea ona izango da. Sakonduko dut.

–Jakinarene gainean izan nazazu.

Jorgeren eskariaren ondoren, Juanek denda dotore bateko apaletan gorbata bat seinalatu zuen. Jorgek begi keinu batekin onartu zuen eta erostera sartu ziren.

–Orain bulegora sar zaitezke barregarri gelditu gabe, zer iruditzen lanera itzultzen bagara?

–Jakina coach! Baina bi gauza gogoratu: itzultzeko sei kale eguzkitsu gelditzen dira, eta nik jarraitzen dut baieztapen-entzumena izaten...

Une horretan, Jorgek Juan besarkatzeko bulkada sentitu zuen, nahiz eta sorbaldan bixkarreko bat ematera mugatu zen nahitasun seinalean. Zintzur intxaurra ez

zizaion geldirik gelditzen. Txikitatik, negarra saihesteko mugitzen ikasi zuen, baina une horretan, mekanismoak huts egiten zion. Bere akidurak hiper-sentsibilizatzeko laguntzen zion. Hain sakon arnastu zuenez, bere biriketako aireak altxatzeko behartu zuen. Gero, arnasa bota zuen txistu gor eta luzez, eta bere nahigabea elkarbanatzen hasi zen:

–Lucía, nire emaztea, internaturik dago duela bost urte baino gehiagotik. Esklerosi anitza dauka. Bizitasunez beteriko emakumea zen, ederra, azkarra... Berrogeita hiru urterekin, gaztetasun heldu bete-betean, seme-alabak dagoeneko haziak zeudenean... Bizitzak lapurtu zidan... Eta orain... Hainbeste beldur dudan, Juan...

Laburpen hau, gehiegi zen oinez jasateko. Juanek Jorge besotik hartu eta kale kantoia biratu zuen. Hogeii pausutara, ereikin bikainen bihotzean izkutaturik, lorategi publiko txiki bat zegoen, babestua eta banku urrunekin beraien artean. Juani hamaika pentsamendu iragan zitzaizkion segundu gutxitan, eta une horretan entzundakoa kafetegi italiarrean Jorgeren esaldiarekin lotzen saiatu zen: *“dibortzioa eskatu zidan”*

Glorieta antzeko batean, katu harro eta estualdien jakile batek orubearen bankurik onena utzi zien eta, esfinge bat bezala, hiruek sortutako biribil intimoa ixten kokatu zen.

Ixiltasun minutu batzuk pasa ondoren, Juanek bere mugikorra entzun zuen eta bere lagunarengandik metro

batzuk aldentzea erabaki zuen. Clarak bilera batera deitzen zion zuzendarien aurrean. Jarraian, bizpairu dei egin zituen eta, gero, Jorgerengana hurbildu zen denborak antolatzeke eta beharkizunak eta konpromezuak betetzeko asmotan bere behar animikoak baztertu gabe.

–Entzun “coach”, ordu erdi batean bulegoan egon behar naiz bai ala bai. “Goikoek” behar naute eta uste dut ona izango litzakeela zure gauzei buruz presarik gabe hitz egitea. Har ezazu eguna, mesedez. Atsedena hartzera joan zaitez eta pentsamendu parentesi bat egiten saiatu, emozioak arintzeko. Ondo iruditzen bazaizu, arratsaldeko seietan zure etxetik pasako naiz.

–Ez, Juan. Utzi. Sei eta erdietan ere bizkiak helduko dira eta ezin izango dugu hitz egin... Beraz, ez kezkatu, arazoa nirea da. Ez zen nire asmoa zu nahastea...

–Utzi ergelkeria horiek, Jorge. Zuri gertatutakoak hunkitu egiten nau, gogoko zaitut. Eta afektibitate aldetik, barnean sartuta nago jada. Bizkiek zerbat urte dute?

–Hemezortzi. Nacho eta Cecilia.

–Ba, seietan txirrina joko dizut eta nire etxera joango gara. Ni bakarrik nago. Clarak zure helbidea al dauka?

–Bai. Eskerrik asko eskaintzarengatik. Dena den, uste dut egoera honetan gaur ezingo nukeela lan ona egin. Sentitzen dut.

–Atsedena hartu. Inoiz baino argiago egon behar duzu. Proiektuaren timing-a ona da, eta ez du egun bakarra emango...ez kezkatu. Gero arte.

Juanisenakzerbaitarraroaesatenzion.Zuzendariekin

zain zeukan ezusteko bilera hori ez zela seinale ona sumatzen zuen. Ahalik eta azkarren zeharkatu zituen sei kale haiek, oinezkoentzako berdea bere erritmoarekin sinkroniza zedila eskatuz. Pentsamenduak gai batetik bestera saltoka zebilzkion orden biribil batean, beste logika batetik bezala: *Printzesa, eraman onekoa izan beharko zara, saiatuko naiz ordaintzen beste seinale batekin gutxienez. Azken urte hauetan zehar, Jorgek sexua izan al du norbaitekin? Falta den bakarra amak deitzen hastea da bere eskakizunekin. Duela astebete baino gutxiago zoriondu ninduten marketing plangintzarengatik, coach-ak parte hartzeagatik: OK... Zer izango dute esku artean? Beraz, gogoko ninduzun, printzesa... Hara, halako itxaropen handia utzi didazun txartel txiki batean... Clarari esango diot Lynch-i erantzuteko eta agenda egin dezala niregatik. Gaur bereziki ez dut hitz eta pitz jardun nahi... Bizkiak gainera! Lan eta lan arituko da bera bakarrik! Berrogeita hamar baditu, esan nahi du aita izan zela hogeita hamalarekin... Ni baino gazteago baina ez hainbeste... Aldeko haize pixka batekin, amona izan daiteke oraindik... Espero dut nire trajea ez jaztea gay ezkontza batera joateko... Andregaiaren ileapaintzailea izango al da? Edo senargaiarena, bah! Dena da posible nire anaiarekin... Zorionez, nire aita ez zen bizi izan*

bere aingerutxoaren aukerak ikusteko... Ah! Eta tipoak softwarea sortu zuen Pentsio Kutxa Nazionalaren biregiturarako. Torras Jose sartzeko hain inkoherente izango al dira, edo ezkerreko poltsikotik zerbait aterako al dute? Horrela izango balitz, gajoa ez litzateke hain urduri egongo... Bide batez, gaia landuko dut bilera honetan. Ni bai aritu nintzela bere curriculumama irakurtzen...

Enpresara heltzean, ereikinaren fatxadan baxuerliebean zizelatutako erloju erraldoiari begiratu zion. Titaniozko orratz erraldoiek hamabiak laurden gutxi markatzen zuten. Bilera aurretik hamar minutu gelditzen zitzaizkiola ikusi zuen. Irribarre egin zuen bihurrikeria bat bakarka planeatzen arituko balitz bezala. Bere mugikorra hartu, Carlaren zenbakia buruz ikasi, eta izkinako kabina publikora zuzendu zen. Horrela ez zen bere telefonoaren zenbakia azalduko bere printzesarenaren pantailan. Iragarritako topaketa horren ezinegon mamitsua luzatzeko gogoia sentitzen zuen.

10. gida

Zenbat fronte daukat irekita, intereseko gaiak bezala, nire bizitza pertsonalean?

Zenbait gaiei "itsatsita" gelditzen naiz behar baino gehiago?

Homosexualitateari buruz aurreiritziak al dauzkat?

Zertan sentitzen naiz gutxiengoaren zatia?

Nire bizitzan igarotzen naiz ala bizi egiten dut?

XI. kapitulua

Showman-a, ama eta kontinentearteko nerbiotako eraso

Carla urdailean hutsunea sentitzen hasi zen. Irakurketan aurrera zihoan neurrian, bere barruko kontraesana handitzen ari zen “Bizitzako krisialdia”-ren egileari buruz. Hainbat esaldi, hainbat pentsamendu, hainbat anekdota dibertigarri ezagunak egiten zitzaizkion, eta horrek urduritzen zuten emozioak sorarazten zizkion, batez ere ez zekielako zergatia.

Hamabiak eta laurdenetan, zerbait jatea eta infusio bero bat edatea erabaki zuen, hutsune gogaikarri hori zuzentzeko. Berarentzat paragrafo enigmatikoenak nabarmendu zituen arkatza utzi, eta liburua utzi zuen tapakiz eta kuxinez estalitako besaulkiaren gainean, non bere irakurketa katramilatu zen.

Bere tearentzat irakitzen ari zen uraren txistua itxaroten ari zen bitartean, bere hatz txikiaren azkazala eta kutikula inausten hasi zen hortzekin. Hamalau urtetik ez zituen azkazalak jaten eta, hala ere, une horretan bere

ezkerreko eskuaren txikiena torturatzen ari zen erabateko trebetasunez. Begirada galdua zeukan, oroitzapen ezkutuen laberintoren batean galdua eta ez zen bere zeregin neketsuaren kontzientea.

Bat-batean, zapore gozo eta epel batek, bere hortz eta mingain puntaren artean lehertu zenak, galdera garratz samareko uholdea ekarri zion: Nola da posible halako tipo hain showmanak, hain atzerritarrak eta hain baina hain esnobak niri, Carla Sarrasquet-i, eskatu izana bere promozio bira antolatzea Espainako lau hiri garrantzitsunetatik ?

Olaf Studner nazioarteko entzuteko ekonomista suitzar bat zen, korporazio handien mundutik erretiratu –berezko erabaki eta maltzurkeria dela eta– 42 urterekin, bere lan karreraren gailurrean. '98-ko erdialdean, urte pare bateko erretiro diskretuaren ondoren, bere izena eta aurpegi beltzarana biragertu ziren aldizkari garestienen azaletan, bizi ona eta arrakasta europarraren jakinduriaren eredu moduan. Horrela, bere jabetzako hainbat erretiro gune ezagutu zitzaizkion. Estresaren aurkako hotel proposamena, Mediterraneoko ugarte desberdinetan: country estiloa, golfa, ibilaldiko zaldiak, ur termalen igerilekuak, janari naturala, oktogonal itxurako txabolak Zen meditaziorako, non bere ardurapenean hausnarketa hitzaldiak ere eskaintzen ziren. Eliteko bere merkatal eskaintzaren beste paradisuko dohaien artean, beste behin enpresako lider moduan kokatzen zutenak – oraingoan aisialdi eta osasun alorrean -, mistizismo ukitu

handiak, bere izaera karismatikoari gaineratuta, hirugarren milurtekoaren ekintzaileen guru bihurtu zuen.

Eta orain, bere berrogeita hamargutxi urterekin, gizon honek bizitzako krisialdiei buruz hitz egiten zuen best seller izango zen liburu batean . Carlarekin bere website-aren bitartez jarri zen harremanetan. Kostuen ehuneko hirurogeita hamarra estaltzen zuen bankuko transferentzia ere egin zuen. Hori diru asko zen eta bazen garaia guztiaren erreserbak egiteko. Stüdner-entzat kalte handia izango zen atzera egingo balu tratuarekin, eta baita ospearen galera ere berarentzat, enpresetako zerbitzuetako merkatuan ondo kokatzen saiatzen ari zen freelance bat. Den-denak zoragarria ematen zuen, bere egoera animikoak izan ezik. Zerbaitek armiarma sarean harrapatutako intsektu txiki bat bezala sentiarazten zuen. Ea ba –bere buruari esan zion Carlak, zeinak bere pentsamenduen puntu honetan, bakarrik hitz egiten zuen ahots goraz eta ez zuen antzematen ez atiko osoaren kristalak lurrintzen ari zen baporea, ez irakitzen ari zen teontziaren oihu lazgarria bere oinarria kiskaltzeko mehatxuekin, ez bere ezkerreko hatz txikiaren azkazala inguratzen ari zen odol hari mehea ere – Nola arraio egin du gizon horrek nire web orria ezagutzeko, duela hilabete bat baino gutxiago diseinatu bazen, oraindik ez bada inprimatua azaldu publizitateko bitarteko batean, eta eterrean zirkulatzen ari direnen artean apalena izaten jarraitzen badu? Norbaitek iradoki omen dio... Ez dut jatorri suitzarreko inor ezagutzen. Ugarteetan bizi den norbaitek izan behar du... Kaka zaharra! Hau pertsona

baten ekintza bakarrik izan daiteke!

Moko eta sabeleko irakin-ontzia gorri minean dardarka ari zen jada, bere txistu agortuari gehituz metalezko tapaukiaren tintilina eta bere barruan harri bihurtutako karearen geruzengatik oinarri astunak ematen zituen kolpeak, sutatik bere kabuz ateratzeko ahaleginetan. Halako kaosari kasu egin gabe, Carla; zein bere urdainean hutsune sentsaziotik, amorru hiltzaile gor eta itsu batera pasa zen, telefonora zuzendu zen zezen abiadura batez, txoko guztietatik bere begiek isuritzen ari ziren gorriari eraso eginez. Parkinson gaitzari dagokion pulstu batez, zenbaki bat markatu eta haririk gabekoa belarriari hurbildu zion modu guztiz mehatxugarrian, bere etsaien aurrean eskuko granada bat heltzen ari den pertsona bezalaxe. Linearen beste aldean, atzealdeko musika indiarraren gainean, norbaitek erantzun zuen ahots alai eta lasai batez:

–Helo? Edozein izanda... ongi etorri zure ahotsa nire etxera!

– Carla naiz.

–Alaba, a zer sintonia zoragarria! Juxtu une honetan nire urtebetetzerako oparitu zenidan Ravi Shankar-en CDa ari naiz entzuten!

–Ez da sintonia egongo, ba... igarle bihurtu naiz eta! Ezetz ez zaudela bakarrik, ama...

–Naturala da alaba, burua eta bihotza loturik daudenean, begiek ez dute mugarik! Bai, arrazoia duzu, ez nago

bakarrik, lagun handi batekin nago...

–Laguna, ama? Laguna, ama? Laguna, ama?

Carla total antzeko moduan errepikatzen zenean, esaldi labur bera metraileta bezala emitituz, oso haserre zegoela esan nahi zuen, oso haserre baino askoz gehiago: erabateko krisialdian zegoen. Eta bere amak ondo zekien hori. Bere alaba nola lasaitu pentsatzen ari zen bitartean, musikari bolumena kendu eta elkarriketari heldu zion berriro tonu ez hain asaldatua eta goxoan:

–Noiztik aritzen zara nire harremanen intimitate maila kontrolatzen?

–Ez egin astojakintsuarena! Ez egin astojakintsuarena! Ez egin astojakintsuarena nirekin!

–Lasaitu zaitez, erregina...

–Erregina? Erregina deitzen didazu neuri? Erregina inozo, erregina ergela edo zure amaigabeko inauteriaren erregina, eh, eh, eh, ama? Eman erantzuna horri! Eman erantzuna horri, ahal baduzu!

–Ez dakit zerk jarri zaituen hain sututa, alaba, baina nik onena bakarrik nahi dut...

–Ez dakizula? Ba, orain jakingo duzu! Zure lagun maite-maitearen Olaf, Olaf, Olaf Stüdner-ekin hizketan jar nazazula nahi du! Orain, orain, oraintxe bertan!

–Nola dakizu gizon zoragarri horrekin nagoela? –erantzun zuen amak tonu garratz eta inozo artekoa erabiliz, ironiko eta ergel artekoa. Egia esanda, Sofia Sarrasquet-ek bere esaldia komunikazioaren beste aldean, kontinentetik, telefono batek sortutako atzeko zarata burrunbatsu

batekin batera amaitu zuen. Harri zuritutako etxe baten barruan, Formenterako itsaslabarren gainean, bakarrik entzuten ziren haizea, arroken kontra kolpatzen ari ziren olatuen zarata eta gizonezko ahots lasai bat, zein gaztelera oso arraroan eta irakaspén tonuan, esaten ari zen:

–Esan nizun,Sofi. Seme-alabei laguntzeko magia handia ere duten modu errealak badaude... Beste behin, zure haur fantasiek ni eramaten utzi dut nire burua, sentitzen dut. Hirurengatik sentitzen dut. Desenkusatu behar gara.

11. gida

Gaur egun zer gauzek jartzen naute sutan?

Nire iraganeko gertaerekin daude harremanetan?

Haserreak adierazteko nire moduak funtzionalak al dira?

Nire burua erasotzen al dut haserretzen naizenean?

Muga garbiak jartzen defendatzen naiz, edo eraso egiten dut?

Besteek jartzen dizkidaten mugak onartzen al ditut?

XII. kapitulua

Bihozkadak, bihotz-taupadak eta palpitazioez

Miranda nardatzen hasia zen eserita egoteaz, merkatal deiak egiteaz, plastikozko entzungailu baten aurrean irribarrez eta hitz formalez, hizketan aritzeaz imagina ezinezko aurpegirik gabe. Sukaldatzeko unea iristen ari zen eta bere telefonozko ereintza hurrengo asterako uztea erabaki zuen. Bat-batean, bere agenda ixtera zihuan une berean, telefonoak jo zuen. Delako “Softlberia-S.A.ko-Clara-egunon” deitzen ari zen Juan Ribaud jaunarekin bilera batera gonbidatzeko hurrengo asteko astelehenean goizeko 10etan bere bulegoan “zuri, Lynch andrea, ongi iruditzen bazaizu”. Mirandari ederki iruditu zitzaion eta elkarrizketarako bere harrera ona baieztatu zuen. Hitz ordua apuntatzen ari zen bitartean, bere mugikorrak jo zuen eta bere ahotsaren ezaugarria zen “Kaixooo?” eramana eta sensual tipikoa ahoskatu baino lehen, poz izugarriak argitu zuen bere aurpegia Alba ezagutzean.

–Kaixo, ama! Ez dakizu zer nolako emozioa dudan, oraintxe bertan taupadak entzun ditugu. Zer martxa zeramaten! Grabatu ditut, kopia bat zuri bidaltzeko, horrela eman

diguten lehengo poza gurekin elkarbanatuko duzu!

–Alaba, negararaziko didazu... Han egon nahiko nuke zuek besarkatzeko. Nolako ilusioa esaten didazuna! Baina, esan, zegatik esaten dituzu hitz batzuk pluralean? Zuen ondoan zegoen mediku taldeaz ari al zara?

–Beno, ez zehazki... Taupadak entzutean eman ziguten lehengo poza... Bai, jakina, medikuak ere izan ziren baina... Izan ere...

–Alaba, mesedez, ez jarri hainbeste suspentse. Bihotzekoak emateko zorian nago.

Babyak arazorik al du?

–Ay, ez ama, ez zaitetz jarri amona beldurgarri bat bezala! Izan ere, bi dira, horregatik hitz egin dut pluralean! Bixkiak izango ditugu!

–Jainko maitea! Nola moldatuko zarete bi umerekin batera? Eta ni hain urruti!

Noiz eramango dute Javi zentralera berriro? Ongi sentitzen al zara?

–Gelditu, gelditu pixka bat ama, une honetatik ari zara joaten. Ez zaitu pozik jartzen albisteak? Ez al da bedeinkapena bi ume batera jaso ahal izatea familia hain txiki honetan? Ez zaitetz kezkatu, lagunduta egoteko behar dudan guztia daukat, Javi zorientsu dago, ni adina edo ni baino gehiago... Eta ez dut nahi zuk une hau iluntzea beharrezkoak ez diren gehigarriekin, oraingoz behintzat, ados?

–Arrazoa duzu, amona beldurgarri batek bezala jokatu dut. Eskerrik asko ni nire lekuan jartzeagatik. Muxu handi bat emaiozu nire suhiari eta azkar joan zaitetz garbaketa bidaltzera aiton-amonentzat, izan ere... Javiren gurasoei

ere kopia bat igorriko diezue, ezta?

–Jakina amatxo. Beno, utziko zaitut. Gero elkarri idatziko diogu. Ah! Eleberri batzuk erosi ahal dizkidazu?

–Jakina –esan zuen, bere alaba imitatuz–. Eta dagoeneko bidalita daude “courrier hirurogeita hamar ordutan” –aren bidez. Bihar etxean izango dituzu, edo asko jota larunbatean goizean. E-mailen bidez esango didazu ea nik hautatutako izenburuak izugarri gustatu zaizkizun. Asko maite zaituztet, lauak. Jainko maitea, zer nolako jendetza eztanda!

–Nik ere asko maite zaitut, amatxo. Eta Javik muxu bat bidaltzen dizu, eta esaten ari zait zorientzen zaituela bi bilobengatik. Eta nik berdin... Muac. Batera moztuko, bai? Hiru kontatzean:

Bat. Muxutxoak. Bi. Mimoak. Eta...Agur ama.Badator... Hiru!

Mirandari dagoeneko bere alabak ama gogaikarriaren rola hartua zuela iruditu zitzaion. Alba txikia zenean biek erabiltzen zuten agurtzeko esamolde bera esatean, dagoeneko gozotasunak praktikatzen arituko balitz bezala, bixkiek bizpairu urte beteko zuten unerako.

Bere izpiritu kritikoa izanda ere, bularra asaldatuta sentitzen zuen. Horrek grazia egin zion eta oilaloka bezela pentsatu zuen bere burua. Nolabait, bera ere amatasuna berpizten ari zen bere alabarenarekin batera eta, askotan bezala, bere alarguntasunari ez ikusiarena egin zuen eta bere senar hilari berrikuntzak kontatzen hasi zen. Oraindik berarekin sakonki lotuta jarraitzen zuen. Oso zoriontsuak

izan ziren eta, bitxia, bere maitearen mamuarekin ez zuen hitz egiten arazoak zituenean, pozik sentitzen zenean baizik.

Baina etxetik atera behar zuen, besarka zezakeen norbaiti kontatu eta topa egin harrotasunez betetzen zuen alaitasun guzti horrengatik.

Zapatak eta berokia jantzi, kaba botila eta hainbat gauza gozo hartu, bi kopak organtza urdin ederrezko mahai zapi eta ohozapi artean babestu zituen; dena saskibatean kokatu zuen eta taxi bat hartzera jaitsi zen bere lagunaren estudiorantz. Ez zuen telefonoa hartu goiz osoan, baina Miranda ziur zegoen Carla irakutzen topatuko zuela, bere bezero berriarekin oso kontzentratu, moztua izateko gogorik gabe, ezusteko bazkari batengatik izan ezik, noski. Arratsaldeko ordu bietan puntu-puntan jo zuen txirrina behin eta berriz. Carlaren jenio txarra eta haserrea negar eztanda bilakatu ziren eta, une horretan, botatzeko muxuzapi bi kutxa erabiliak zituen kontsolamendurik lortu gabe. Bazekien deitzeko modu hori bere amazko lagunarena zela eta korrika joan zen irekitzera negarrari berriro emanez.

–Laztana! Nork jarri zaitu horrela? Eta usain txarreko ke guzti hau zer da?

–Nire amaren “SS”-a. Nor, bestela? Ah!, eta ur irakin-ontzia erre zait– erantzun zuen Carlak maina artean.

–Berrito? Carla eta Sofía! Sofía eta Carla! Bi Sarrasquets jasanezinak... Ahizpa jeloskorrak ematen duzue eta ez ama-alaba! Zoaz, errimelarekin nahastutako muki horiek

garbitzera joan zaitez nik mahaia prestatzen dudan bitartean. Kaba eta Norvegiako izokina dakartzat... Mmm! Mahats pasak eta arbendolak dituzula ikusten dut, ezinhobeto! –Jarraitu zuen Mirandak leihoak ireki eta saskia sukaldeko marmol gainean jartzen zuen bitartean. Bere lagunaren dramak harritu zuen, baina ez zuen bere animoa zapuztea lortu. Amazko maitasuna sobratzen zitzaion toki guztietatik.

Behin mahaian eserita, Mirandak ura edalontzietan zerbitzatu eta kopak topaketaren bukaerarako gorde zituen.

–Zer gertatu da orain? Kontaidazu dena lasaitasunez, bai? –Zioen Mirandak fruitu lehor batzuk lehenengo plater moduan jaten zituen bitartean.

–Nire bezero zoragarria ez da existitzen. Nire amaren beste asmakuntza izan da. Diru guztia bihar lehenengo orduan itzuliko dut.

–Eta diru guzti hori fantasiako lan arrakasta izan zenezan bakarrik bidali dizu? Noiz arte pentsatu zuen gezur horri eutsi ziezaiokela?

–Ez. Ez duzu ulertu. Dirua ustezko bezeroarena da. Tipoa existitzen da. Baina ez zeukan bere promozioa niri emateko inongo beharrik. Gertatzen dena da, Olaf Stüdner, nire ama dagoen tipoa dela. Badakizu, hura beti dago txandako bere “bizitzako maitearekin”. Etsituta sentitzen naiz! Nolatan jarritzen du ausartzen nire bizitzan horrela sartzen? Monstruo bat da. Gorrotatzen dut, gorrotatzen dut, gorrotatzen dut.

–Ez esan hori, laztana. Arrazoi berreskuragarri batek egon behar du bere jarreraren atzean. Berak biziki maite zaitu, edozein amak bere seme-alabak biziki maite dituen bezalaxe.

–“Edozein ama” ez da ama ezkongabeen aitzindaria. Aitaz gabetu zidan, nire existentzia planifikatu zidan bizitza osoan; eta orain, lana, arrakasta, dirua zer bezerok eman behar didaten erabakitzeko azala dauka. Jakina! Nola izan behar zuen berak arrakasta gutxiko alaba bat! Egia esanda berekoi hutsa da. Domina guztiak bere bularrean izan nahi ditu. Imaginatzen duzu bira aurrera eraman izan banu? Imaginatzen duzu lehenenego ekitaldian bera lehenenego ilaran eserita ikustean? Eskerrak konturatu nintzela! Gainera, ergel hutsa da, liburuan argi eta garbi berak idatzitako hamaika esaldi daude. Eta gizona, beste ergel hutsa, beraz tentelduta. Ia imaginatzen dut, bere lanean goilarea sartzen uzten, umekeriaren erreginari! Batzutan nire buruari galdetzen diot zergatik ez nuen izango aita ezkongabe bat guraso bakarreko familiazat matriarkatu bat beharrean. Zer inozo izan nintzen! Nola sinets nezakeen halako dinosaurioa nire zerbitzuak bilatzen ari zela! Gorrotatzen dut, gorrotatzen dut, gorrotatzen dut. Takikardia dudala uste dut. Nire pultsua kontrola dezakezu, Miranda?

–Noski, eskumuturra pasa. Aizu, bera umekeriaren erregina izango da baina... Horrela jartzen zarenean... Heldutasuna galtzen duzu. Gaia ikuspuntu desberdinetatik aztertu behar dugu ea ematen duena baino zerbait hobea azaltzen den, ados?

–Ados, baina... Nola? Esaidazu nola, Miranda. Nik badakit

nire amak itsutu egiten nauela baina...

–Ez, laztana. Zure amak ez zaitu itsutzen. Zuk zure burua itsutzen duzu bizitza ikusteko edo batzutan jokatzeko bere moduarekin. Zure emozioen erresponstabilitatea onartu behar duzu. Horrela bakarrik bereizi ahal izango dituzu zureak eta berarenak, horregatik sufritu gabe.

Carlak bazekien bere laguna entzuten. Eta bazekien adimen emozionala ez zela bere lanbiderako teknika erabilgarri sorta bat bakarrik. Miranda errespetagarria zen bere koherentzia eta naturaltasunarengatik, eta honek ez zuen inolaz ere perfektu egiten, gizakiena nagusi baizik. Izan ere, oso ongi ezagutzen zituen lanabes kutxa handi bat zeukan eskuragarri: giza emozioak. Mirandaren proposamen zentzuzko eta sentiberaren aurrean, Carlak berriro negar egiteko gogoia sentitu zuen. Baina ez gorrotoa eta mindutako harrokeriarengatik. Gehiago zen sentimendu sakonagoa, bere lagunaren hitz argigarrien ondoren azaldu zena. Eta sentimendu horrek bidea eman zion onartzeko oraindik ere, bere hogeita hamahiru urterekin, noraino zen bere emozioen, bere amaren eta bere gabezia guztien menpeko.

Hizketaldia ia arratsaldeko seiak arte luzatu zen. Eta Carlak lasaitasuna berreskuratu ahal izan zuenean, Mirandak kaba botilara jo zuen eta gaia aldatuz, hain zoriotsu egin zuten berrikuntzak konpartitu ahal izan zituen.

–Joan behar naiz Carla, etxea hankaz gora utzi dut, eta idazmahia garbiratzeko paperez beterik. Elkarrekin jaitsiko gara?

–Ez, hobe zu bakarrik joatea. Nik ere nahiago dut hau guztia apur bat txukuntzea eta mezuak entzutea. Egun osoan ez dut egin.

–Badakit. Nire zenbait agur topatuko dituzu. Zer iruditzen zaizu zinerako irteera bat asteburuan zehar?

–Itzela. Lehenago elkarri deituko diogu, ziur nago. Eta eskerrik asko guztiarengatik.

Miranda agurtu ondoren, Carlak bere erantzungailu automatikoaren bolumena igo eta paperak txukuntzen hasi zen. Hainbat ohar hartu, Mirandaren mezuak pasa, eta ez bere izena ez bere telefono zenbakia utzi ez zituen norbaiten hitzak entzun zituen behin eta berriz. Hala ere, oso ongi zekien norena zen ahots hori. Eta orduan, ezin zuen sinestu ere egin penak ahazteko bere gaitasuna. Atikoa garbitu zuen kohete bat Saturnoraino joan eta etorri bultzatzeko gai zen energiaz. Amaitzean, zintatik mezu guztiak ezabatu zituen Juan Ribaurena izan ezik. Grabagailutik kasete txikia kendu eta bere etxera eraman zuen entzuten jarraitzeko:

“Mezu grabatu ona. Beroa eta zuzena, izan behar den bezala. Neure buruari galdetzen nion zeintzuk izango ziren zure planak hurrengo ‘lau urtarotarako’. Berriro deituko dizut, printzesa. Ah! Bide batez, espaziontzia utzi nuen. Bat-batean txikia gelditu zitzaidan eta... Sukaldaritza begetarianoari buruz ikasteko agintzen dut”

12. gida

Noren edo zer egoeraren aurrean jartzen naiz “sutan” maiztasunez?

Zerbait denberdina egin dezaket emaitza desberdinak saiatzeko?

Laguntza afektibo sare bat al dut?

Bi esaldi hauetatik, zein erabiltzen dut maiztasun gehiagorekin adierazteko?:

a) “Bere estiloa asko gustatzen zait” (nire gustuak eta lehentasunak balidatzen ditut)

b) “Bere estiloa oso ona da” (baloreen iritzietan babesten naiz)

XIII. kapitulua

Gonbidatzailearen gonbidatzailea

Eguzkia oso goiz sartzen ari zen. Arratsaldeko sei eta erdietan; osteguna, jada, iluna eta hotza zen neguko aurrerapen bezala. Etxera sartzean, Juanek berogailua piztu zuen eta bitartean Jorge kuxkuxeatzen ari zen, liburutegian, kiroleko kideen arteko bere argazkiak, literatur klasiko apur bat, fikziozko hainbat eleberri, kudeaketa eta lidergoari buruzko bilduma osoak, Rodin-en “Pentsalaria”-aren miniatura batzuk, eta diskak. Diska konpaktu asko ordenaturik musika denda batean bezala: “latina”, “jazza”, “klasikoak”, “boleroak” “etnikoa” eta, bigarren apal oso batean ilara handi bat betetzen, “JR aukera” errotugailuz idatziriko izen hauek zituena: Beck, Coldplay, Green day, Duffy, Artic Monkeys, David Cohen, Imogen Heap,... Jorgek pentsatu zuen musikatik zer urrun zegoen. Bere malenkonian eroso sentitu zen eta laster oroitzapen astunik gabeko gela hark bera liluratzen utzi zuen.

–Aizu, pixka bat astindu beharko nauzu... Musika onari buruz guztiz atzeratuta nago. Ezaguna zaidan bakarra Cohen da... Duela bi urtetik honera, etxean ulertzen ez

ditudan gauzak bakarrik entzuten dira...

–Txo, baina zuk, zertarako erabiltzen duzu ordenagailua?

–Galdetu zuen Juanek harridura eta ironiaren arteko jarrera batean. Baina berehala konturatu zen Jorge lotsagorritzen ari zela.

–Zertaz ari zara? –Jorgek mehatxaturik ematen zuen. Bere hotmail kontua haustea guztiz ezinezkoa zelako ziurtasuna topatu zuen bere buruan eta bere aurpegiera lasaia berreskuratu zuen. Juanek, segundu horietan, Jorgeren keinu nahigabetu eta aldakor txikiak antzeman zituen eta pasatu izan zela pentsatu zuen... Bere adinean eta bere egoeran, *You Tuben* miatzeko astia izatea zail samar izango zuela, eta txantxarekin ezkokatua sentitu zen.

–Ezer ez, ezer ez. Barkatu. Nik uste dut zure seme-alabek ikusten entzuten dutela... Esan nahi dut, bideoak... Interneta... Nik oso ongi pasatzen dut ikusten musikari belaunaldi berriak zer dioen eta nola dioen... Begira, nire aukeraren azkena jarri DVD erreproduzitzaillean, arropa aldatu eta dei bat egiten dudan bitartean. *Imogen Heap*-ena da, ikusiko duzu nola gustatuko zaizun. Edo, gutxienez, errezago egingo zaizu ulertzea... bizkiak gutxienez. Agintzen dizut. Asko eskatzea ez bada, pikatzeko zerbait prestatuko duzu behar baino gehiago berandutzen banaiz? Gosez akabatzen nago. Hotzgailua eta armairuak ireki. Dena oso azkar aurkituko duzu. Zure etxean zaude.

Bat-batean, Jorge arina, gazteagoa eta baita pozik ere sentitu zen ia konturatu gabe. Erretilu bat aurkitu zuen;

bi Martini lehor prestatu zituen Juanek edari horretarako kopa ezin hobekak zituela ikusi zuenean; olibak, txirlak limoi eta piper hautsarekin bustiak zerbitzatu zituen; eta etxeko jabea bere amarekin hitz egiten ari zela entzun zuenean, kalkulatu zuen ogia tomatearekin igurtzitzeko eta hainbat hestebete mozteko ere astia izango zuela. Ikusi zuen musika bizkiek onartuko zuten ideiak handitu zuen bere ongizatea.

Bere logelatik, Juanek “sukalde operatiboa” entzuten zuen poztasun handiz. Ona izan zen berarentzat egoera animiko horretan Telmari deitzea, izan ere berari ere hobetu zitzaion bat-batean, negoziaketa zailtako egun tirabiratsua izan arren.

–Izeba Aurorarekin arratsalde ona pasa duzula jakiteak pozten nau, ama.

Lagun bat daukat etxean eta hitz egin behar dugu. Azokan erosketa batzuk niri egitea axola al zaizu?

–Inolaz ere, izan ere bihar bertan joatea pentsatzen nuen; beraz, esaidazu zer behar duzun. Bihar Paquita joango da? Niri ez zait batere kostatzen birpasatze bat ematea...

–Bai, etorriko da eta primeran pasako du zuri esker. Denak guztiz ditziratzen jarritzen du eta ez du jakingo zer egin.

–Ezetz, seme. Kristalak oso atzeratuta daudela eta, gainera, mahai tresneria guztia zikina duzu, zapi bat pasatu gabe gordetzen dituzu, ala?

–Eta talkoa ere ez dut jartzen halako toki... Bah! Utziko dugu eta apunta ezazu: arbendola erreka, Korintoko mahats pasak, sesamo haziak, arroza basatia, curry bizia,

kalabaza bat, ziazerbak txiki-txikiak eta bururatzen zaizun denetarik pixka bat garaikoa izanda.

–Gaizki sentitzen zara, seme? Bihotzerrea itzuli al zaizu?

–Eeeeez... Zurekin dena azaldu behar al da, ala? Erregebazkari tailandiarreko plater bat prestatu nahi dut. Beraz txintik esan gabe, larrosa gorri-gorri eta fresko sorta bat ere erosiezaidazu. Entsalada batean erabiliko ditut, jakin dezazun

–Larrosak entsaladan!? Adarra jotzen ari zara.

–Zuk erosiezakidazu eta gero kontatuko dizut. Muxu bat, ama. Nire laguna egongelan itxoiteaz aspertzen ari da. Zaindu. Dirua jarroi beltzean utziko dizut, ados?

–Esan bezala, laztana. Asteburuan buelta bat emango duzu etxetik?

–Segurazki. Bihar hitz egingo dugu.

Egongelara itzultzean, Juanek Jorge zapatarik gabe aurkitu zuen, mahai baxuaren izkinaren gainean oinak jarrita, abeslaria begi itxiekin entzuten eta gozotasun aurpegi harrigarri batekin. Ez dago hain gaizki, azken batez –pentsatu zuen bere laguna ikusten zuen egoerari buruz, bere kopa hartu eta bestearen kontra leunki topa egiten zuen bitartean, Jorge bere ameskizun garbitik berreskuratzeke.

Biak giro horretan hain gustora zeudenez, ez zuten inongo asmorik azaltzen gatazka sentimentalei buruz hitz egiteko. Dena den, Juanek parte hartu zuen zuzendarien bilerak, halako tentsiopean zuen oraindik eta horri buruz hitz egitea erabaki zuen beroketa moduan.

Langileen gerentea, kontuak ixten ari zen bere koinatarekin, Jose Torras-ekin, bera sekulan aurkeztuko ez zatekeen postu batean lotzen. Dena mafia eta liskar istorio baten dina zen, gona batere legezko batengatik. Bere egungo saltzaile ohiaren egoera konponduta; hori bai, goi-zuzendaritzan eskandalu giroa sortu ondoren, bilera Juanek lideratzen zuen proiektua gelditzeko aurreikuspenen inguruan biratu zen. Espaina oraindik ez zen hirugarren adinean ordenagailuen erabileran liderra eta enpresak produktua stand-by-en uzteko joera erakusten zuen. Horrek bere taldearentzat, Jorgerentzat behea jotze handia inplikatzeko zuen, eta berarentzat ere egoera zaila. Beraz, pocker aurpegi onenarekin, Juan merkatuaren alor horretan lehenengoak izateko abantailak arguditzen saiatu zen. Baina Golden Net ateratzeko ekimena bultzatu zuten berberak izaten jarraitzen zuten, mesfidantzak bilera hasieran bezain zurrinak mantentzen ziren. Diplomazia handia eta jateko gogorekin, gaia aldatu zuten; elkarrizketa ez aurrera ez atzerako egoera heldu zela jakinda, bazkalondoko ordura arte behintzat.

Jorgek arreta handiz jarraitzen zuen Juanen kontakizuna, nahiz eta geldiune bat behartu zuen besaulkitik altxatzean Martiniren bigarren buelta bat proposatzeko. Bere seme-alabak zaintzen ohituta, gerriko barrutik euskarri bat egokitu eta, bere sukaldean egongo balitz bezela, entsalada bat prestatu zuen hozkailuan topatu zuen guztiarekin. Sukaldeko gainaldearen azpiko pare bat ate ireki zituen zakar potearen bila. Marmolaren ertzaraino igo zuen letxu eta tomatearen zurtoinak irristatzeko eta,

barazki hondakinak ontziaren barruan erortzen ari ziren unean, Jorgeri ontziaren hondoan hainbat paper puskatu artean nabarmentzen zen txartel iradokitzaille batek arreta deitu zion. Zabor tartean berreskuratzeko bultzada ere sentitu zuen. Baina berehala bere diskrezioak irabazi eta bere bat-bateko jakinmina baztertzea erabaki zuen. Beraz, sukaldea berriro txukuna uztean, tragoak berriz bete eta bere gonbidatzailea, egongelan bisita bat bezala itxaroten ari zena, entzuten jarraitu zuen.

–Beno, azkenburuetan denak hasi ziren niregan arreta jartzen. Laburbilduz -jarraitu zuen Juanek-, hiru hilabeteko luzapena eskatu nuen eta, ordainean, profil zaileneko lehenengo ehun bezeroak hurrengo laurogeita hamar egun baino lehen lortzea agindu nuen. Erronka onartua izan zen.

–Zuzen egin duzula uste dut. Ez zenuen aukera handirik – ebaluatzen ari zen coach-a–. Baina niregatik ez sufritzeko esan nahi dizut. Ekonomia mailan behintzat ez dut arazorik. Coaching-a grina handiz betetzen dudan lan jarduera da. Ikaragarri gustatzen zait jendeari laguntzea bere helburuak lor ditzan. Zerbitzatzeko bokazioa daukat. Baita jarauntsitutako mahasti batzuk ere. Bestela, ezin izango nuen Luciak merezi dituen zainketekin izan, ezta seme-alabei hezkuntza ona eman ere. Baina, saltzaile taldearekin zer gertatuko zen? Eta zeurekin, lan arriskua duzu, proiektua pikutara badoa?

–Pozten nau zure egoera ekonomikoa ezagutzeak. Saltzaileek hasierako kontratua sei hilabetetarako dute. Badakit jarraitzeko itxaropena dutela baina, egoera

txarrean, sinatutakoaren legezko amaierara helduko gara. Dena den, eta nire lanpostua proiektu bakar baten menpe ez dagoen arren, ziurtatzen dizut zailtasun honek, goi agintarien aldetik bat-bateko fede falta honek, erronka jotzen dit. Hau aurrera eramango dudala uste dut, Juan Ribau deitzen naizen bezala. Horregatik ez dut lantaldearen motibazio maila jaitsi nahi. Horretarako zurekin kontaktzen jarritzen zut, ezta? Areago, gure jendeareztat behin-betiko kontratuak lortzea helburutzat hartu dudala ziurtatzen dizut.

Jorge bere laguna txalotzen hasi zen bene-benetan; nahiz eta bere emaztearen izena ahoskatzeak berriro piztu zuen bere bularrean lo kuluxka luzearen ondotik burutik kentzea lortu zuen larrimina. Platerak jasotzen hasi zen, bere bisitaren bukaera moduan edo. Juanek pentsatu zuen gisagabekoa izan zela, lan kontuetan luzatu izan zela; eta horregatik deseroso sentituarazi zuen errudun sentimendua izan zuen. Juanen aurpegian margoturiko nahigabea sumatzean; gonbidatuak, beste behin, norbait bere ongizatea lor zezan laguntzen jakin zuen:

–Kamarada... Uste dut ongi pasatzeko behar handiagoa nuela, arazo pertsonalei buruz hitz egiteko baino. Duela bost urte gutxienez ez nion neure buruari baimena ematen errurik gabe disfrutatzeko. Ez da sentimendu erabilgarria, edo benetan zintzoa. Sinestuidazu, eskarmentuz esaten dut. Hori bai, etxebizitzaz aldatu beharko duzu ez baduzu ni maiztasunez hartu nahi. Baina orain itzuli behar naiz. Bihar lan-taldean Jose Torrasen mailaz igoerak sor

dezakeen eragina leundu egin beharko dut, eta beste zenbait ideia biribildu nahi dut.

–Hau zure etxea dela esan dizut. Gordezulo bat izatea ez zaizu gaizki etorriko... Nahiz gonbidatzailearena egitea tokatu, gaur bezala, eh? “Kamarada”rena gustatu zait... Bihar arte Jorge, eta eskerrik asko zure entzumen asertiboarengatik–esanzuen Juanek autokritika erakusten. Edo jakintzat eman ez biek programaturik gabekoaren arrakastari egokitzeko gaitasuna zutela. Bazekiten asmoa eta emaitzen artean, batzutan, malgutasun maila altua behar zela onartzeko.

Bere gonbidatua agurtu ondoren, bainuontzia ur beroaz bete, erromero olio tanta batzuk erantsi eta Carla Sarrasquet-en oroitzapenean murgildu zen. Bere irribarrea, bere ile luze belztua, soineko hain estuak lerrotutako bere bihurtuneak eta bere Errauskineren oinarekin atsegin hartu zuen; bere gizon-grinarekin aginte makila eramanez, zein, oraingoan, bere buruarekin ziurtasunez, partitura eta orkestra bezala eskaintzen jakingo zuena.

13. gida

Sekretuak dauzkat? Zein dira? Astunak al zaizkit?

Eskuzabal sentitzen naiz maite dudan jendearekin?

Elkarrizketak bortxatzen ditut?

Egoera aldakorretara errez egokitzen naiz?

XIV. kapitulua

Ceciliaren egonezina

Etxera itzultzean, Jorgek seme-alabak berak imaginatzen zuen bezala aurkitu zituen: Nacho bere onetik aterata Play Station jolasten, eta Cecilia telefonotik zintzilika batek daki noiztik. Guztiz errealitytetik kanpo ematen zuen arren, Nachok bere aitari hitz egin zion agurtu gabe:

–Nola dago ama? Asteburu honetan etorri nahiko du ala guk joan beharko dugu?

–Ez naiz ikustera joan. Bihar galdetuko diot. Afaldu duzuela suposatzen dut, ezta?

–Eta nondik zatoz orduan?

–Ohar bat utzi dizuet hozkailuan, oraindik ez zarete hara hurbildu? Norekin ari da hizketan zure arreba?

–Norekin izango da, bada? Betiko astunarekin.

–Hara, ez nintzen berarekin hizketan ari! Gainera, Andres du izena, ez “astuna”! Jakin dezazun behingoz, ados?

–Moztu zuen Ceciliak dramatikotasun histerikoarekin Nachoren aurrean, bere aitarengana zuzendu baino lehen.

–Kaixo, aitaguay! –Jarraitu zuen tonua losintxara guztiz

biratuta, erantzuki tipikoak saihestuz berak egiten zuen telefonoaren erabilera luzearen aurka. Aitarengana hurbiltzean muxukatzeko, bat-batean urrundu zen, gehiegizko herra keinu batekin. – Puaaajjjjj!!!!!! A zer nolako mozkor usaina daramazun! Ziur zaude nagusiarekin bildu zarela?

–Bueno, gutxienez zuk bai, nire nota irakurri duzula ikusten dut. Zergatik ez duzue afaldu oraindik?

–Nik fruita eta esnea txokolatearekin katilukada bat bi madalenekin jan ditut. Zure semeak ez dakit. Nahiko hazita dago nahi duena presta dezala. Ezkonduta dago?

–Nor? –galdetu zuen Jorgek apur bat desanimatua, uste baitzuen ez zuela otordua prestatu beharko. Bere alabaren erantzuna itxaron gabe, proposamen bat aginte moduan egin zuen – Nacho, jolasteari utzi une batez eta eskatu pizza bat etxera. Gaur plateretatik askatuko gara eta txapeketa bat egingo dugu ‘ a trois’! Zer iruditzen zaizue?

–Ez dakit... –erantzun zuen Ceciliak beste behin minduta hitz hori frantsesez entzutean bere aitaren ahotan, eta bere hemezortzi urte ongi beteekin jada ezagutzen zituen adierazpen bukatugabe horren konotazio pikareskoak. Nacho, berriz, korrika joan zen telefonora Margarita bat gazta ratio bikoitzarekin eskatzeko, munduko aldez aurreko jarrera onenarekin.

–Ea tipoa ezkonduta dagoen galdetu dizut. Bere etxera joan zarete edo taberna batera? –Jarraitu zuen Cecilia, inkisidore moduan.

–Oh, barkatu alaba. Bere etxera joan gara; eta bakarrik bizi da dibortziatuta dagoelako. Eta badakizu tipo horrek Juan

Ribaud duela izena, ados? – gehitu zuen Jorgek alabak bere nebarekin erabilitako manerak imitatuz.– *Imogen Heap* ezagutarazi dit bideoz, ezagutzen al duzu? Asko gustatu zait.

–Eta nork ez du ezagutzen? Baina a zer... Ordu hauetan hitz egin behar zenuten lanari buruz, egun osoa bulegoan elkarrekin pasa ondoren?

–Apur bat agresiboa antzematen zaitut, alaba, ez dakit konturatzten zaren zure aitarekin ari zarela hitz egiten. Edozein modutan, moztu duzun telefono elkarrizketa amaitzera joan zaitez, eta beranduago hasiko dugu berriro gure elkarrizketa.OK?

Jorgek tonu lasai eta triko hori erabili eta OK nahiko zakar batez amaitzen zuenenan, mundu guztia ahoa itxi eta azkar asko zegokion tokian kokatzen zen. Sorgin puntua atera zaio – esan zion bere buruari Jorgek bere pentsamenduetan Ceciliari buruz– ; *pare bat hilabetetik honera jasanezina dago. Burua jokatuko nuke senak dibortzioarena esaten diola, baina nork sinestuaraziko dio bere ama dela eskatzen duena? Gainera, sinestezina da!* –la bere keinuaren kontzientzia hartu gabe, putz egin eta bere hatsa usaindu zuen eskuaren sakongunean eta bere burutapenekin jarraitu zuen–. *Ez da posible mozkor usaina izatea bi martinirengatik... Delako Andres horri datorkiona, tinko jartzen ez bada. Gaizki usaintzen duena da Luciak niri dibortzioa eskatzea. Bihar azaldu beharko dit nondik sortu zaion burutazio hori,*

edo bere buruan huts egiteak ari da izaten? Laztana gaixoa, ez du buruko huts egiterik behar, animo aldetik gaizki sentitzeko. Amoragarria bere gorputzaren alferrikakotasunean harrapaturik ikustea... Baina zer ari naiz esaten? Zer berekoia naizen! “amoragarria horrela ikustea, niretzat?”. Amoragarriagoa izan behar da berarentzat. Jainko maitea! Ez du borroka utzi nahi izango? Horretaz ez dut ezta pentsatu nahi, baina bere eskariak ez du nondik heldu. Zertarako nahi izango du dibortzioa?

Zorionez tinbreak jo zuen. Galtzera presta zaitezte!
– Oihukatu zuen Nachok pizza heltzen ari zela jakitean. Eta Jorgek pentsatzeari utz ziezaioke bere semearen aurka birtualki korrituko zuen Grand Prix-ean bere erreflexuak frogan jarriko zituen bitartean. Izan ere, hau banatzaileari atea ireki baino lehen, Cecilia “gabon” esaten ari zen ahal izan zuen tonurik garratzenarekin eta lo egitera joan zen. Pizzak erronkak baino askoz gutxiago iraundu zuen eta, ohi bezala, Jorgek irabazi, berdindu eta galdu egin zuen txapelketaren finala gutxirengatik.

Goizeko ordu bat eta erdiak ziren bere logelako atea itxi zuenean. Hortzak garbitu ondoren erantzi zen ia guztiz. Armairua irekitzean, atearen barrualdea guztiz estaltzen zuen ispiluaren aurrez aurre aurkitu zuen bere burua. Bere gorputza zehatz-mehatz behatu zuen. Bularrean ilearen hirukia urdintzen hasita zen. Nahiz eta giharrak ez ziren

lehen bezala marrazten bere sabelaldean, haragia tinko mantentzen zuen eta gerria oraindik iradokitzen zitzaion. Pubisaren basoaren azpian, sexo lasaituak bere gorpuzkera atletikoarekin harreman estetikoa gordetzen zuen. Zango luzeak izter gogorrekoak, belaunak ia markatuegiak, eta berna-hezurak apur bat kanpora kakotuak. Halako batean, begirada harriturik gelditu zitzaion bere galtzedinen elastikoen bat-bateko beltzaren aurrean. Xehetasun honengatik izan ezik, bere behaketa hotza eta objetiboa izan zen, zirujau batena bezalakoa. Orduan, bere oinak biluztu zituen ia presarekin; giltzapean kajoi batean gordetzen zuen Polaroid-a hartu, leierra ispiluko bere irudiaren gainean fokatu, kamara makurtu bere aurpegia argazkiaren laukian ez sartzeko, eta argazkia kliskatu zuen. Makinatik atera berriko paper lodia buruz behera ohe gainean kokatu zuen eta, bost minutu pasa ondoren, ordenagailu eramangarria ireki, argazkia eskaneatu eta bere PCan erantsi zuen artxiboa e-mailen bidez “Komodo” helbidera bidaltzeko. Gero, bere zaletasun berriaren parafernalia guztia gorde zuen, eta ilunpetan oheratu zen, edredoi arinaren azpian eta gauero, limurtasun eta erruz beteriko paisai bihurrien labirinto batean galtzen zuen pentsamendu mota baten dentsitatearen azpian.

14. gida

Zer arlotan dakit agintea dudala?

Nola gauzatzen dut?

Nori ematen diot/diet agintea?

Erantzunkizun zama handia eramaten dut?

Nolakoa da nire bizitza sexuala gaur egun, ona edo ez?

Zein dira nire benetako betegabeko beharrak?

XV. kapitulua

Ostirala: Bakoitzak bere zoroa bizi

Goizeko zortzietan Carla, dagoeneko, atikoan zegoen harrikada berri batekin, eta une oro hasaperen eginarazten zion estutasun batekin. Goizeko hamarrak iristeko irrikitan zegoen. Mirandari lehenago deitzen bazion, lo aurkituko zuela bazekien eta oso jenio biziz jarriko zen. Bere lagunaren joerarik onena behar zuen bera eusteko bere gogo aldarte eroan. Errusiar mendi bat ematen zuen.

Soft Iberian, atea oraindik itxita zeuden Jorgek segurtasun zaintzaileari sarrera eskatu zionean bere sinestamendua erakusten. Bere harridurarako, harreragilea jada erakusmahaiaren gainean agertzen zen, pistatxo koloreko jaka batekin; sekulako dekoratuaren artean nabarmentzeko laguntzen zuena.

–Egun on, Clara, nola zaude?

–Oso ongi, eskerrik asko Jorge jauna. Zer goiztiar izan zaren gaur,eh? Dena den, nik ezezik beste norbaitek aurrea hartu dizu.

–Beno, horrela gustatzen zait, eraikuntza goiz martxan jartzea – erantzun zuen coach-ak zerbait esateko. Bere ahotsak faltsu samar ematen zuen; izan ere, Juan heldu baino lehen ordu erdi bat gutxienez bakarrik ez egoteko ideiak benetako amorrazioa eragin zion. Jose izango da, kattagorri bat baino zoriontsuago, bere gauzak aldatzen sistemen kudeatzailetzara –jarraitu zuen pentsatzen bere bulegorantz pausuak azkartzen zituen bitartean.

Ordu berean, Telma merkatuan zehar paseatzen ari zen, markesa baten pare. Saltzaileei egiten zien eskari bakoitzak, bere erosketa lagunei arreta deitzen zien. Eta lekale postuan, non arroz basati kilo erdi bat lortu zuen, galdetu zuen zein lore saltzaileri erosi ahal izango zizkion pestizidarik gabeko larrosak, entsalada tailandiar bat prestatzeko.

Bitartean, Juan egongelako besaulkia mugitzen ari zen, orain formalegia iruditzen zitzaion giroaren simetria apurtzeko. Altzari guztiei hainbat bira eman ondoren, ohar pare bat apuntatu zituen Paquitarentzat eta oharra estreinatzeko maindire joko baten gainean utzi zuen. Begirada orokorra bota zuen eta, oraindik toilazko bainu soinekoan bilduta, gosari indartsua prestatu zuen: arraultzak hirugiharrekin, laranja zukua, yogur bat eta gero, kafe katiluan bustitzeko bizkotxo pareta. Lo egongo da ordu honetan? Goiz erdi aldean deituko diot, bestela norbaitekin gelditu daiteke gaur gauerako. –Pentsatu zuen, bularra ahurrekin kolpatzen zuen bitartean, Tarzan moduan, lan

egitera ateratzeko jantzi baino lehen.

Bederatziak baino pixka bat lehenago, Jorgek Luciaren laguntzaile terapeutikoari abisatu zion arratsaldean pasako zela. Pixka bat urduri, bere eskumuturreko erlojuari begiratu eta ordenagailua piztu zuen. Kafea egiteko prestakuntzak hasten ari zela, norbaitek bere bulegoko atea jo zuen. Argia ikustean agurtzera pasa nahiko zuen Jose Torras izango zela guztiz konbentziturik, Jorgek oihukatu zuen:

- Aurrera! Zuretzat ez dago ate itxirik, gizona!
- Horrela gustatzen zait –zioen emakumezko ahots ia xuxurlari batek. Hogeita bost bat urteko gazte batek, garaiera baxukoa eta proportzioan apur bat buru handia, begi ikaragarri handiak eta ile borgoña kizkurtuarekin, hanka meheak eta ongi torneatuak gona beltzaren artean eta takoi gehiegizko zapatak erakusten zituen.
- Loli, egun ona, ustekabean harrapatu nauzu! Lan taldeko beste pretsona bat espero nuen. – Esan zuen Jorgek kafeontzira berriro itzuliz –Kafe bat? – Eskeini zuen bere ohiko adeitasunez.
- Esnerik gabe, mesedez. Oraingoz – zioen gazteak.

Hitz horiek entzutean, zeuden testuingururako tonu arraro xamarrean, Jorgek katiluak utzi eta, poliki, biratu zen saltzailearen aurrez-aurrez jartzeko.

Orduan, eserita ikustean, bera ere eseri egin zen

idazmahaiaren beste aldean, aurpegi serioarekin baina begiak ditziratsuak jakinminez, eta betazalak pixka bat uzkurturik, ikusmenaren fokatzea bortxatu edo zerbait mesfidati arakatuko balu bezala.

–Ez dago gaizki –jarraitu zuen Betty Boop harrigarriak gai aldatuko balu bezala.

–Zer gauza? –Galdetu zuen coach-ak nahasturik eta zalantza eskubidean babestuz.

–Non uste duzu jarri nuela?

–Zer gauza? –Galdetu zuen berriro Jorgek ahotsa pixka bat jaitsiz eta irribarre tuntuna entsaiatuz. Erantzun gabe, zeramatzan karpetak gona gainean jarri, bere foulard-aren mutur bat atzera bota, eta mugimendu haren ondoren, bere kamisetaren ispilu eskotea agerian utzi zuen, desitxuraturik, beherantz bortxatuta izan baitzen, eta jantzitik ia gailentzen ez zen bular baten biluztasunez geldituta. Ikusten ari zenaren aurrean guztiz harriturik, Jorgek bridak bere sentipenei eman zizkien.

–Begiratu bai baina ez da ukitzen. Muxu urtsua hemen ipini dut –esan zuen Lolik, erakuslearen mutur arina eta iraunkorra bere bularraren gainean ipiniz. Gero, zapi luzea bere lekuan berriro jarriz, zutitu, eta hitz gehiagorik esan gabe, aterantz ibiltzen hasi zen irmoki.

–Ez nauzu horrela utziko, orain? – Erregutu zuen Jorgek ia marrantak jota eta ahots hari mehe batez eztarrian gelditurik.

–Bai. –Erantzun zuen gazteak bira eman gabe. –Horrela atsegin zaitut. Bidali zenidan argazkian baino gehiago.

Baina iristean esan nuen bezala... Ez dago gaizki.

Besterik gebe, Lolik atez itxi uzten bere atzean eta Jorgeren bulegoa utzi zuen.

Juanek kontrataturiko aholkulariaren bulegoan argia pizturik ikusi zuen, baina distraituarena egin eta aurrera jarraitu zuen. Bere ideak antolatu nahi zituen, zuzendariei agindu baino lehen Golden Net & Up-entzat ehun bezero lortzeko estrategiak pentsatu. Ordu pare bat bakarrik egon nahi zuen eta erdian atsedena txiki bat eman Carla Sarrasquet-i deitzeko etenik gabe. Bulegoko atea irekitzean, bere izena entzun zuen korridoretik deitzen zion Loliren ahotsean.

Saltzaileari garrantzi handirik eman gabe, bere eskariaren benetakotasunaren aldetik; Juanek baimena eman zion bere etxera joateko, “emakumezko ezinegonarengatik”. Ostirala, lan gutxi... zergatik ez? –Pentsatu zuen Juanek bere bulegoan kokatzen ari zen bitartean, eta inork moztuko ez zuela ziurtatzeko, telefonoa hartu, Clarari ohar pare bat eman zion eta, hizketaldietarako aukera ematen ez zuen dei labur batean, Jorgeri iradoki zion lan taldeko bazkari bat antola zezan Jose bere departamendutik agurtzeko. Bi gestio labur horien ostean, guztietatik isolatu eta bere ideietan kontzentratu zen.

15. gida

Anonimatoa edo orokortasunak erabiltzen ditut ausardiarekin jolastu edo iritzia emateko?

Xalotasuna edo maltzakeriaren joera al dut?

Etika eta moral artean bereizten dut?

Aginduak eta eskariak argi eta garbi transmititzen ditut?

XVI. kapitulua

Mugurdiak, ahabiak eta beldur zahar tontor bat

Ostiral ekaitso horretako goizeko hamarretan puntuan, telefonoak jo zuen Carlaren atikoan. Deiak behin eta berriz jotzen zuen bitartean, bizpairu “kaixo” praktikatu zituen tonu desberdinetan eta gero kasu egin zuen, lasaiki, ahots faltsu samarrarekin.

–Jainkoarengatik, alaba maitea, ez nazazu moztu! – Eskari lazgarri bat entzun zen Formenteratik. Baina Carlak laugarren aldiz moztu zion bere amari. Ordua kontsultatu eta, azkenean, baimena eman zion bere buruari Mirandari deitzeko. Bere lagunarekin ordu erdi batean hitz egin, berrikuntza erromantikoak ospatu eta aurreko arratsaldean bere erantzungailuan aurkitutako hitzak errepikatu ondoren, Mirandak bira bat eman zion elkarrizketari:

–Eta nola jarraitzen dute gauzek zure amarekin?

–Ez dakit. Ez dut ni gehiago gogaitzerik nahi. Ez diot hitz egingo. Goizean zehar lau aldiz moztu diot jada.

–Seriozki hitz egin beharko zenuke berarekin, Carla...

–Oraindik ezin dut, hau oso gogorra izan da, Miranda...
Oraingo honetan pasatu da...

Esaldia amaitu aurretik, hondoko tonu bat entzun zen beste dei bat iragarri. Carlak hotz eta motz agurtu zuen bere laguna eta kasu egin zuen zeukan ahots bakarrarekin.

–Carla Sarrasquet? –Juanen ahots nahastezinak burrunbatu zuen bere belarrarian.

–Bai, nork hitz egiten du? –Itxurak egin zituen arduragabeki.

–Zenbat astronauta ohi ezagutzen duzu? –Erantzun zuen Juanek irri isekari artean.

–Ay, kaixo Juan! Sentitzen dut... Sentitzen dut, ez dakit nondik atera zitzaidan astronautarena, ez mindu izana espero dut, izan ere batzutan baldar samarra naiz eta...

–Eta iaioa tiroekin –jarraitu zuen esaldia Juanek–. Baina mesedez, ez desenkusatu. Asko gustatu zitzaidan. Gure topaketa osoak literalki liluraturik utzi ninduen, nahiz eta nik ere barkamena eskatu nahi nizun...

–Zuk niri? Zergatik?

–Ez dakit... Espontaneo ez izateagatik, edo gehiegi izateagatik... Edo gonbidatzaile hobea ez izateagatik. Nik uste dut nire nerabazarotik inork ez nauela hain dudatsu sentituarazi...

–Ni ere urduri eta txoriburu samar egon nintzen, gainera...

–Gainera, gaur gauean berriro etorri behar duzu afaltzera. Zure gustoko menua eskaintzen utz nazazu –Juanek ez zuen Carlaren isiltasuna jasaten eta ahotsa baietza ziurtatzen zioten argudioetan urtzen ari zitzean, neskaren

aldetik erantzun bat eskatzeko animatu zen arte – Zer esango didazu?

–Ba... ni postrea eramateaz arduratuko naizela; gauza gozoak gustatzen bazaizkizu, diot; esan nahi dut bonboiak edo...–Carla deseroso sentitzen hasi zen, esaten ari zen hitz bakoitzak esanahi bikoitza izan zezakeelako pentsatuz. Orduan, Juanek, bere printzesa sartzen ari zen nahastea antzematen ari zela, ezpainak kosk egiten zituen samurtasun eta bihurrikeria nahasketa bat eutsiz; izan ere, borrokan ari zen gauzak errazteko desioa eta orindik gehiago urduritzeko gogoa artean. Azkenean, bere dama laguntzea erabaki zuen, gelditu ezinik toteltzen ari zena, eta naturaltasun osoz galdetu zuen:

–Ez duzu frutaren bat nahiago, kasualitatez? Kutxa bat oparitu didate... basoko fruituekin eta, gogoko badituzu, postrearen gaiarekin lasaitu gaitzke.

–Eta oparitu zizuten kutzak ahabiak al dakartza? Ikaragarri gustatzen zaizkit ahabiak! Bai, zoragarria iruditzen zait.

Agurtzean, Juani nerbioak dantzan jarri zitzaizkion. Bere bitzta osoan bananak eta melokotoiak besterik ez zituela jan pentsatu zuen... Eta bere amak ez zeukan mugikorrik! Orduan, Paquitari deitu eta erregutu zion garbiketa une batez utzi Boqueríara korrika joateko ahabiak erostera “eta, eta, eta aurkitutako basoko fuitu guztiak”.

–Esnegain fresko piska bat edukitzea ongi etorriko litzazuke. Erosi egingo dizut, eta ez kezkatu ezerregatik. –

Esan zuen Paquitak, diskrezio askorekin , lekutik kanpoko hitzik esan gabe.

Gertaeren une horretan, Mirandak ez zuen jakinmina gehiago eusten eta Carlari deitu zion, elkarrizketa guztiz erabakigarria mozteko arriskua izanda ere.

–Eta?!!! Bera al zen? – Galdetu zuen ezinegonez.

–Bai, eta orain guztiz izututa nago.

–Zer diozu?! Honek daukan itxura onarekin! Zer izena du galaiak?

–Juan. Horregatik ematen dit beldurra...Itxura ona duelako... Hodeietan sentitzen naizelako bere ahotsa entzute hutsez.

–Eta piska bat hegan egiteak zer du txarra, laztana? Zein da arazoa orain?

–Eta erortzen banaiz altueretatik eta jausgailurik gabe? Eta dena hondatzen badut beste behin? Eta etengabe “aitatxo” bilatzeko konpultsio honek beste behin gizon batekin topatzea galarazten badit?

–Azkenean! Azkenean zure historiaren zerbait erabilgarria kontziente egin duzu! Honek itxura itzela dauka! Inoiz ez dizut hain kontu zentzuzkoa entzun. Zure gorputzak esaten dizun hari bakarrik jarraitu! Zuretzako moduko mutil laguna aurkitu duzula sumatzen dut, neska, animoa! “Begizulo aurkako” siesta eder bat batean atsedena hartu eta eder jarri beldurrik gabe! Dena ondo aterako dela ikusiko duzu. Aurreko egunean prestatu zenizkidan

belarritakoak behar al dituzu?

-Ez. Ez dakit. Agian bai. Gero deituko dizut. Musu bat.

16. gida

Arrazoi edo egoera desberdinengatik aurkako emozioak bizi ditudanean:

Ñabartu dezaket, egoera animiko batetik bestera erraz aldatu; edo bata bestearen gainean gainjartzeko joera daukat?

Hurrengo emozioetatik zeinekin egiten zait errazago kontaktatzea eta adieraztea?:

**BELDURRA – MAITASUNA – TRISTURA –
HASERREA – POZA**

Zeinekin egiten zait zailago kontaktatzea edo adieraztea?

XVII. kapitulua

Ura bezain garbia

Gauerako hitzordua lotu ondoren, Juani pare bat kafe kostatu zitzaion eta gutxienez dibagazio eta fantasia pertsonaleko hamabost minutu gehiago, zehaztapen txikienak planifikatzeko joerarekin: aukeratuko zuen musika, ardoa, argiaren indarra eta baita jantziko zuen arropa ere. Bat-batean, kontzientziaren lapsus batek ahots gora hitz eginarazi zion: Berriro astronautaren kontu horrekin! –Esaldi horren ondoren, Juanek pare bat jauzi txiki eman zuen gorputz motel osoarekin txotxongilo artikulatu bat balitz bezala, beharbada malgutasuna indartzeko eta gogoratzeko ez zela hainbeste larritu behar dena kontrolatu nahi izateagatik. Edo agian noizbait asmatu zuen pertsonaia hura gaineratik kentzeko. Espontaneitate tarte bat agindu zion bere buruari eta, orduantxe, lanean kontzentratu ahal izan zuen eta *Golden Net & Up* martxan jartzeko ideiak sortu.

Orduaren ideiarik izan gabe, Juanek telefono dei bat ahal bezain azkar hartu zuen, iratzargailua itzaltzen arituko balitz bezala:

–Bai, esan...

–Mahaia erreserbatua daukagu eta jateko gogo handia, zer moduz taldearekin elkartzten bazara?

–Zuk esan bezala, coach jauna! Orintxe bertan helduko zaituztet.

Zortzi mahaikiderentzat prestatuak mahai batean, Jose Torres eta Juan muturretan kokatu ziren eta, Jorgeren ezusteko, ematen zuen inor ez zela larritzen albo batean bete gabe gelditzen zen tokiarengatik. Loli ez zela etorriko jende guztiak bazekiela ematen zuen, berak izan ezik. Berarengatik galdetzea desagokoa iruditzen zitzaion arrazoi bikoitzarengatik: batetik bere izena ahoskatze hutsarekin gorritu eta bere burua barregarri uzteko beldurra zeukan. Bestetik, taldean informatuak ez zegoen bakarrik izatearengatik erresumin sentitzen zen.

Juanen hitz adizkidetsu batzuen ostean, oratoria naturaltasunez menderatzen baitzuen, taldeak topa egin zuen Joseren birkokapenarengatik enpresan eta, guztiak txantxa beroetan animatu zirenean gutuzien artean, Juanek Jorgeren begirada antzeman zuen, komunikazio diskretuaren eskaria bidaliko balio bezala. Aipatua sentitzean, Jorgek burua Juanenganantz hurbildu zuen entzuteko:

–Hemen izan ezik edozein tokitan zaudela ikusten dut, Luciarengatik al da?

–Bai, arratsaldean joango naiz ikustera. Larri nago.

–Ulertzen dut. Zerbait gehiago al dago?

–Lolirekin zer gertatzen da? Zerbait galdu dudala ematen du...

–Zure bulegotik irtetzen ikusi dut. Pentsatu dut lehendabizi zuri eskatu dizula baimena... Ondoezik sentitzen zela esan dit eta, egia esan, ez dut agurtzeko bazkariaz pentsatu beranduago arte... Suposatzen dut beraiekin hitz egin duela, garbi baitago inork ez duela aipatu ere egin.

–Ez, niri ez dit ezer esan, baina zuk aipatzean, arraro samar egon da... Berez, gobernua hirugarren adinerako ateratzen ari den programa informatikoei buruz txosten batzuk niri ekartzera etorri da eta ... –Zorionez, norbaitek beste topa bat proposatu zuen eta Jorgek inork eskatu ez zizkion azalpenak emateari utzi ahal izan zuen.

Bazkaria gehiegi luzatu zen, eta horregatik Juanek erabaki zuen langileek astea ohikoa baino ordubete lehenago eman zezaketela amaitutzat. Nagusiaren eskuzabaltasunarengatik nerabeak bezala, saltzaile taldea banandu zen eta, jatetxearen mahai nahasapilatuan Jorge eta Juan gelditu ziren kontua eta bientzako beste kafe bana itxaroten.

–Zure bulegotik ez baduzu ezer behar, has zaitez egoitzarantz ibiltzen. Neuk itzaliko ditut argiak eta zure ordenagailua. Bazkaritzarrak zure kontra joko du kaloria guzti horiek ez badituzu jaisten Lucia ikusi baino lehen. Zoaz, ipurdia altxa eta martxan jarri. Eta deituidazu faltarik gabe zure etxera heldu bezain pronto, ados?

–Nire PC-ko sistema itzali dut jada, argiei begi kolpe bat eman. Beharbada zurekin hitz egiteko beharra izango dut... Ez dakit ea gaur bertan, baina... Zer egingo duzu igandean?

–Ez daukat ideiarik. Baina deitu nahi duzunean. Ez banago, mezu bat utz iezadazu eta ahal bezain pronto erantzungo dizut... Egon zaitez lasai, zure emaztea arreta handiz entzun , ez joan alde zuretik pentsatutako ideiekin, egidazu mesede hori, nahi?

–Aginduta. Bide batez... Ni bazkarian zehar apur bat besteratu egongo nintzen, baina ez hainbeste... Zure egoera animikoa ez zait ihes egiten. Pozez zorutzen ikusten zaizu eta ... ez esan Jose eta bere lorpenekin empatiatik bakarrik denik...

Zer duzu esku artean, otsoa?

– Zu bai zarela usaimen oneko otsoa... Ba, esango dizudan bakarra da gaur Txanogorritxo afaltzera etorriko dela, eta ez dakit nork jango duen nor, bertsio honetan.

–Ba... Beste sexuari buruzko nire azken irudipenengatik hitz egin behar badut... Amonatxo ez mozarrotzeko behizat esango dizut. Horrela bakarrik izango duzu aukera bat milioi baten artean aitaren batean irentsita ez izateko.

Animoak pixka bat berdinduagoekin, biak agurtu ziren esku-zarta zakarrekin gizonen arteko kidetasuna eta konplizitatearen seinale.

Juanek bulego hutsak kontrolatu zituen eta, berera heltzean erlojuari begiratu zion marketing proiektuarekin

une bat gehiago konektatzeko desioak sentituz. Une hori eta Carla Sarrasquet bere etxera heltzeko momentu arteko distantzia murriztu nahi zuen, nahiz eta horrek azken uneko presak izatea suposatu. Jarrera berria berarentzat, lana ere, egia esanda, sakonki interesatzen zitzaion arren.

Seiak inguruan, bere ideiak biribil estu batean sartzen ari zirela konturatu zen, behin eta berriz kontu beraren inguruan birak ematen ari zen. Hortaz, bere berokia hartu, idazmahaia txukun utzi eta bulegoko atea itxi zuen bere atzean. Hall nagusira heltzean, Clararen aurrean gelditu zen, emakumeak inoiz ezin izango zuela bere lanaldia aldatu pentsatuz. Minutu batzuetan konpainia egingo ziola erabaki zuen etxera joateko azkena izan ez zedin.

–Ez esan ostiral baten ordu honetan deitzen duen jendea dagoela. Zer egiten duzu zure berokia jantzi gabe oraindik?

–Oh! Ez kezkatu, dena prest daukat. Seiak jo bezain pronto, nire gauzak jaso besterik ez daukat. Bost minututxo bakarrik falta dira...

–Clara, esaidazu... Hirugarren adinean ordenagailuen erabilera sartzeko kanpaina bat zuzendu beharko bazenu... Zer egingo zenuke?

–Ba... Edozein neurri hartu aurretik, etxean hasiko nintzateke. Ordenagailu eramangarri bat eramango nuke pisura eta, gaiari hotsanditasun gehiago eman gabe, nire amari hainbat gauza egiteko eskatuko nioke... Ez dakit, badakizu... “Ay, ama, hemen sakatu dezakezu, eta oharrak jarraitu niri azkazaletako esmaltea lehortu bitartean...?”

Zerbait asmatuko nuke nire amak makinarekin kontaktua hartzeko, niregatik zerbait egiten ari dela sentituz eta ez berari oraindik fikzioa iruditzen zaion mundu batean sartzeagatik... Badakizu... Bere erreakzioen arabera... Gero esperientzia besteengan nola zabaldu pentsatuko nuke... Ez dakit ... Goroldioak haztean egiten duen bezala...

–Goroldioak? Eta nola egiten du goroldioak haztean?

–Leiho hartan dagoen lorontzia ez duzu inoiz ikusi?

–Zer leiho?

–Ay, Juan Jauna, arreta gabea zara gero! Banaketa pasabidean barruko leihotzar handi bat dago, eta eguzkiak inoiz ematen ez duenez, mota honetako landaretxoak jarri dituzte artifizialaz ez jotzeko, eta niri oso ondo iruditzen zait... Ongi, baina duela dendora batez ikusi izan bazenitu, konturatuko zinatekeen ia ez zutela lorontziaren gainaldea estaltzen. Gero, bere hormei itsatsita, bere bizar berdeak aurreratzen hasi ziren leihoaren lauguneraino... Eta gaur egun, ataria ere estaltzen dute eta horman zehar zabaltzen ari dira ia beheko solairuraino... Fijatu zaituzte! Oso ixilik baina, begira ezazu goroldioak egin duen hazkuntza sinestezina... Beno, desenkusatzan banauzu, ni banoa astelehena arte. Seiak eta hiru minutu dira. Asteburu ona izan dezazula, Juan jauna.

– Berdin, Clara –Esaten asmatu zuen Juanek telefonista txikia joaten ikusten zuen bitartean ereikuntzaren hall ikaragarrian zehar. –Proiektua ongi baldin badoa, idazkari bezala nahi dut... Zer dela eta ez dut inoiz berarekin hitz egin? *Sinestezina da... Ura bezain garbi egon da... Ostras, Clara du izena!*

17. gida

Nire lana gustatzen zait?

Nire inguruko pertsonak ezagutzen ondo pasatzen dut

Zer egoeratan sentitzen naiz “irrazionala”?

Bene-benetakoa naiz edo oldartsua?

XVIII. kapitulua

Bizi den emakumea

Jorge presarik gabe zebilen, hotza sentitu gabe, hiriaren gainean Daliren zero bat margotu zuen ilunabarraren kolorea ere antzeman gabe. Zapuztu eta grinatsu artean, eta era berean arinduta Lolirekin topatu ez izateagatik, goizean izandako bihotzekoak emateko moduko topaketaren ondoren; bere pentsamenduak husten saiatzen ari zen Luciarekin konektatzeko Juanek iradoki zion bezala, alde zurretik pentsaturiko ideiarik gabe. Baina, oraindik ez zuen asmo on horri bi kale jarrai baino gehiago eustea lortzen. Begirada altxatzen zuen bakoitzean, ziber taberna bat topatzen zuen eta berriro urduritzen zen Lolirekin zeukan aitortu ezinezko abentura horrek sortzen zion oroitzapen lotsagabe, ausart, lizun eta obsesioraino kitzigarriarekin. *Kitzigarria Loli edo komodo al da?* –Zalantza izan zuen, Internet zerbitzua zuen beste taberna baten aurrean bere martxa gelditzen zuen bitartean. –*Zer motel, zer baldar, zer ahul egon naizen... Ezta bere telefonoa ere, ez dakit. Hau ezin da... Baina zer neska maltzurra! Nola harrapatu nauen anonimatoan babesturiko jolaste*

kontuarekin! –Bere buruari gaitzespenak egiteari gelditu gabe, tabernaren mahai batean eseri, kafe bat eskatu, eta baite sarean nabegatzeko bonu bat ere. Segundu gutxitan, alokailuzko ordenagailuaren pantailak bere korreo elektronikoaren orria erakusten zuen. Beroaldia eta takikardia lehertu zitzaizkion gorputz osoan zehar mezu berri baten seinalea azaldu zenean. Oraingo honetan, Komodok Jorgek bere azkeneko mailean idatziriko esaldi bera erabili izan zuen: “Gehiago nahi dut, ausartzen bazara”. Hori bai, hegaldi altuko musu bat beharrean, gonbidapena baino agindua ematen zuen zita bat topatu zuen. Loliren esaldiak horrela jarraitzen zuen:

“Bihar, larunbata, 13tan, Pals-eko zure etxean”.

Jorgek bere buruari galdetu zion, beldurrez jota, neskak nola jakin zezakeen bere etxearena Costa Bravan. Halako larrialdia sartu zitzaionez, ezin zuen ia arnasa hartu. Indarrez bota zuen airea bere emozioen kontrola berreskuratzeko, eta horrela argiagotzeko pentsatu ahal izateko.

Hau arriskutsu eta konprometituegi bihurtzen ari da, arrazoitu Jorge, arrazoitu eta azkar –esan zion bere buruari. Segundu batzuk beranduago, gogoratu zuen, arintze handiz, behin berak lan-taldearen bazkari batean bere udako etxearen deskribapen zehatz-zehatza eman zuela. –*Jainko maitea! Itsu bat ere gai izango zen heltzeko egun hartako nire deskribapenarekin...Zer burugabe izan naizen!*

Kontua ordaindu ondoren, eta kontaktetan bere ohiko gardentasunak Loliren jokaera arinduko balu bezala, bere bidea jarraitu zuen, hurrengo eguerdirako aitzakiak entsaiatuz, bere seme-alabei larunbat hartan jatetxe mexikarrean bazkaltzeko agindu baitzien.

Egoitzara heltzeko bi kale falta ziren eta Jorge guztiz nahastuta zegoen. Une oro, bere buruari aurpegiratzen zion desioen neurriarengatik, zitaltzat hartuz, baina ezin zituen bere burutik urrundu. Zainketa luzeko etxera heldu baino lehen, guztiz ahituta sentitu zen. Bere emozioek kokatzen zuten itxurazko kontraesana izanda ere, Jorgek Lucía maite zuen eta faltan botatzen zuen sakonki eta mingarri bere bihotz barru-barruan. Azken sentimendu horretan arreta jartzean, bere berezko indar apur bat berreskuratu zuen; eta, azkenenean, luxuzko egoitzara sartu ahal izan zuen emaztearekin zintzilik zeukan elkarrizketa kezkarriari aurre egiteko prest.

Lucía duela urte pare bat bizi zen tokiak ez zuen gaixoentzako toki bat ematen. Etxe ederra zen, argitsua, Laura Hashley estilo onenean dekoratua, beroa eta alaia lore desberdinak egoteagatik, bai naturalak –beti baitzeuden jarroi zoragarrietan- bai errezel eta kuxinetako estanpatuan. Irekiera guztiak estandarrak baino askoz zabalagoak ziren, gurpil aulkien zirkulazioa errazteko asmoz, eta horrek berak eskuzabaltasun eta gardentasun kutsu suspergarria ematen zion.

Jorge lasai zegoen inguru horretan eta dagoeneko ez zeukan pentsamendu gatazkatsurik. Bakar-bakarrik hor zegoen, hain zoriontsu izan zen emakumearengandik hurbil. Igogailua hartu eta bigarren solairura igo zen, non Lucía gela bat betetzen zuen lorategiei ematen zuen balkoi terraza batekin. Giroa nahiko handia zen egoteko gune desberdinak banatu ahal izateko, lo egitekoa barne. Atea erdi irekita zegoen eta Jorgek bere emaztea bizkarrez ikusi zuen, margotzeko asto baten aurrean, laguntzaile baten oharrak jarraituz; zeinek gauzak erraztu gabe, ezta bere orde ezinez ere, Lucía oso ongi lorturiko orbanezko paisaia bat sortzen laguntzen zion. Kolore arinek eta inguru diluitutako forma iradokitzaileek arimaren adierazpena ematen zuten. Bere emaztearen arima ederrarena. Jorgek begiak malkoz bete zizkion emozio bortitza sentitu zuen. Lucía miresten zuen. Eta orain, sormen estetiko lan hain ederraren aurrean, tuntun sentitzen zen, eta baita lotsagarri ere Lucía dena uzteko desiatzen ari zela pentsatu izateagatik.

–Laztana, badakit hor zaudela. Usaindu zaitzaketa jarri duzun lurrin berri horren azpitik.

Jorgek far egin, besterik ezin izan zuen egin Lucía-ren zentzumen zorrotasunarengatik. Hain bera zen, teknologiak itzultzen zuen tonu hutsalduta izanda ere... Bere endekapenezko gaixotasunarengatik, Lucía Big Bang-eko zientzilari ospetsuak zuen gorputz egoeraren oso antzekoa zegoen –agian ez hain aurreratua–. Hala ere,

bere usaimenak gero eta zorrotzago ematen zuen.

–Gustatzen zaizu? Lehen aldiz erabili dut zu ikustera etortzeko.

–Ondo egina. Estrenaldien garaia da. Nahiz eta badakizun meloia ez zaidala gustatzen zure azalarentzat, eta ehuneko handia dauka... baina tira, ez du disimulatzea lortzen osatzen duten ez zitrikoak, ez sandaloa... Zer iruditzen zaizu nire koadroa?

–Aspaldian ikusi dudan onenatarikoa. Hunkitu egin nau. Ona da, zentzumenetatik sartzen da.

–Multzo bat izango dudanean, erakusketa bat antolatuko dut eta arte kritikarie eskatuko diet zure hitzak errepikatzeko gai izan daitezen. Liluragarria zara. Zure lurrin berriarengatik izan ezik.

–Biak bakarrik uzteko garaia dela uste dut. Pozten nau zu, Jorge, ikusteak; zure emazteak lan bikain egin du.

–Laguntzaile gazteak Lucíari musu bat eman zion kopetan eta Jorgeren eskua estutu zuen benetako estimuarekin. Irten aurretik, senar-emazteei ea kafetegitik zerbait eskatu nahi zuten galdetu zien, eta diskrezio handiz, atea itxi zuen bere atzean.

–Lucía, nire maitea... –Elkarrizketa ireki nahi izan zuen Jorgek, baina Lucíak esaldia bukatzea eragotzi zion.

–Konturatu al zara haritzaren hostoak hartzen ari diren tonuaz? Udazken hau ahaztezina izango da. Inspiratu egin nau. Margotzen ikasi dut eta orain proiektu berriak dauzkat... Nola daude neska-mutilak?

–Nacho, ongi. Beti bezala, sentibera baina lasai. Cecilia

ez dakit, urduri dago, haserre, aztoratua... Ikusten denez, ez du lurrinez ulertzen, bera baita jarrita dudana oparitu zidana; baina argi eta garbi dago usaimen ona daukala, zuk bezala. Ez daki zertaz den baina zerbait gertatzen ari dela badaki. Intuitiboa da. Baina biak osasunez ongi daude eta ez dute ikasketetan maila jaitsi. Jakin nahi duten ea bihar etxera etorriko zaren.

–Etxera? Zehaztasunez hitz egin dezagun. Hau da nire etxea. Eta uste dut lekualdatzea ez zaidala eroso egiten onartzeko garaia dela.

–OK. Zehaztasunez hitz egin dezagun. Hau ez da zure jabetza. Gure etxea zure etxea da eta guztiona, nahiz eta lekualdatzeak nekatzen bazaituen, etorri egingo gara denbora gehiago zurekin egotera behin behineko etxe honetan.

–Behin-behinekoa norentzat? Begira, Jorge, nire aitak hainbeste diru jarri duenez fundazioan, gela zoragarri hau, egoitzaren apartamendu hau nire jabetza da oraingoan. Eta ez da nire irabazpidezko ondasuna. Ulertzen?

–Ni hiltzen ari zara. Nola hitz egin diezadakezu halako hostasunez? Ni maitatzeari utzi diozu...

–Ez dramatizatu, mesedez. Sentitzen dut hain zakar izatea, baina bai. Garbi hitz egin behar dugu. Ni ez naiz zu hiltzen ari. Gaisotasun honek generaman bizitzari bukaera eman dio. Eta onartzeko ordua da. Ez daukagu senar-emazte bizitza, ez gara familian elkar-bizi, eta ez dugu berriro egingo. Eta zuk badakizu. Gure burua engainatzen egon gara azken hiru urteetan behintzat, eta horrekin bizitzeari

utzi besterik ez dugu egin. Eta ez esan zu maitatzeari utzi diodala. Maite zaitut.

–Nola ulertzen da hori? Nola nahi duzu nik ulertzea maite nauzula eta era berean dibortzioa eskatzen didazula?

–Dibortzioa eskatzen dizut maite zaitudalako. Bizitza maite dudalako. Eta zure bizitza, Nachorena, Ceciliarena, eta nirea ere maite ditut. Egokitzen zaidanarekin eta egokitzen zaigunarekin. Geldiarazten aritu gara, kartzelaratzen dagoeneko ez denaren tristuran. Bizitza ukatzen egon gara. Orain den bizitza. Eta hori guztietatik ez dut gehiago nahi.

–Ez nazazu utzi Lucia...

–Ez zaitut uzten. Bizitzak gure jokoaren arauak aldatu zituen eta gu bizitzeari uzten ari gara bere joko zoragarriaren bi galtzaile gaizto izango bagina bezala...Galdu dugu? Edo aldatu gara? Agian bi gauzak, Jorge, baina nahikoa da malenkoniarekin. Hori berekoikeria hutsa da. Maitasun gehiegi dago toki guztietatik eta hainbeste galtzen ari gara alferrik...

–Ez zaitut ulertzen...

–Ez duzu ulertu nahi, eta ez ulertzearekin alde handia dago. Ez duzu ulertzen nire duintasuna eskaini behar dizudala? Nire barruan bizi den emakumearen duintasuna eta emakume horri ez diozu balio senartzat dagoeneko... Zu aske uzteko duintasuna zuri eskatzeko ni maitatzeari ez uzteko maitasun beste modu batetik, ukatu egin baitzait nire berezko modua...

Lucía, azkenean, bere buruaren errukia ez zen negar

batean hasi zen, eta Jorgek inoiz baino gehiago maite eta miresten zuela sentitu zuen. Bere mina hutsala zen entzun berriaren sakontasunaren aldean. Eta dagoeneko pentsatu gabe, besarkada sinboliko batean lotzeko bakarrik asmatu zuen, lurrian belaunikaturik, bere buruarekin Lucíaren gonan, bere aurpegia esku batez laztanduz, eta bestearekin bere emaztearena hartuz. Denbora asko pasa zuten hitzik gabeko maitasun lotura horretan. Norbait gelaren atea kolpatzen ari zen eta Jorge zutitu zen. Lasaitasunez elkarri begiratu zioten begietara benetako gauzak esanez hitz egin gabe. Jorgek gizonezkoak gai diren leuntasunarekin musukatu zuen eta, poliki-poliki atera zuzendu zen. Ireki aurretik, Lucía entzun zuen esanez:

–Baietz esan. Eta gaur ardo pixkat bat hartuko dugula.–
Atea irekitzean, etxeko zerbitzari zahar batek afaltzeko ordua iragartzen zuen.

–Gabon, Jorge. Gaur zure emaztearekin afaltzen geldituko al zara?

18. gida

Pentsamendu obsesiboetan distraitu ohi naiz?

Zer gaietatik edo nondik egiten dut ihes?

Egoera mingarrien aurrean jarrera iheskorrak izaten ditut?

Zer da beldur gehien ematen didana?

Maitatzen dudana miresten al dut?

XIX. kapitulua

Gizakia ilargian

Carla Sarrasquet-ek bazkal ondoko lo kuluxka estetika zentroan hiru orduko saioarengatik aldatu zuen: depilazioa, azala garbiketa, kosmetiko-geruza exfoliatzaileak, hidratatzaileak eta lasaigarriak; oin eta eskuetako estetika, eta baita ukitu bat bere ilean ere edozein punta loretua kentzeko. Arratsaldeko zazpietan bere etxean zegoen, bere antsietatearen menperatzean bete-betean. Baina bere armairuko atea irekitzeko unea arte bakarrik iraundu zion; izan ere, aukera desberdinak eskaintzen zituen jantzi ileraren aurrean, Carla ez zen emakumezkoen topikotik atera eta guztiz paralizatua gelditu zen:

“zer jantziko dut?”. Norbaitek erantzuna eman izan balio bezala, ahots gora hitz egiten hasi zen: *Badakit, badakit, badakit. Hau da beti tejanoa eta kamiseta beltza jazten ditudan unea. Ea ba, hasi berriro Carlita... Zergatik ez zara makilatzen lehenago? Ideia ona! Eta segun eta nola ikusten duzun zure burua ispiluaren*

aurrean, jazkera irudikatzen duzu aurpegi horrentzat, armairura itzuli eta, besterik gabe, pentsatu duzunaren esekigailuak bakarrik hartzen dituzu, ados?

Saiatuta ere, behin apainduta, Carlak bere logelako nahasmenaren neurria behatu zuen eta erabaki zuen errazago izango zela atikora joatea lo egitera. *Gainera* – pentsatu zuen justifikatzen bezala– *Juanen etxearen etorrerangelditzen da. Eta bide batez, goizean landareak ureztatuko ditut.* Hortz-eskuila eta asko betetzen ez zuen zetazko lo-jantzia bere poltsan jarri zituen, sakon arnastu, eta bere etxetik atera zen bere zitara hamabost minutu bakarrik berandu heltzeko denbora zehatzarekin.

Juanek dena kontrolpean zeukan, nahiz eta bat-batekotasunerako arrazoizko marginak proposatu. Egia esan, bulegotik itzultzean bere sukaldetik bi maitagarriren oinatzak aurkitu zituen: Telma eta Paquita. Arroza ezin hobeki egosia zegoen, barazkiak garbiak eta xukatuak, esnegaina irabiatua hozkailuan, basoko fruituak grazia handiz jarriak erretilu egoki batean... Bat-batean maitatua eta berriro maitatzeko prest sentitu zen. Astia izan zuen mahaia prestatzeko, barazkiak aldeztu aurretik egosteko arrozaren gainean arbendol erreekin zerbitzatzeko, barrigorriak xerratu, ziazerba gordinekin nahastu eta lore-hosto gorrien koltxoi baten gainean ipintzeko sesamo haziekin hautseztatuko bi plateretan, apailatzeko prest. Bainu bat hartu zuen, hortzak garbitu zituen bost minutu

baino gehiagotan zehar, giroko tenperatura graduatu zuen, bere musika tresnan diska konpaktuentzako bost kokalekuak elikatu zituen, lurrindu zen, eta sofan eserita hamasei minutuan zehar Carla itxaroteko astia ere izan zuen, ixilean, urrutiko kontrola eskuan eta bere urdailaren sarreran joan eta etorri egiten zuen hutsune sentazio batekin.

Bere itxaronaldiaren hamaseigarren minutuan, txirrina jo zuen. “Play” sakatu zuen urrutiko kontrolean eta malguki bat bezala altxatu zen ereikuntzaren atea irekitzeko atezain elektrikotik, *Miles Davies* entzuten hasten zen bitartean. Igogailuak behar zuen denbora kalkulatz, sukaldera zuzendu zen, kaba botila bat izozkailutik atera eta ontzi termiko baten barruan kokatu zuen. *Oso kutrea da*–pentsatu zuen Juanek botila hozkgailuaren behe aldean gorde eta ontzia armairu baten barruan izkututzen zuen bitartean. –*Jainkoarengatik, oraingo honetan astronauta bat bezala ikus ez nazan*– esan zuen ahopean ilea pixka bat nahastu, eta kutsu ezusteko eta axolagabea irabazten saiatzen ari zen gris kolorean margoturiko kamisetaren mahukak bildu zituen bitartean.

–Kaixo –esan zuen Carlak bere hortz zuriak agerian utziz; bere ezpainak, purpura ditziratsuz margoturikoak, oihal bat izango balira bezala eta bere irribarrea munduko espektakulurik onena. Edo behintzat horrela iruditu zitzaion Juani, zeinek eskuak atea eta markoaren artean finkatuta, ematen baitzuen bere gorputza besoak

irekitzeko keinu inkonszientea simulatzen ari zela ongi etorri bero batentzat.

–Oroimena trebatu beharko dut, ez zintudan hain ederra gogoratzen...

–Eta horrela izanda ere, sartzen utziko edo oraindik aztertu behar nauzu?

–Oh! Barkatu, pasa zaitez, mesedez. Zure etxean zaude...

–Beno, *Miles Davies*-engatik bada... Ez dirudi zaila... Esan nahi dut, nirean beti entzuten dela.

–Berokia emango?

Carla biratu zen, bere jakaren papar-hegalak irekiz eta bizkarra emanez emakumezko mugimendu natural batean, Juanek bere berokitik joateko baimendu zezan pelikuletan bezala. Baina bere poltsa sorbaldatik kentzea ahaztu zitzaion. Juanek ere antzeman ez zuen kontua bere begirada ile kizkur eta belztuetan pausaturik izateagatik damaren garondoan. Artistikoki erazten bukatu baino lehen bere poltsaren kolpea entzun zuen lurrean zehar barreiatzen. Berriro Juanen aurrean kokatu zen, zeinek oraindik berokiarekin jarraitzen zuen lepotik zabaldua; eta biek izu handiz begiratu zuten nola zabalitzen ziren giltzak, hortzetako eskuila, diru zorroa eta emakume baten intimitate imajinagarri guztiak. Bere ohe-jantzia ere hedatzen ari zen alfonbra bat bezala argizariztutako parketaren gainean.

–Zera, gaur gauean ez dut etxean lo egitea pentsatzen...

–Ulertzen dut...

–Ez, ez duzu ulertzen –esan zuen Carlak gorri-gorria eta negar egiteko zorian, biak azkar makurtzen ziren bitartean dena poltsaren barrura itzultzeko. Berez sortutako flexioaren hurbiltasunean, bere kopetak oldar handiz kolpatu zituzten, biak aurrez aurre eserita eroriz batere dotoretasunik gabe.

–Barkatu, ez duzu nire gorbata urdina izango gauza guzti horien artean? –Galdetu zuen Juanek umorea erabiliz hainbeste baldarkeriei irteera bezala.

–Ez, –zioen Carlak, lotsa sentimendua oraindik gehiago handitzen zion mainak egiteari guztiz emanda–balkoian zintzilikatuta utzi zenuen.

–Beno, gutxienez kolpeak ez dizula beti bezain burutsua izaten galerazi ikusten ari naiz. – komentatu zuen Juanek far zintzo bete-betean.

–Ikusten nola ez nauzun sinesten! – Adierazi zuen Carlak, agian bakarrik lo egiteko asmoari buruz, baina dagoeneko negarrik gabe. Eta nahasketa argitzeko hartzen jakin zuen konfidantzazko jokoan amore emanda, jarraitu zuen esaten: –Ba, besteen nahigabeez tutun baten moduan far egin beharrean, balkoira atera eta esaidazu zer ikusten duzun.

Juanek iradokizuna bete zuen, bai bizkarra bai bere diskreziorik gabeko ondasunak gordetzeko nahiko denbora emateko bakarrik. Baina gortina kentzean bere terraza ikusteko, barre-algara egin zuen berriro. Bere gorbata urdina astintzen zen barandan bilduta. Harrituta eta dibertigarri artean, horrela hasi ziren askaturiko hari-

muturrak lotzen, kointzidentziak eta patuaren beste hurbiltasunak aurkitzen. Carlaren soinu-teknikaria Juanen behin-behineko tenis kide bat zen, eta biak elkar ezagutu zuten festa hartara joatea gogogabe eta azken momentuan erabaki zutelako puntura heldu zirenean; animaturik eta haien buruarekin segurtasunez ari ziren solasean bien artean afaria prestatzen ari ziren bitartean, erabateko naturaltasunez, nahiz eta pikardia baztertu gabe. Eten gabe gorputzak doi-doi ukitzen zituzten Juanen sukalde estuan. Edo eskuak, “gatza pasa”, eta “tori, piper hauts pixka bat erantsi” artean; kaba kopa bat eta beste baten artean; irribar eta begirada bizi artean.

Kontua da, barazkiak bere soja-saltsan egosita zeudenean, hitzik gurutzatu gabe ahoak itxirik baitzituzten, Juan bere oinak Carlaren oinen azpian jartzeko moldatu zen; eta bigarren diskaren doinuan bere oinbularren gainean jarrita, maitasuna ohean sukaldatzera eramateko ere bai.

Nolabait esateko, menua nabarra izan zen, entretenigarria, luzea, zaporetsua, urtsua eta eskuzabala. Gozoak eta gaziak egon ziren; izan ere, nolabait esateko, lehengo eta bigarren platerak izan zituzten. Nahiz eta Carlak bakarrik izan zituen azkenburukoa, nolabait esateko, Juanen eskutik hartuta ahoa ezin itxirik ezta begiak ireki ere, buru kizkurrarekin atzerantz makurtuta.

Hau da, musika ez zen entzuten dagoeneko biak elkaturik lo gelditu zirenean.

Goizeko bostetan, sabel abeslari abesbatza batek sukaldera itzultzera animatu zituen. Bakoitzak bere ohe-jantziajantzi eta, mahaian eserita milikariarik gabe, entsalada apur bat eroria, arroza barazkiekin, ahabiak esnegainarekin eta kafesne bat madalenekin ere jan zituzten.

–Animaliei buruzko dokumental bat ikus dezagun, egusentian botatzen dituzten horietakoak, nahi? –Iradoki zuen Carlak Juan senatik ezagurtuko balu bezala. Mutilak tapauki bat ekarri eta biak uzkurtu ziren hurbil-hurbil besaulkian telebista aurrean. Begietara begiratu gabe, baina elkarrengandik oso hurbil sentituz, berehala hasi ziren haien barne mundua konpartitzen.

–Nolakoa da zure ama? –galdetu zuen Carlak joko irekiz.

– Nire ama astun samarra da... –Zioen Juanek lokartutako ahotsarekin.

–Nirea okerragoa da, ikusiko duzu. Tira! Hori baino gai zapoetsuagoa bota ezazu, edo ez dizkizut inoiz nire sekretuak kontatuko.

Juan segundu batzutan ixilik gelditu zen, oso serio, Carla berari arima biluzteko gai balitz bezala.

–Carla, begira, nire aita hil zen ni nerabe bat nintzela eta...

–Eta nik ez nuen nirea ezagutu. Zein den ere ez dakit. Zuk, behintzat...

–Txandaka joan gaitezen, laztana... Zuk jakitea nahi dudana da... Nahiz eta beti nik bere eredia izan nahi nuen... Nire anaia...

–Anaia bat duzu? Hau bedeikapena, Juan! Ez duzu imajinatzen zer astuna izan den niretzat alaba bakarra izatea...

–Baina kontua da nire anaia berezi samarra dela eta... ia ezin dut harremanetan jarri berarekin...

–Ez da normala?

–Ez, ez da. Eta hori niri...

–Nola darama zure amak?

–Zoragarria. Hura... Zoriontsu ere ematen du bere izaerarekin, baina ni...

–Zer arazo dauka zure anaiak? Kontaidazu laztana...

–Homosexuala eta ...

–Jainko maitea, Juan, ez esan birusa harrapatu duela eta gaixo dagoela!

–Ez, ez, haritza baino osasuntsuago dago. Edo larrosa baino, bah!

–Ergel halakoa! Larritu egin nauzu HIVaz pentsatuz! Baina orduan normala ez dena, zeu zara! Zeuk daukazu arazoa eta ez berak! Ezkongabeko amen alabek ere izutzen zaituzte? Ba, esaidazu oraintxe bertan, zapatak jazten bukatu eta etxe honetatik ihes egin baino lehen! –Oihukatzen zuen Carlak erauntsi bat eginda bere soinekoa jaso eta berokia ohe-jantziaren gainean jazten zuren bitartean

–Ez, ez! Ez zait axola zure ama ezkongabea, alarguna edo dibortziatua izatea! Sentitzen dut! Ez zait ez joan mesedez! Ez dezagun hau hondatu hasi baino lehen!

Carlak Juanen ahotsaren tonuan larritasuna sentitu zuen

eta bere errakzioa neurrigabea eta bidegabea izan zela pentsatu zuen. Agian berak zituela “ezakongabeko amekin arazoak” eta ez homosexualitatearekin, eta Juanen emozio dimentsioarentzat, alderantzizkoa zela. Oraindik mutilari bizkarra emanaz, etxeko atearen aurrean, ulertu zuen iritzi eta bizitzako esperientzietatik haratago, ez zela sentibera egon; baina munduko ezerengatik ez zuen hondatu nahi bere bizitzan benetan hasten ematen zuen zerbait. Besaulkira itzuli, eta samurtasunez besarkatuz, Carlak Juan bere beldur guztietatik arindu zuen elkarriketa ireki zuen.

Tarte bat beranduago, Carlak bere erresuminak eta amarekin mantentzen zuen harreman zaila aitortu zizkionean, Juanek jarrera ulerkorra eta anaikorrarekin ordaintzen jakin zuen, neskak gizonaren babestzat hartu zuena. Azkenean, bere haur garaiko babes faltaren sentsazioa desagertu izan zen eta une horretan bere bizitzan irrikitan nahi izan zuen guztia betetzen ari zela sentitu zuen.

Goizeko hamarrak aldean, biek aldez aurretik larunbata betetzen zieten planak eginak izatean, Carlak igandean eguerdia baino lehen deitzeko agindu zion Juani, paella bat jatera joateko itsasoko ostatu batean Costa Doradan.

Diztiratsu, zoriontsu agurtu ziren, konfidantza eta askatasun sentsazioarekin.

19. gida

Maitatua sentitzen naiz nire bizitzako une honetan?

Sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunei buruz informatuta nago benetan?

Sexualitatea atsegina, askea eta arduratsua al dut?

Tolerantzia praktikatzen dut ala nire jokabidean neu naiz erreferentzi bakarra?

XX. kapitulua

Larunbata: Zein da katua, zein saga?

Lucía berri baten topaketa eta aurkikuntzaren gau baten ostean, Jorgek lo egin zuen hartz lasai baten moduan bere negukoko kobazuloan. Bizkiak jai batera joan izan ziren, hortaz ez zuen azalpenik ere eman beharrik, ezta gozotasunez aurreratu ere aurki aurre egin behar zituzten berrikutzen zati bat ere.

Jorgek malguki bat bezala jauzi egin zuen ohetik. Hogei minutu beranduago, sukaldeko mahi gainean, lau bat mahaikiderentzako dirua eta honako oharra utzi zituen: “Neska-mutila, Pals-eko etxean osatu gabeko arazo bat konpontzea erabaki dut. Gogoia baduzue, guakamole eder batez disfrutatu lagunekin. Arratsaldean elkar ikusiko dugu. Ama oso ondo dago eta muxuak bidaltzen dizkizue. Nik ere bana uzten dizuet. Gero arte, aitatatxo.”

Seme-alabei ohar hori idaztean, edo hitz egokiak aurkitzean, Jorge lasai sentitu zen. Costa Brava-rainoko autopistan egindako kilometroetan zehar ere, egoera

apurtzaile batez disfrutatzeko baimena eman zion bere buruari, abentura baten lan ondorioak ebaluatzeko kezka bakarrarekin. Baina mugen bere nozioa eta erabileraz fidatu zen eta gaiari ez zion buelta gehiagorik eman.

Loliren e-mailean zehaztutakoa baino ordubete lehenago, Jorge itsaso aurreko bere etxean sartu zen. Pertsianak eta leihoak ireki zituen eguzkia eta airea sar zitezten bi hilabeteko itxieraren ondoren. Gero, beheko sua pizteko egurrak prest zituenean, leihoak berriro itxi eta aperitibo bat prestatu zuen.

Jorge leiho handiaren aurrean zegoen, jarrera lasai batean, begirada itsasoko zeruertzean galduta, nahiz eta bere arteria presioa gerrarako prest egon dagoeneko. Aurpegian kolore ona zeukan eta irribarrea inprimatua zeukan tonu ausarten pentsamenduak zirela eta.

Etxeko txirrina entzuten espero zuenez, kalan zehar paseatzen ari ziren pertsona bakanak ez zituen kontutan hartu. Noizbehinka bikote bat pasatzen zen olatuek harean utzitako aparraren parean. Ondoren, kaio talde bat hondartzara gainbehera bizian heltzen ikusi zuen. *Arrain hilaren bat egongo da* –pentsatu zuen begirada jaisten zuen bitartean. Orduan, oso harrিতuta, jausi batez altxatu zen. Loli hor zegoen, etorrera ikusgarrian bere burua iragartzeko prestaturiko ogitxo biribil baten erdian. Estola hori bat nabarmen ari zen astintzen bere ile gorri artean.

Hain txikia eta era berean deigarria, Jorgeri iruditu zitzaion bere osotasunean itsasoko zalantzazko egoera adierazten zuen banderaxoa zela. Burua astindu eta far egin besterik ezin izan zuen egin bere burua aipatutzat ematen zuen bitartean: *Ados, zure bila joango naiz, zapatak hareaz beteko ditut zuregatik ... Ikusten dut andereñoak ez duela ezer iragarririk egingo* –Esan zion bere buruari jertse txuri oso lodia eta baldarra jazten. Antxoaz beteriko oliba bat hartu eta harearaino arroka mailakatu artean larre lorategi batetik jaisten zen atetik atera zen.

Kaioek iskanbila antolatu zuten arrotz baten etorreraren aurrean protestatuz edo. Jorge gelditu zen, irri-maltzurrez, emakumetxo harroarengandik berrogei zentimetrotara eskas. Begiak ditzira ari zitzaizkion maltzurkeriagatik eta haizearengatik. Beraien ahoek irribar berarengatik bikoiztuak ematen zuten Jorge makurtu zenean Lolirena eta bere buruaren artean altuera murrizteko. Eskuak poltsikoetatik atera gabe, irribarra nabarmendu zuen hortz artean oliba iradokitzaile bat biluzteko eta itxaron zuen erronka jotzaile, gonbidagarri, orain menderatzaile.

–Itxi begiak –agindu zuen Lolik lehor eta betileak mugitu gabe. Gero, pausu bakarra emanaz, baina oin puntetan gelditzeko behartuta, lepoa apur bat luzatu, pare bat aldiz nahita gehiegikeriaz arnastu zuen, coach-aren belarritik oso hurbil eta, jarraian, bere mingainaren punta

aholkulariaren ezker belarriaren lobulu azpian pausatu zuen. Hortik, txirla batena bezalako ibilera geldoa eta izurtua hasi zuen, Jorgeren bizarra ongi moztutako ahoaren ertzaraino. Ezpain ertzak zeharkatu zizkion eta, suposatu bezala, Jorgek nahi gabe bere masailezurren presioa lasaitu zuen, harrapakin biribiltxoia Betty Boop-aren barruan erortzen utziz. Baina orduan, Jorgek bere eskuak zorrotik atera zituen eta, bularraren kontra erakarriz, ia jateko zorian egon zen, oso-osorik, gordinik eta limoirik gabe.

Ahoz ahoko ero hura moztu gabe, zaldunak dama txikia kargatu eta moldatu zen arroketan zehar igo, atea ireki eta bere azpian etzateko besaulki gainean suaren aurrean.

Jorge, jada atarikoetarako ez zegoena, plater nagusian bete-betea eta dena emanda sartzen hasi zen, Lolik ia sumintasuneraino ematen zizkion mokadu zuzenak, kozkak, zurrupadak eta atximur artean alarma bat bezain nahasgarria durundatu zitzaion zerbait entzun zuenean:

-Zure neskatxa izatea nahi duzu, ezta?

Jorgeri jolasa gelditzeko ideia iheskorra pasa zitzion burutik. Hain iheskorra, non erantzuna bere gorputz odolberoak jarrai zezala utzi zuen, guztiz hazita, su etena egiteko ezgauza, dagoeneko zalantzazko arrakasta iragartzen zuen borroka horren erdian.

Ordu erdi bat beranduago, lagunduta hartu nahi ez zuen dutxa azpian, Jorgek ikara eta atsekabezko kutsu garratza eta hutsunea sentitu zituen. Ur beroak pentsamenduak argitzeko utzi zuen eta, bere ekintzen kontrola berreskuratu zuenean berriro ere buru argia sentituz, egongelara itzuli zen bazkari azkarra inprobisatzeko, Loli komunean sartzen zen bitartean.

–Zerbait bazkaltzera joango ginela uste nuen... – zioen Lolik bere etsipena izkutatu gabe xarma gabe jarritako mahaia ikustean.

–Sentitzen dut, ez dut denbora gehiago... Nola etorri zara honeraino?

–Trenez eta taxiz.

–Ba, orain herriko lagun zahar batek eramango zaitu etxera. Diru berezia eskuratzea ez zaio betere gaizki etorriko eta erosoago bidaiatuko duzu.

–Elkarrekin jaitsiko ginela uste nuen...

–Sentitzen dut polita, topaketa baino lehen ez dugu hitz egiteko aukerarik izan, eta nik oraindik hurrengo herrira igo behar dut nire seme-alabarentzat gauza batzuk erosteko.

–Gezurretan aritu zen Jorge adeitasun zurrunaren tonuan.

–Nahi duzun bezala –Esan zuen Lolik mahaiatik altxatuz bere ogitartekoa bukatu gabe.

Jorge moldatu zen telefonoz izandako elkarrizketa laburrean, bertako lagunak galderarik egin ez zezan eta azkar asko heldu zedila bere bidaiaria bilatzeko. Lolik eguzki betaurreko ikaragarriak jarri zituen eta etxetik agurtu

gabe atera zen atean kotxe bat gelditzen entzun orduko.

Arratsaldeko seietan Jorge etxean zegoen jada. Errudun, deseroso, haserre eta atsekabe sentitzen zen. Berehala Ceciliaren letra ezagutu zuen idatzitako ohar batean:

“Eskerrik asko, aitatxo! Nik, dakizun hori gonbidatu dut eta Nachok Raimon, bere lagun bereiziezina. Zinerako eta guztiz heltzen da, postrerik eta freskagarririk ez dugulako hartuko. Etxean afaltzea pentsatu dugu. Jakina. Muac. Nik.”

Hau da, “afari oparoa presta iezaguzu” – pentsatu zuen Jorgek oharrak erakusten zuen pozaren aurrean irrifartsu, eta sukaldatzeko munduko aitarik prestuena sentitu zen.

Siesta bat hartzeko eta bere abenturaren gaiari nola heltzeko hausnarketa atzeratzeko astia izango zuela kalkulatu zuen. Bizkiak bederatzi eta erdiak baino lehen ez dira helduko. Beti bezala, larunbateko afaria hamarretan egongo da prest.–Bere azken pentsamenduaren ondoren, Jorgek lo sakona izan zuen berriro, aurreko gauekoa bezalakoa, urteetan lortzen ez zuena.

Esnatzean, izan zuen amets itxuraz zentzugabeaz pentsatzen gelditu zen tarte batean. Bere burua ikusi

zuen txiki-txikia, hizki itzelak zituen laukiluze txuri handi baten gainean ibiliz, eta letxu erraldoien baso arraro batez inguraturik.

–Komodoren txartela Juanen ontzian! –Oihukatu zuen Jorgek ohetik altxatuz–. Egia esan behar diot nire lagunari ahalik eta azkarren. –Horrela, kezka keinu batez, Jorgek bukatutzat eman zuen duela ordu batzuetatik honera dibertitzeari utzi zion jolasa.

20. gida

Maitasuna, sexoa, boterea bilatzen dut? Zer behar dut, zer nahi dut?

Ez dakidana edo jakin nahi ez dudana, hitzik ez dudan gai bihurtzen al da?

Adikziorik al dut?

XXI. kapitulua

Ama den pertsona

Larunbat hartan, eguerdia baino lehen, Juan bere amaren etxera heldu zen bazkaltzera joango zela egiaztatu gabe, poz handia emango ziola ziurtasun osoz. Eguna presarik gabe familian birtopaketa bat egiteko ematea pentsatzen ari zen eta, gainera, bere ama ordenagailuaren erabileran hasteko erabaki tinkoa zeukan, Clarak iradoki zion bezala. Beraz, ordubata laurden gutxitan bere ordenagailu eramangarria, bere eskanerra, anaiak frogatzeko traje pare batekin eta politago emateraino aurpegiera harmonizatzen zion bizitasun lasaiarekin kargaturik azaldu zen.

Zaila zen Telma ezustean harrapatzea; izan ere, beti zeukan hozkailua bete-betea eta baita animoak ere munduko etxeko bazkaririk onena bat-batean egiteko.

–Laztana, nolatan zatoz hain zamatuta! Baina zer dakarzu hor, abisatu ahal zenidakeen eta laguntzera jaitsiko nintzen...

–Baina ez du ezer pisatzen, emakumea, zer ahoberoa

zaren! Zatoz honera, muxu pare bat emaizkidazu, oraindik ez nauzu agurtu eta.

–Badakizu zure anaiak hiruretan ixten duela, berarekin bazkaltzeko itxarongo duzu ala berehala joan behar duzu? Esan dit gaur berriro TV3koa orraztuko duela. Zer ongi egiten duen, zure anaiak ilearen mozketa aldatu zionetik politagoa ikusten zaio...

Beno zer, itxarongo duzu ala ez?

–Ez dago arazorik, baina mokadutxo bat ongi etorriko litzaidake. Egia esanda, berandu arte geldituko naiz... Nire auzoan argi mozketa bat dago eta matxura gauean egongo dela konponduta informatu didate. Axola zaizu hemen lan egiten badut tarte batez, beranduago? Ia egun osoan jasan beharko nindukezu...

–Bai, gizona, bai. Zure anaia eguzkia baino zoriontsuago jarriko da... Duela lau bat hilabete ez dugula hirurok elkarrekin bazkaltzen. Oraintxe bertan mahai tolesgarria ekarriko dizut eta zure gauza guztiak leihoaren txokoa ipini lasai-lasai. Ogitartearekin kafesnea nahi duzu ala garagardotxo nahiago? Patata tortila on bat eta ogia tomatearekin egitea pentsatu dut... Ia ordubata da...

–Bai, ordu ona garagardo bat hartzeko. Ez dago modurik, ez dut lortzen zurea bezain ona den patata tortilarik jatea; eta hor, nonbait, oliba pare bat baduzu... Ah! Traje pare bat ekarri dizkiot aukera dezan. Norena da ezkontza?

Telma eta Juan ia oihukatuz aritu ziren hizketan tarte batez, bata bat-batean asmatu idazmahia prestatzen, eta bestea sukaldean arraultz pare bat irabiatzen zartagina

patataz beterik burbuilak egiten zituen bitartean.

Super mokadutxo hura hartu ondoren, Juani halako atseginezko logurea sartu zitzaionez, ezkongabeko bere logelan siesta bat hartzea erabaki zuen bazkaltzeko ordua arte.

Lehenego hestebeteak eta entsaladarekin, eta hozkailuan gratinatzeko prest ditudan kaneloekin bigarrenez, pozik izango ditut; eta horrela orain tarte batez eseriko naiz gakorraz-lana aurreratzeko. Juan tiroketan egon dela sumatzen dut... Hobe ixiltasun une bat egingo dut ongi suspertzeko. Lan gehiegi egiten du... –Pentsatu zuen Telmak zoriontsu, oilaloka bat bezala.

Besaulki batean eserita telefonoaren mahaitxoaren ondoan, ordubiak eta laurdenetan, Telmak dei bat hartu zuen lehenego ring-a entzuten bukatu baino lehen, bere Juan ez esnatzeko.

–Ametsetan ere ez duzu imaginatzen esango dizudana: Telebista katean egoteko kontratatu naute, ama, entzuten ari zaren bezala!

–Ba, bai egongo dela ospakizuna eguerdian...

–Bai, horregatik deitu dizut, ez naiz bazkaltzera joango, beraiekin eramango naute. Kontatuko dizut izarrek jaten dutena, orain korrika noa ekoiztetxeak duen monobolumen horietako batean itxaroten naute...

Telmak bere aingerutxoari agur esan zion, Juan etxean bere zain zegoela esan gabe, ezta traje batzuk ekarri zizkiola ere. Ez zuen halako ilusioa ilundu nahi, nahiz eta berea bai apur bat moteldu zen. Indartsu eta erabakiorra aldaketen aurrean, beti ere familiakoen onerako izatekotan, berak ere bere planak pixka bat aldatzea erabaki zuen. Menua aitaren batean moldatzen zenez, Juan lo egiten uztea erabaki zuen “gorputzak eskatu adina”. Logela eta pasabideko ateak itxi zituen, lasai asko gelditzeko egongelan. Bere auzolagunaren bilobarentzat ehuntzen ari zen jertsea baztertu zuen eta, oin puntetan, leihora hurbildu zen.

Segurtasun osoz, Telmak Juanen ordenagailuaren pizteko tekla sakatu zuen. *Zer ongi, ia dena Purirenean bezalakoa da... Hemen da Internet Explorer... Aurrera Telma!* –Zioen bere buruari estuasun puntu batekin.

Minutu gutxi beranduago, Telma alaiki ari zen txateatzen pantailan ongi etorria ematen zion jende talde batekin, aspaldian jaiotako adiskidetasuna erakusten zuten barruko esamesak trukatzuz. Horrela, esaldi nabarrak eta akats ortografikoz josiak zitezkeen, baina honek ez zuen komunikazio beroa saihesten:

–“Filomena: ya aitortu zr com el teu filio?”

–“Henry: nola joan chandak, gomendau liburua lort dz?”

–“Puri: Kaixo Telma! artilea jaso dut.eskerrikasko.esan ze

zenb.tako orratza erabiltzea komeni zaidan“

Gutziz buru-belarri, ez denbora ez tokiaren noziorik gabe, arratsaldeko hiruretan Telmak jarraitzen zuen galderak erantzuten eta beste asko egiten, bere bizkarrean Juanen presentzia antzeman gabe. Hau, halako ixiltasunarengatik harrituta, oinutsik jaiki zen; eta lehenengo urduri eta gero miretsita, lan eta lan ari zen internauta haren irudia behatzen ari zen, gutxienez duela hogeit hamar minututik. Orduan txirrina behin eta berriz entzun zen eta, bere ama bere eserleku gainean biratu eta zailtasunez altxatzen saiatzen ari zen bitartean, Juanek ezusteko ikaragarria eman zion esatean:

–Ez korrika egin amatxo, neuk irekiko dut...

–Aayyy!!! Barkatu, barkatu...–Errepikatzen zuen Telmak harrapatuta sentitzean, eta bekaturen bat egin izan balu bezala, bere ahurra bularraren gainean eusten zuen damu larriaren seinale.

Juanek azkar asko bukatu zuen postariarekin eta begiak zabal-zabalik harridurarengatik, berehala itzuli zen bere amarengana.

–Ama, ezin dut sinestu nire begiek ikusitakoa... Baina Jainkoarengatik, ez desenkusatu. Harrituta nago, baina areago, nago... harro nago zutaz. Egunean jarriko nauzu, mesedez?

–Eta ez ditut kanaloiak labean sartu... Hau bizio bat da...

–Mosedez eskatzen dizut denbora ez galtzeko erru

faltsuekin eta ez nazazu gehiago airean izan... Bota! Nola, noiz, non? Dena jakin nahi dut eta gainera, aitzaki on bat pentsatzen hasi; izan ere, zerbaitek haserretu banau da ikustea aditua zarela eta oraindik ez didazula ordenagailu bat eskatu. Nori eta neuri! Hori onartzea bai kostatuko zaidala...

Telmak duela ia urte erdi bat zaharrentzako informatika eta Interneti buruzko ikastaro batzuetan parte hartu zuen. Ikastaroak bera alargundu zenetik kide aktiboa zen auzoko elkarteak diruz laguntzen zituen.

Gaia menperatzen zuenetik, egunero tarte bat egiten zuen elkartearen ordenagailuetatik txateatzeko. Baina ez zuen astirik aurkitu hilabete guzti horietan lasai hitz egiteko bere semearekin.

Juanek bere ama besarkatu zuen sentikorki, bere aldetik justifikaziorik ez zuen hainbeste arreta falta eman izanaren adierazpena. Askari on bar hartu zuten eta kaneloiak, afaria eta pozak amaiarekin elkarbanatzeko uztea erabaki zuten. Arratsaldearen ezusteak eta emozioak gaindituta, Juanek denbora aprobe txatu zuen bere amari proiektuaren erakustaldia emateko, merkatura zabalduko zuen software-arena, eta lehenego aldiz sentitu zuen ideia oso baliagarriak truka zitzakeela, parez-parez, emakume heldu batekin, pertsona interesgarria, arduraz eta baita gabeziez beterik eta, gainera, bere “ama” zen.

21. gida

Nola irudikatzen dut nire bizitza lan-erretiroaren ondoren?

Pertsonekin jartzen naiz harremanetan, edo nik dudan bere taldearen sailkatze, klasifikazio edo izatearen ideiarekin?

Une honetan, maite ditudan pertsonen artean baten batengandik urrunduta sentitzen al naiz?

XXII. kapitulua

Bi maitasun artean

Carla Sarrasquet-entzat oso erraza izan zen ohe gainean utzitako jantzi guztiak berriro zintzilikatzea. Oroitzapen trinko eta hainbeste kutsu emozionalekoek arina egingo zioten edozein lan. Baina egia esanda, bere asmoa ohean sartu eta lo egitea bakarrik izan zen. Agian nekearengatik, edo agian bere bizitzan gehien maitatuko zuen gau bat luzatzeko desioarengatik. Zehatz-mehatz birsortu nahi zuen. Atxiki nahi zuen, poema bat memorizatzen duena bezala, behin eta berriz errepikatuz. Saretak itxi zituen eta zetazko ohe-jantzia jantzi zuen berriro Juanen usainarekin biltzeko eta, telefonoak deskonektatzera zihoan unean, Mirandaz pentsatu zuen.

Kaixo jainkosa, lo egitera noa telefonoak off eran jarrita, neuk bakarrik esnatu arte. Gero, ez badut zure ezetza erantzungailuan topatzen, zuzen aterako naiz zure etxera. Gose itzela eramango dudala ohartarazten dizut. Muxutxoak. –Asaldurarik gabeko mezua grabatu zuen Carlak, eta oso arinduta bere laguna etxean ez

topatzeagatik. Momentu hartan ez zuen elkarrizketarako batere gogorik.

Mezua entzutean, Miranda amorraturik jarri zen. Bere burua eusten aritu zen Carla ez mozteko, bere berrikuntzak izateko irrikitan, eta une horretantxe ogia erostera jaistea otu zitzaion. *Gero Carlaren gogo aldartea aztertzen saiatu zen grabazioa pare bat aldiz gehiago entzuten. Baina zaila egin zitzaion bereiztea ea bere laguna erdi lo eta zoriotsu zegoen, edo etsituta eta deprimiturik; ahotsaren tonua monotonoa baitzen. Ez, ez horrelakorik. Seguru zoragarria izan zela. Bihurria da, bere ahotsaren inflexioan ez dit aztarnarik utzi baina... Ezagutzen zaitut maskaratxoa! Misteriotsu egon zara, jakinminez utzi nahi nauzu eh?* –Ondorioztatu zuen Mirandak azkenean askoz lasaiago gelditutik. Gaueko menua pentsatu zuen eta duela bi hilabetetik zintzilik zeukan etxeko lan bat antolatu zuen: udako arropa gorde eta negukoa zabalago antolatu.

Etxeko garbitasunerako borontatea agortu zuenean, Mirandak zerbait arina bazkaldu eta kafe eder bat dastatzera eseri zen, Softlberriako nagusiarekin astelehenean izango zuen elkarrizketa irudikatzen zuen bitartean. Bere balizko bezeroak kezkatu ahal lituzketen kontuei buruzko bere pentsamenduak aztertzea gustatzen zitzaion eta irudikatutako topaketak bistaritzen ohi zituen aldi berean galdetzen eta erantzuten, bera bi pertsona batera izango balitz bezala. Horrela, askotan, bete-betean asmatzea eta

neurrian egindakoa ematen zuen produktua sortzea lortzen zuen, enpresa baten beharrei buruz informatua izan baino lehen. Berez, ez zitzaion gustatzen elkarrizketatuko zutenei buruz gutxieneko informazioa maneiatu gabe aurkeztea, eta horregatik, bere asmatutako elkarrizketaren ping pong-aren erdian; Miranda, oso grinatsu, idazmahiarantz zuzendu zen. Ordenagailua piztu eta, lehengo aztarna bezala, Softlberriako web orrian sartu zen azterteko bere estetika, bere zerbitzuak, bere antzinatasuna eta sortzeko historia, bere organigrama, merkatuaren kokapena, bere enpresako politika eta ezezagun baten aurrean ez aurkezteko sentsazioa , gutxienez, eskainiko zion edozein zehaztapen.

Lana Miranda Lynch-entzat maitasun handi bihurtu izan zen eta, bere hurrengo zitan aztertu nahi zituen aspektuei buruz oharrak hartzen ari zen momentuan, bere beste maitasuna handia, intuitiboa eta hainbeste lan grinaren jeloskorra, bertan azaldu zen Atlantikoaren beste aldetik telefonoa joaraziz.

– Ama, Alba naiz. Larunbateko zure ohiko siestan harrapatu zaitut?

– Ez, laztana, a zer ezustea! Nola doa dena? Moztu, moztu, amak deituko dizu eta. Nahi?

Albak ez zeukan arazo ekonomikorik eta are gutxiago komunikazio baten kostuari aurre egiteko, baina jaso behar zuen. Bere amak deitu ziezaiola, faltan bota zezala, desiratu eta behar ere zezala desiratzen zuen. Horregatik,

deia mozteko gonbidapena onartu zuen, berehela jo zuen ring-a entzuteko, eta azkenean bere ama arrakastatsua izango zuela ziurtasunarengatik, telefonoz bederen.

Bere alabarekin izandako elkarrizketatik aurrera, Mirandari guztiz aldatu zitzaion umorea. Bere ordenagailuaren pantailan ordua begiratu zuen eta polita jarri aurretik dutxa bat hartzea erabaki zuen. Ez zegoen kritiketarako, eta ez zuen bere burua erakutsiko Carlaren aurrean, justu larunbat horretan, “etxerako” erabiltzeaz hainbeste disfrutatzen zuen jantzi higatu horiekin.

Ordubete beranduago, atea zabaltzean, Mirandak Carla ikusi zuen aurpegi ditziratsua eta “gran reserva” botila batekin bere eskua altxatuan arrakastaren seinale.

–Egin duzu! Pasa zaitetz behingoz urdanga alena eta jantzien zehaztapenekin hasi! Ongi joan zitzaizula... zure aurpegian ikusten dut. Arraioa, panpina! Zorionaren irudi bizia zara! Belarriak zabalik ditut, eman berokia... – Mirandak ahoskatutako azken hitzak bidea eman zuen Carlak bere poltsaren anekdota kontatzeko Juanek berokia kentzean. Biek barre algarak egin zituzten eta pasadizo bakoitzaren gainean itzuli ziren hirutan edo lautan gualdian zehar. Kafea hartzeko momentua heltzean, Carlak bere bizipenetatik apur bat atera ahal izan zuen eta, orduan, bere laguna ez zegoela ongi antzeman zuen. Mirandaren irribarrean keinu bortxatu hori ezagutzen zuen eta zerbait serioak kezkatzen zuela konturatu zen.

–Beno, orain, zuri zer ari zaizun gertatzen kontatzea nahi dut –esan zuen Carlak seriotasunez bere laguna begiratu.

–Zin egiten dizut esango dizudanak lotsa ematen didala, baina, sentitzen dudana da Alba gogaitzen ari zaidala. Imaginatu! Neure alaba, nire alaba bakarra, nire bilobak izango dituen... Eta kontua da gezurra esango nizula bere eskariak mindu ez nauela esango banizu...

–Lasai. Guztiz nahastuta zaudela ikusten dut. Zer esakatu dizu zehatz-mehatz?

–Berarengatik egon nadila. Ez! Hori baino gehiago! Berarekin egon nadila eskatu dit. Kale kantoian egongo balitz bezela...

–Eta zein da arazoa... Ez daukazu larritasun ekonomikorik, zure suhiarekin ondo moldatzen zara, amona izateaz pozik zaude, Brasil zoragarria da, ez daukazu lotzen zaituen ume edo harremanik...

–Beste behin hitzalditxo horrekin! Zer, Alba eta zu ados jarri al zarete? Berezko bizitzarik gabeko emakume baten irudia ematen al dut akaso? Nola da hau? Amona izateak beste edozein proiektu pertsonalaren bukaera esan nahi al du? Nire errealizazioaren gailurrean nagoela ez al duzue ikusten? Nire bizitzan gehien maite ditudan eta gehien axola didaten bi pertsonak, eta ez dakite ezer nitaz, edo okerrago oraindik: bost axola zaie nire bizitza!

–Geldi, geldi, geldi! Ezer baino lehen, ez dizut baimena ematen nitaz halako gauzak esateko. Gainera, ederki asko dakizu bai Albak bai nik baldintzarik gabe maite zaitugula...

–Baldintzarik gabe diozu? Ez da alderantziz izango? Ez da izango zuek nahi duzuela neu baldintzagabea izatea,

ni beti zuen gomendio egotea?

–Esan behar nizuna entzun ezazu, eta... gaizki esaka aritzen bukatu behingoz. Kontrolatu zure amorrua, AE-ean aditua! Gogoratu zure laguna naizela. Pluralean hitz egiteari utziozu bi alaba izango bazenitu bezala. Izan ere, nire harremanaz damutzen bazara, gaizki goaz. Alba beti maite izango duzu, nahiz eta batzutan hainbeste ez maitatu nahi izan... Baina ni, utzi nazakezu nahi duzunean, egingo bazenu hilgo nintzatekeen arren. Baina esan nahi dut gure adiskidetasuna askatasuna, errespetua, aukera konzientean oinarritzen dela eta ez odol loturetan, ados?

–Carla oso tinko eta serio ari zen azaltzen, eta horregatik Mirandak hitz horiek kolkotik beherako ur txorrota bezala sentitu zituen. Shock-ak mugak zehazten ahalbideratu zion, eta berehala ulertu zuen pixka bat lekuz kanpo jarri zela.

–Sentitzen dut. Esan behar didazunak on egingo dit. Zure ulertzea eta laguntza behar dudala uste dut –zioen Mirandak tonu lasai eta apalagoan.

–Zuk irakatsi didazu hitzak kontutan hartzea... Ongi fijatu zaitetz zer esan duzun: “nire errealizazioaren gailurrean nago”. Lanekoaz edo errealizaio pertsonalaz ari zara? Izan ere, guztiaren gailurrean baldin bazaude... zer gelditzen zaizu egiteko, desiratzeko, disfrutatzeke? Beste aldetik, zure bizitza zure lana baino gehiago axola zaigu. Egia da. Eta beste gauza bat ere egia da: nahiz eta zuretzat bizitza eta lana ez dauden borrokan, zure bizitza bi aspektu horiek, bakoitza bere aldetik, ongi funtzionatzen baino gehiago da... Esan nahi dut...

–Ezin hobeto ulertu dizut. Eta zure ulermenak emozionatzen

nau, eta berriro lotsatzen naiz orain...

–Zergatik?

–Bizitza osoa pasatzen dudalako, bai enpresetan bai hitzaldietan, bizitzak eta lanak gure barruan banandu behar ez gaituzten teoria aldarrikatzen, laneko errealizazioa errealizazio pertsonalarekin batera doala...Eta orain arte, nire buruaz horren adibide garbia nintzela pentsatzen nuen, eta horren ondorioz gai nintzela autoritatez eta koherentziaz hitz egiteko lan muduan pertsona arrakastatsuenen aurrean... Baina orain...

–Baina orain zer?

–Baina orain ez naiz koherente sentitzen, blef bat baizik... Orain arte frogan jartzeko benetako egoera bat ez zaidala azaldu uste dut... Bi maitasun artean egoteko sentrazioa biziaraziko didana, bi aukeren artean estu hartuko nauena... Nik Alba, suhia, etorriko diren bilobak maite ditut nire bizitza adina; baina hala ere, eta nahiz eta egia den ez dudala dirua irabazi behar bizitzeko... Nire lana zoragarria dela sentitzen dut, heziarazi, disfrutatuarazten nauela, bizitzako erronkak eskaintzen dizkidala. Eta gainera konszientea naiz gizateriak hainbeste lan behar duela epe luzean garapen pertsonalari emana... Nik badakit eboluzioaren langile xume bat naizela... Hondar aletxo bat ere naizela... Baina hondar ale bakoitza behar da barruko urre koloreko hondartza hori ereikitzeke, non bizitzaz, haurrez, maitasunez, eta azken batean beste lorpen guztiez disfrutatzen den...

–Nola maite zaitudan, Miranda! Bai zarela munduko pertsonarik hunkugarriena eta ederrena; hori bai, zu ez zara Buda, ezta Teresa Ama ere... GI-ZA-TIA-RRR

zara, ulertzen? Eta horrek esan nahi du hutseginkorra onartzea...zer, ba, agian apur bat hutsezinezkoa sentitzen ari zinen kasualitatez, diba maitea, eta horregatik Alba gogaitzera etorri da, zu hutsegitean sentituaraziz?

–Ez zaitez ergela izan... Zu bai zarela pertsona sinestezina... Eta oso ikasgai ona eman didazu, baina... Jarraitu, uste dut oraindik ez dudala ikasgaia gainditzen lortzen...

–Ados, bi ergel gara. Bi ergel elkarri loreak botatzen. Ikus dezagun zer falta den gataskan jarri zaituen gaia ulertzen bukatzeko... ¡Ah, bai! Haria harrapatu dut. Gauza bat esaidazu, Miranda, lan errealizazioaren gailurrean baldin bazaude ... Inoiz ez duzu plateatu mintegiak beste lurraldeetan ematea, adibidez? Diot; izan ere, kontua sortzaile jartzea bada, eta gure bizitzaren atal desberdinak bat egitea gure barruan ez banatzeko... Eta urre koloreko hondartzak, eta garapenerako gabeziak dituen gizarteria... Konturatu al zara hegazkinak zer azkar joaten diren gaur egun? Putzua zeharkatzeko, Madrilen dituzun klaseetara joateko hartzen ohi duzun baino denbora piska bat gehiago behar dute...

Carlak erronka berrien harra sartu berri zuen Mirandaren buruan. Eta biek bazekiten; hortaz, iradokizun hain garbi eta zuzen haiei buruz gehiago azaldu gabe, berezko besarkada eman zioten elkarri eta elkar agurtu zuten besterik gabe. Biek bakarrik egon behar zuten.

22. gida

Nolakoa da nire ahotsaren tonua?

Zer dio nitaz nire ahotsaren kadentzia hori, zer ez dut hitzekin adierazten?

Nire bizitzan kontraesan batez jabetzen banaiz, errealitate koherenteago sortzeko aukera izaten dut...

Gaur egun kontra-esanen batean bizi al naiz?

XXIII. kapitulua

Igandea: Bihotza irekitzea

Hiriaren bi herenek lo egiten zuten bitartean, igandeko goizeko hamaiketan Juanek dagoeneko etxea txukundu, bere tenis kideekin partida bat jolastu bikoteka, bere etxera itzuli eta, dutxa baten ondoren, “bere parkeko” *tabernara jaitsi izan zen gosaltzera. Egun zoragarria da paella bat jateko itsaso aurreko terrazaren batean* –pentsatu zuen Juanek. Egunkaria goitik behera irakurri ondoren, erlojuari begiratu zion eta etxera itzuli, argazki makina prestatu, eguzkiko betaurrekoak hartu eta Carlaren deiaren zain lasai gelditzea erabaki zuen.

Juan estrenaldian bezala sentitzen zen, halako ezohiko pozak betetzen baitzuen. Alde batetik, bere amaren ezustea, zeinek orain bere proiektuaren etorkizunaz inoiz baino indartsuago pentsatuarazten zion. Eta beste aldetik, emakume baten ezustea, zeinek ostiraletik iragana ahaztuarazten zion eta orainaldiaz erne egoteko desioak iradokitzen zizkion, unez une.

Hamabiak baino piska bat lehenago, telefonoak jo zuen eta Carlaren ahotsa entzungo zuenik ez zuen zalantzan jarri ezta segundu batean ere. Linearen beste aldetik gizonezko batean ahotsa jasotzean, halako harridura izan zuenez ez zuen Jorge ezagutu ezta honek bere izena ahoskatu zuenean ere.

–Zer, Jorge... –galdetu zuen Juanek gogaituta.

–Ez dizut nire abizena esango ezta Morse kodigoan ere...

Lo al zeunden oraindik?

–Bai zera, “coach”, bai zera! – erreakzionatu zuen bere oroimenak berehala hitz horiek entzutean -. Izan ere, distraiturik harrapatu nauzu, barkatu, baina nolako ezustea eman didazun! Agian orain arte ez dugulako inoiz hitz egin aste buruan... Aukeren artean sartzen ez zinela ikusten da...

–Ikusten dut; sentitzen dut Juan, baina badakit ez dudala bihar arte itxaron behar zurekin hitz egiteko...

–Jakina ezetz, gizona. Nahi duzunean deitu ahal didazu. Bide batez, tenisean jokatzeko al duzu?

– Ba, bai; baina zerbait garrantzitsua komentatu nahi dizut –erantzun zuen Jorgek bere ahotsean seriotasuna erakutsiz.

–Nola aurkitu duzu zure emaztea?

–Ongi. Inor baino hobeto eta osatuago uste dut... Emakume zoragarria da. Kontatuko dizut zertaz datorren dibortzioarena. Baina ez dizut horregatik deitu...

Itzulinguru pare baten ondoren, Jorge Lolirekin

izandako esperientzi zorabiagarria hasi zitzaion kontaktzen Juani, ostirala goizetik larunbata arratsaldea bitartean. Gerente gaztearengan sortu zuen nahasmena zela eta, istoria atzera hartu zuen eta bere hastapenak azaldu zituen, Komodoren e-mailak erantzutea erabaki zuenean.

–Begira, Jorge, ez nuen uste inork edo ezerk hondatu ahal izango zidala goiz honetako umore zoragarria, eta zuk lortu egin duzu, txo! Arraioa! Nolatan ez zenidan bihotza ireki ostiralean bazkaldu ondoren?

–Egoeraz lotsatzen nintzela eta izkutatu nahi nuela suposatzen dut. Pribatuan gorde... Baina eskuetatik ihes egin zait eta...

–Eta zergatik kontaktzen didazu orain? Zein da aldea?

–Orain arte aipatu ez dizkizudan bi xehetasunengatik...

–Gehiago al dago oraindik, ba?!

–Asteartean prestatu nizun txostenean, emakume horrekin arazoak egongo zirela ohartarazi nizun, baina inoiz ez nuen imaginatu hain azkarrak izango zirenik, ezta neu izango nintzenik lasterragotuko zituen ibilgailua. Ez dakit ea nire lanpostua nahi duen ni joaten naizenean... Boterea nahi du, agintera, eta nahiz eta besteekin alderatuz salmentarako gaitasunak dituen, beste status bat lortzeko bidea erratzen ari dela sumatzen dut... Hori da kezkatzen nauena, nahi duena lortzeko edozein gauza egiteko gai dela uste dudalako... Bigarren xehetasuna, eta honengatik erabaki dut gaur hitz egitea zurekin, zera da: pixka bat lo egin ondoren, atzo gogoratu nuen bere txarteltxoak zure etxean ikusi dudala....

–Nire etxean? Esaten duzunaz ziur al zaude? Non ikusi zenuen?

–Bai. Gogoratzen duzu zure etxera joan nintzen egunean entsalada bat prestatu nuela? Beno, ba gogoratzen dut letxu eta tomate hondarrak zakarrontzira bota nituenean, ikusi egin nuela beste paper artea; guztiz ziur nago ...

–Komodo! “Sartu nire web-ean”... Gogoratzen dut... Arraioa neskarekin, beltza eta gorriaren alde batera apostu egin zuen, eh?! Bai, gaur esan behar zenidala uste dut. Baina sutan nago Jorge, benetan...

–Ulertzen dut, eta benetan ulertzen dut Juan; inoiz ez nuen pentsatuko horrelako kontu batean nahastuko nintzenik eta orain ikusten duzu, dena izorratu dut...

–Gelditu hor. Ez pentsa dena zuregandik pasatzen denik ere. Ikus dezagun, zure egoera emozionalean, Lolik edo edozein emakumek ihesbidea edo dena dela irekiko zizula ere ulertzen dut... Baina orain “gure” saltzaileaz pentsatu behar dut.... Eta zintzoa izanda, une honetan ez dut nire taldean nahi. Hausnartu behar dut. Zuk huts egin baduzu... zergatik ez berak? Ez dakit, sorgin ehizan aritu ere ez nuke nahi... Minduta nago zurekin, berarekin, egoera orokorrarekin; baina hausnartzeaz gain, beharbada hainbat kontu kontsultatu beharko dut neurriak hartu aurretik. Bide batez, bihar bilera bat daukat eta ez dut mozterik nahi. Zera nahi dut: enpresara heltzean, igogailua hartu sistema solairuraino zuzenean eta goiza hor pasa nik deitu arte; ez dut zuk ezkutuko topaketak izatea nahi gaiarekin nola maneiatu nahi dudan jakin aurretik. Torrarekin hitz egingo dut lankidetzan landu ditzazuen

Golden-i buruz buruan ditudan ideia batzuk.

–Ados Juan. Gauza bat gehiago bakarrik esan nahi dizut: uste baduzu nire esku hartzea enpresan utzi behar dudala, ulertuko nuke...

–Ez dut hori esan. Esan dudana da ez dudala inkisidore bat izan nahi ez Lolirekin, ez zurekin, ez inorrekine ere. Enpresarentzat oraindik ez dela zerbait larririk gertatu ere ikusten dut, oraindik beste xehetasunen bat kontatzea falta ez bazaizu behintzat ...

–Ez. Hori da guztia. Nahiz eta ni zalantzan jartzeko nahikoa....

–Utzi pentsatzen, ados? Orain utz dezagun gaia hemen, mesedez.

–Hitz gehiagorik ez. Joserekin egongo naiz zuk deitu arte. Bihar arte, Juan.

Telefonozko elkarrizketak ordu erdi bat baino gehiago iraundu zuen eta Juanek neka eginda, umore txarrez eta igandeko zortea aldatu ahal izan zeneko sentsazio desatseginarekin moztu zuen. Superstizioso, mesfidatu sentitu zen, eta bere erlojua kezkatuta ere begiratu zuen.

23. gida

Nola puntuatzen dut nire burua, 1etik 10era, antolamendu eta eraginkortasunean lanetik kanpo?

Ohiturak edo obsesioak al dauzkat?

Lotsa sentitzen dudanean, neure kritiken erantzunkizuna ez hartzeko modu bat da?

Norberekoikeria eta egozentrismoaren arteko aldea ulertzen dut?

Superstizioak al dauzkat?

XXIV. kapituloa

Behin, Ibizan

Ez zaio gehiago itxaronarazi behar. Ordu erdia gutxienez darama nire zain. Oraintxe deituko dizut, maitea. Zapatilak jantzi, eta zure bila pasatzeko prest nagoela abisatuko dizut. Motorra lorategietan utziko dut, nire estudioaren balkoiak eta zureak zainduta, eta eguzkia eta paellaren bila joango gara zure kotxean. Zer kotxe izango duzu? Ikus dezagun... Utzi asmatzen. –Hau ari zen pentsatzen Carla Sarrasquet, oso zoriontsu, igandean goizeko hamaikak eta hogeian, norbaitek hatz koskorrekin lotsaz bere etxeko atean jotzen zuen momentuan. Bere bizilaguna izango zela guztiz konbentziturata, garbitutako arropa zintzilikatzean edo jasotzean beti erori ohi zitzaion barruko jantziren bat itzultzeko edo, Carlak atea parez-pare ireki zuen ezezagunekin topatzeko inongo beldurrik gabe.

–Barkatu, kaleko atea irekita zegoen eta... honelako eguraldi zoragarriarekin ez zinela egongo pentsatu dudanez, gutun hau ate azpitik uzteko igo naiz, baina aurkitu zaitudanez... Bere edukia aurrez-aurrea azaltzea

nahiago nuke, baimena ematen badidazu, noski...

Carla guztiz ahul sentitu zen atzerriko doinuaz konfidantza handiz hitz egiten zion gizon ezezagun baten aurrean. Bere zuhurtasunik ezaz jabetu zen; nahiz eta, egindakoa egin ondoren, mutu gelditu zen, adin ertaineko gizon horri finko begira, atea ixteko asmatu gabe, zentzugabeki honelako zerbait pentsatuz: “ez da ilehoria genetikaren kasualitate batengatik bakarrik”. Bere azal beltzaranaren tonuaz ere jabetu zen, garaiz kanpoko udako urre kolorekoa. Eta segundu batzutan egon zen galduta begi urdin horietan; zeintzuk bere burua ispiluan begira bezala sentituarazten zioten, bere begien kolorearen desberdintasunarengatik izan ez balitz. Erreakzionatzen zuen bitartean, konturatu zen zer konfidantzarekin hitz egiten zion gizon hark; eta halako goxotasunez egiten zuenez, ezin zuen zabar edo defentsa moduan jokatu.

–Zure amaren aho eta ile berbera dituzu, ederra zara...

Esaldi hau entzutean, Carla ametsetik esnatu eta, bere bisitariak baino goxotasun gutxiagorekin, mintzoa berreskuratu zuen zorrotz erantzuteko:

–Oso ondo ezagutzen duzula ikusten dut, Stüdner jauna. Nire amak bidali bazaitu gutun bat uzteko, ba... Ez nekatu bere edukia azaltzen. Pribatuan irakurriko dut astia dudanean. Orain dei bat egin behar dut, desenkusatzen banauzu...

–Oh, ez, ez. Gutun hau ez da zure amarena. Berak ez daki hemen nagoenik ere. Bartzelonara hegazkin-zubian etorri naizela bakarrik daki, Estokolmorako bidean.

–Eta orduan gutuna norena da? Ez dut ezer ulertzen...

–Momentu bat emaidazu, mesedez, eta lasaitasunez azalduko dizut. Gutun hau zurea dela aurreratzen dizut bakarrik. Duela hogeita hamahiru urte, bi hilabete eta egun bat da zurea. Baina ni joatean irakurtzeko erregutu nahi dizut.

Carlak lan kontu baten eskaria baztertu zuen, eta berriro ere arrotz sentitu zen hitz horien aurrean. Oso garbi zegoen sarkin hark datu pertsonalak zituela berari buruz, baina dagoeneko ez zuen erakarmena sentitzen, nahasmena baizik. Senak gizon hori entzun behar zuela esaten zion, baina bere bat-bateko amorrazioaren erregistroak tonu garrantzean jarraitzeko agindu zion:

–Ongi da, baina laburra izatea eskatzen dizut. Hogei minututan gehienez atera behar dut etxetik. Egongelara pasa zaitzez, berehala egongo naiz zurekin.

Apur bat deseroso eta urduri, Carla sukaldera zuzendu zen, non telefonoaren luzapen bat zeukan, eta hiru aldiz jarraian markatu zuen Juanen etxeko telefonoa. *Baina linea beste dei batekin hartuta zegoen. Jainko maitea, nolatan ez duzu deia itxaronaldian?! Suitzarra bota bezain pronto, mugikorrera deituko dizut jaitsi bitartean, laztana.*–Esan zion bere buruari Carlak, ezusteko

haren inguruan Juan abisatzeko ahalegina utzirik.

“Bizitzaren krisiak” obraren egilearen aurrean eseritzean, Carla larri sentitu zen entzun zituen lehenengo hitzen zurrean:

–Begira, labur izaten saiatuko naiz, baina esan behar dizudana aspaldi-aspaldikoa da... Eta ez da erraza niretzat... Eta are gutxiago izango da zuretzat... Beno, ez dut itzulinguru gehiagorik egingo. Nire hogeita bi urterekin, nire karrera egiteko Londresera joan aurretik, amonak oparitu zidan bidai batean, gazte munduan 68an jaio zen aurrekaririk gabeko iraultza irakiten ari zen oraindik. 1977a zen, eta ni Balear Uharteetan lurreratu nintzen garai eta toki horretan oraindik dena apaintzen zuen musika, maitasun, bake eta loreen festan murgiltzeko gogoz. Begira, gazte suitzarrek, gainera, Espainako eguzkia eta emakumeekin amesten genuen, haur txikiek Errege Egunarekin baino gehiago. Egun batean, Ibizan, nire bizitza osorako bihotza laputu zidan emakumea ezagutu nuen. Zurrunbilo bat zen, emakumeen eskubideen aldeko oso borrokalaria, baina hain femeninoa, non bere munduan galdu nintzen; berak gure lotutari bukerak eman nahi zion arte. Ni prest nengoen nire abentura bidaia, nire karrera, nire familia, eta edozein gauza uzteko bere ondoan gelditzeko. Baina bera gizon baten menpe ez egoteko ideiarekin tematu zen. Biok ginen apur bat ergel eta oso gazte. Eta ni hisiz joan nintzen. Baina ez nintzen inoiz guztiz pozik egon izan. Aztarna galdu nion duela urte pare bat arte ...

Entzunaldiaren garai horretan, Carlak aharrausika egotearen plantak egin zituen eta, orduan, Stüdner jauna bere kontakizunean galduta sentitu zen. Bere aurpegiak beltzaran-kolorea galtzen ari zela ematen zuen eta bere begitarte lasaia garratzasun keinu batean desagertu zen.

–Agian hobe izango da nirekin daramadan gutuna utzi eta oraintxe joatea. Baina utzidazu bukaera eransten, egitan hasiera izan dadila espero dudana bukaera. Esan nahi dizut, denborarekin, nire bihotzeko espainarrarekin oso desberdina zen beste emakume bat topatu nuela. Nire lurraldean izan zen. Ezkondu eta bi seme izan nituen: Rudy eta Carl. Baina hura komeniko ezkontza izan zen, besterik gabe. Pertsona askok gure familia, gure gizartearen nahia bete ohi dugu eta logikoa den bezala, orokorrean mota horretako loturak ez dira ondo ateratzen. Oso gazte ere dibortziatu nintzen. Arrakasta ekonomikoak gizon errealizatuaren irudia lortzen lagundu zidan. Baina maskara bat, besterik ez zen. Hamar urte pasa nituen negozio bidaietan eta plazer hutsaletan nire gazte denborako uharteak saihestuz, nire burua ikartzeko modukoa edo behin izan nintzen benetako ilusioz beteriko gazte harengandik oso desberdin ikusteko beldurrez. Baina zorionez, hamar urte horien ostean, Formenteran kokatu ahal izan dut nire burua. Eta han zure ama aurkitu nuen. Nire azken liburua idatzi eta nahi izan nuen zuk...

–Sentitzen dut, baina garbi gelditu da ez dudala negoziarik egiten beste norbaiten bitartekaritzaren bidez. Eta are gutxiago nire ama eta bere istoria pertsonalen bitartez.

Garbi dago zu, Stüdner jauna, istoria horietako bat zarela, eta nik ez dut zerikusirik horrekin. Desenkusatzeko eskatzen dizut baina konpromezu bat hartu dut eta ez dut berandu heldu nahi. Sentitzen dut, ez hartu zerbait pertsonaltzat, baina ez dut zure bizitza entzuten jarraitzeko betarik...

Enpresari arrakastatsuak ondoezik ematen zuen, ez zuen zutik jartzen bukatzea lortzen, bere itxura penagarria zen eta bere esku zabalduak agure batena bezalakoak dardar egiten zuen.

–Gutun hau irakur dezazula bakarrik eskatzen dizut. Nik Prat-era itzuli behar dut eta nire bidaia jarraitu. Zuri traba egiteari utziko diot, sentitzen dut. Benetan sentitzen dut... Denok denbora baino askoz gehiago galdu dugu...

Carlak errudun sentimenduarekin hartu zuen gutuna. Gizon horrek ez zuen itxura onik, garbi zegoen zerbaitengatik ari zela sufritzen, eta bera oso zakar izan zen. Agian horregatik, Olaf Stüdner agurtzean, bere atzerapenean bost minutu gehiagok eragina izango ez zutela pentsatu zuen. Berriz eseri zen besaulkian, Juanenganantz desenkusatzeko pentsamendu bat luzatuz, eta beldura eta jakinminaren nahasketa pixka batekin, bere amaren lagunari atsegin ematera prestatu zen.

Gutunazal barruan, Ibizako ilunabar baten argazki

tipiko bat zegoen. Hamar benetako *hippie* talde bat besoak altxatzen ari ziren, hatz erakusle eta nagusiarekin garaipenaren V-a eginez. Carlak oso gainetik begiratu zuen argazkia eta albo batean uzti zuen gutuna irakurtzen hasteko.

Bi ordu beranduago, leku berean zegoen, ozta-ozta arnasaten zuen estatua bat bezala. Gutuna bere gona gainean eta eskuak lasaiegi besaulkiaren panaren gainean.

Poliki, argazkia hartu zuen berriro zehaztasunez begiratzeko. Orduan bere ama ezagutu zuen irudiaren erdian. Bikini txiki-txiki batek, bi bitxiloreekin bere bular handiak ozta-ozta estaltzen, haurdunaldi aurreratuaren sabel eder bat agerian uzten zuen. Gazte bat, ile marroi oso luze eta begi argiekin, Sofia Sarrasquet-en atzean azaltzen zen eta bere sabela besarkatzen ari zen, bere ia nerabe aurpegian maitasuna margoturik.

Maitasun eta gazte idealez inguraturiko haurdunaldi batean pentsatze hutsak, ixilean negarrari eragin zion Carlari. Malkoek aurpegia estaltzen zioten eskandalurik gabe, larritasunik gabe, ahaleginik gabe. Bere begietatik ateratzen ziren soilik, iturri bizigarri bat bezala. Gutxienez, dagoeneko ez zuen bere bizitza gehiegikerien gau baten ondorio moduan sentitzen.

Tarteka, Olaf-en dardara gogoratzen zuen gutuna

ematean, eta ulertu zuen berari ere bere aitatasuna kendu zitzaiola. Bere ama gorrotatzen zuen horregatik, eta baita Olaf ere, bere bi neskak bilatzeko gehiago borrokatu ez izateagatik. Baina ezinikusirik gabe besarkatu ere nahi zuen. Emozioak bata bestearen atzetik pasatzen ziren munduko ezertarako eta inorrentzako tokirik utzi gabe, ezagutu berri zuen errealitate horretako zati bat ez bazen. Bere sorkuntzaren hirukiak azkenean bere hiru zatiak erakusten zituen, bere bizitzaren istoria puntu zaharrak desegiten ari zen, berriz ere ehuntzeko; oraingoan bilbe bero eta sortzaileago batekin, nahiz eta ez erabat itxirik txikitatik arrastaka zeraman gabezia zaharra berotzeko.

Gosea orainaldira ekartzen hasi zen, eta orduan arratsalde osoan bildu zuen ixiltasunaz jabetu zen Carla. Eguzkia aurreko ereikuntzen atzean ari zen erortzen eta tristuraz Juanek ere ez ziola deitu pentsatu zuen. Telefonorantz joan zen eta zalantza izan zuen:

Egia esan ez dakit norekin hitz egin nahi dudan, nire amarekin, Juanekin, Mirandarekin, edo... Arraioa, nola hazten ari da familia! Nire anaien ahotsa ere ezagutu nahiko nuke eta... Nire aitarekin desenkusatu nahiko nuke hain zakar izateagatik... Edo bakar-bakar ziurtatzeko, nahi badut, nire aitari deitu ahal diodala – ari zen pentsatzen Carla entzungailua altxatu gabe.

Azkenean, bere baitaratzea errespetatzea eta apur

bat asmatu-irudiz betetako ixiltasun horretan egotea erabaki zuen.

Une horretantxe, bere elikagaien beharra asetzeko martxan jartzea lortu zuen. Baina zuzenean hozkailura esnearen bila bakarrik joan zen, eta katilu handi batean berotu zuen. Gero, gaileta goxo birrinduak eta kakao hauts piska bat erantsi zituen. Katilua erretilu batean jarri eta, zortziak baino lehen, ondo estalita zegoen, jaten mastekatu beharrik gabe eta lo egiteko zorian bere alboan ipini zuen argazkiaren ondoan, ohearen beste buruko gainean.

24. gida

Nire adina bost urtekoetan banatzen badut, abalorioak balira bezala... Lotzen saiatuko banintz, lepoko bat bezala, nire oroitzapenen hariarekin...

Hutsuneak al daude nire oroitzapen emozionalean?

Nire hutsune existentzialekin zerikusia al dute?

Nor naiz ni?

XXV. kapitulua

Heroi bakoitzari bere “kriptonita” heltzen zaio

Igandearen tarte luze batean, Juan, Carla bezala, ozta-ozta arnasten zuen estatua bat bezala egon zen, bere egongelako besaulkian eserita, baina negar egin gabe. Aitzitik, begiak txikitzen zitzaizkion keinu liskarti batean, ahoa izkurtzen ziona; objetibitatearekin batera. Juan ez zen maiztasunez denbora luzean geldirik egoteko gizona. Oso gutxitan deprimitzen zen. Egia esanda, ahalamenik gabe utzi zuen bidegabekeria sentsazio batek zapalduta sentitzen zen.

Bi iruzur moral igande bakar batean –Errepikatzen zuen noiz behinka, ahots behera eta burua mugituz. Horrela egon zen arratsaldeko hirurak arte, eguzki eta paellako egun bat bizitzeko itxaropena bukatutzat eman zuenean, Carlarekin adostu zuen bezala.

Lolik hierarkia postu bat nahi du...? Eta beste

“honek”... niri zer saldu nahiko du? Edo neu naiz motorra erosi zuena? –Asmo gaiztoko galdera horiek ahoskatu bezain pronto; halako amorrua sentitu zuen, non besaulkiaren kuxinek hegan egin zuten indarrez sarreraren jarroiraino heldu arte, txiki-txiki eginda geldituz zoluaren gainean. –Beste zoritxarren bat aurreikusi duzu niretzat gaurko egunean? –Oihukatu zuen oso histrionikoa, burua eta besoak altxatuz Jainkoarekin diskutitzen ari balitz bezala.

Astronauta! Une honetan hori izatea gustatuko litzaidake eta hauek guztiengandik argi urteetara egotea! Eta ni ergel bat bezala haiengatik urtzen! Gainera gosez akabatzen nago. Eeeeez... agian orain lasai asko egongo da Villa Olímpica-n, izkira bat zurrupatzen daukan infernuko aho horrekin! Orain baietz argazki bat aterako niokeela neure buruari izan behar dudan babo irudia sekulan ez ahazteko! Costa Dorada! Zer, oraindik ez dakizu zein diren Errege Magoak, Juantxo? Alfa! Alfa hutsa da... Ba al dakizu zer? Eser zaitez Gracia Pasealekuaren terraza batean euskal pintxo on batzuk dastatzera eta... Ikuspegiarekin atsegin hartzera, motell! Hortik berrehun bonboi minutuko pasatzen dira-eta, eta ez duzu arima biluztu behar...

Juan gaizki esaka ari zen bere zauriaren neurriaren zuzenki proportzionalki. Eguzki betaurrekoak eta kotxeko

giltzak hartu, eta Gracia Pasealekurantz abiatu zen bere sabela eta bere isileko ehizaren egarriarekin kunplitzeko.

Arratsaldeko bostetan, oraindik mahai libre bat ari zen bilatzen etsituki, eta bere sabelari ikusmenaren plazerrekin bat etortzea oso gutxi axola izaten hasi zitzaion. Juanek zutik bazkaldu zuen, paseko hegazki koloretsu eta eskandalagarriak betetako fast food batean, non haien zalapartan, esnegainezko izozki bat bota zuten bere ante larruzko mokasin gaien. *Hobe etxera itzultzea eta Godo Saria satelitez ikus ezazu, inork ezta begirada ere zuzendu gabe.* –Pentsamendu horrekin, Juan kotxera itzuli zen, “pilak kargatu” beharrean bere azken energia eskuragarriak xahutu berri zituela sentituz.

Etsituta, bere pisuan sartu zen eta zuzen telefonora abiatu zen. Baina ez zegoen mezurik. Tapakia hartu eta ahal bezain ongi egokitu zen telebista aurrean. Bere buruari atsedean piska bat eman eta bularrak larritasunez hasperen egiteari utziaz behar zion.

Kirol saioarekin apur bat gogortu ondoren, zapping egiten hasi zen tarte luze batez berriz harrapatuko zuen beste programa baten bila. Azkenean, zinearen klasiko handien kanalean, ikustea beti gustatzen zitzaion pelikula bat aurkitu zuen: *“Zu eta ni”*. *Horiek ziren maitasunak!*

–Esan zuen Juanek bere baitatik eta bere nahietatik apur

bat hurbilago. Eta malenkoniatsuagoa ilusionatua baino, tapakitik atera zen ogia, gazta mantxegoa, hestebeteak eta ostiralean irekitzeko zorian gelditu zen erreseba zahar botila baten bila.

Zoritxarreko istripu batek galerazten zion *Devorah Kerr*-i *Empire State*-ra heltzea, non pantaila handiaren zita erromantikoenetako bat gertatuko zen. Juanek bere arreta enpatikoa galai frustratuarengan bakarrik jartzen zuen, arrakastarik gabe bere maitalearen zain, bakar-bakarrik, New York-eko ereikuntza enblematikoaren gailurrean. Azkenean, negar zotin antzeko pare bat askatzea lortu zuen, bere sudurra paperezko ahozapietan zaratatsu zintz egiten disimulatu zituenak.

Eszena berbera, Juanen negar zotin ezkutuen, errepikatu zen *Cary Grant*-ek, pelikularen galaiak, bere maitalearekin elkartzea lortzen zuenean denbora tarte bat beranduago, bat ez etortzea argitzeko ilusioarekin. Orduan, axolagabekeriaz eta zakarkeriaz izan zen tratatua; eta gainera, benetako zirrara biribiltzeko, bere burdinezko dama faltsua orain gurpil aulki batean dagoela abailduta aurkitzen du; eta kupida ez ematea saiatzen ari zen edo, beharbada, bere maitalea askatzen bere egoera fisikoak ekarriko zion zamatik, biek maitasunari heltzen bazioten. *Arraioa Cary! Bai garela arima bixkiak! Zer zorte txarra izan dugun, txo! –Zioen Juanek ahots goraz telebista itzaltzen zuen bitartean.*

Bitxia izanda ere, Hollywood-eko tragediak Jorgerengan pentsatuarazi zion berriro. Egia esanda, Cary, antz handiagoa daukazu mister coachekin nirekin baino... Haiek aurrera jo zuten tragediarekin eta guztiz... Beno, nahiz eta Luciak orain dibortzioa nahi duela uste dudana... Eta hori Lolirekin izandako abenturaz ezer ez jakin arren... Berdin-berdin, txo, Lucia Devorah Kerr bezalakoa da! Izan ere... benetan maite du, jakina, horregatik eskatzen dio dibortzioa! Hau emakumea!... Jorge gajoa, ni baino inozoagoa da... Nola ez zen, ba, Loliren sareetan ereriko? Loli, Loli peperoncino , bai piperduna atera zarela, txikitxo! Zer egingo dut zurekin, eh? Ez da diru kontu bat... Salmenten eragingarriekin taldeko buru batek baino gehiago irabaztera iritsi zintezke...Ez, nahi duzuna ez da dirua. Baina salmenta talde baten liderra izango bazina suposatuz... Gero zer? Ez nago ziur denbora luzerako etsiko zinenik... ez da nahastuta egongo?... Bihar seriozki kontsultatu behar dut zure izaerari buruz. Miranda Lynchek bezero bat irabaz dezakeela uste dut...

Gaueko hamaiketan, Juan Ribaud Superman ekinean sentitzen zen. Mahaian eserita, galderak idazten ari zen jokabideaz, emozioen trataeraz lan eremuan, gatazken konponketaz, eta beste hogeit bat kontuez. Galdera guzti haiek, bost egun lehenago bere lan eremutik guztiz bereizita iruditu zitzaion lanerako eremu interesgarri batean sartzen zuten.

Antolatu berri zuen lan bilerarengatik harro

hausnartzen ari zen bitartean, besaulkiaren hanka ondoan ditziratzen ari zen zerbaitek arreta deitu zion. Zeramika beltzaren beste puska bat topatuko zuela guztiz ziur makurtu zen baina, objektu txikia altxatzean, ezpainenako margo bat aurkitu zuen. Karey estalkia kendu eta, oinarria biratzean, pipil antzeko zerbait azaldu zen; purpura, tinkoa, punta biribila eta erabilerarengatik apur bat zeharkarekin. Une horretan, Juani afaldu aurretik Carlaren oroitzapen guztia azaldu zitzaion gorputzean.

Baina, piska bat lehenago identifikatu zen super heroï famatuari “kryptonita” euri bat erori izan balitzaio bezala, denak atzerantz egin zuen berriro. Bere aldarteak ere bai. Ezpainenako margoak ere bai. Izan ere, une purpura horretantxe, Juanek *Empire State* gogoratu zuen berriro. Baina oraingo honetan, ez gailurretik, ez bere aktore gogokoenaren begietatik, begirada ereikuntzaren azken pisuan jarria duen kalea zeharkatzen ari den damaren begietatik baizik. Eta orduan, lehengo aldiz igande osoan, Carla Sarrasquet-i zerbait gertatu izanaren aukera ikusi zuen ...*Mesedez, ez dadila hori izan, ez dadila ezer larririk izan! Nolatan ez nion deitu nola zegoen jakiteko! Nola mesfidatzu nintzen hainbeste neure pertzepzioez, gure topaketaz* –Hasi zen agirika eginez Juan, eta ordua ikustean zur eta lur gelditu zen berriro besaulkian. Beranduegi zen dei baterako. Orain, eutsi behar zuen sentitzen zuen hutsune sentsazioan. Ez zion gehitu nahi jokabide larria eta zuhurtzigabea gauerdiko garai horretan.

Hobe izango da Miranda Lynchi egiteko hainbat galdera gehiago gehitzen badut. Adimen emozionaleko kontu hau interesatzen hasi zait benetan. Gaur asto galanta izan naiz kontu honetan... Zama emozionaleko astoa bah... Nire zamaren aldaera onartzen ere ez dudala jakin uste dut. Bilera baino lehentxeago astoa izateari utzi behar diodala uste dut...

Juanek pijama jantzi , aurreko asteartean Miranda Lynchek emandako karpeta bilatu eta, Clark Kent bezala, ikasgaia irakurtzera ohera joan zen lo egin aurretik.

25. gida

Nola erantzun ohi dut haserre eta frustrazioen aurrean?

Ba al dakit emozio mota hori identifikatzen eta onartzen?

Distrazioa edo kontzentrazioa bilatzen ohi dut?

Baimena ematen diot neure buruari emozio hauek bizitzeko, modu naturalean atsedena hartzen uzten, distantzia emozionala jarri ahal izateko eta, gero, ekintzen aurrean egokia den jarrera hartu?

II. ZATIA

“Mirandaren oharrak”

XXVI. kapitulua

In-formazioa formazioa-n

Juanek Adimen Emozionaleko jardunaldian eman zioten karpeta hartu zuen, eta “Mirandaren oharrak” bezala bataiatu zuen, nahiz eta errealitatean, “Miranda Lynch-en mintegian hartu nituen oharrak” esaldia laburtu zuen.

Karatula biratzean, eta ongi etorri moduan mintegiaren arduradunak sinaturiko testua ondo ez ikustean, Juanek Mirandaren ahotsa bere barruan durundatzen sentitu zuen:

Nola eta zertarako garatu gure AE

Ikasketa berriak eskuratzeko, autoezagutza barne; lehengo, ikasteko nahiarekin konpromezua hartu behar da.

Bigarrenez, metodologia egokia jarraitu, esperimentatzen ausartzeko; izan ere, ikasketa erreal eta esanguratsu guztien pausuak hauek dira:

1- Esperientziatu

- 2- Esperientziari buruz hausnartu
- 3- Kontzeptualizatu (hausnarketa horretatik kontzeptu egoki bat atera) eta, azkenik,
- 4- Kontzeptualizatua praktikan jarri.

Gogora dezagun ekintzan bakarrik gauzatzen dela ikasketa.

Gaur elkarrekin bizi eta ereikiko dugun jardunaldiari buruzko zuen apunte edo ohar pertsonalak irakurtzean, honako hitz hauei buruz hausnar dezazuela nahiko nuke:

“Gizabanako bakoitzaren barruan sortzen den eraldaketak ez du bere patua bakarrik aldatzen, baita nazio oso batena ere; eta, areago, gizateria osoarena ere bai”.

(Daisaku Ikeda, Giza iraultza bere liburuaren prefazioan).

Miranda Lynch

–...Baina kuxin bat gehiago jarriko dut eta fruta plater bat zerbitzatu pikatzen joateko irakurtzen dudun bitartean

–esan zuen Juanek ahots goran, bere sentsazio eta nahiei arreta jarritz.

Irakurketari berriro heldu baino lehen, lasai zegoela sentitu zuen. Autokonfiantza gehiagorekin ahal izan

zuen, era berean, besteei konfiantzazko boto bat eman. Ziur zegoen Carlak azalpen bat izango zuela bat ez etortzearentzat. Ameskeria tragikoen edozein hodeitzar baztertu, eta lasaitasunez argitzeko egoera azaltzeko une egokia itxaron zezakeela sentitu zuen.

Berriro ere ohean eroso kokatu zen, zatitutako fruten platera mesanotxe gainean ipini, erlojuari begira eta denbora askoan zehar ezin izango zuela irakurri kalkulatu zuen. Nekatuta sentitzen zen.

Pixkanaka-pixkanaka, logureak otzanki hartzen zuen bitartean, Juanek jakin zuen bere gorputzaren zelula bakoitzean kanpotik jasotako informazio guztia bere barruan berezko ezagupenen gorputz berri bat osatzen ari zela.

DINA4 batzuk irristatu ziren izaretatik alfonbraraino, eta horrela egon ziren gau osoan, barreiatuta Juan bezala, ahoz gora, zorte onean edo txarrean baino zerbait gehiagotan uste osoa izaten.

NORBERAREN DATUAK

Errealitatea = hitzarmena, akordioa, onartutako esanahaiak: zeinuak, zenbakiak, hitzak; giza ohitura normal-izatuak (normal = norma bihurtzen dena), etab.

Eredu mentala : zentzumen, uste, arrazoitzeko arau, inferentzia, etab.-en multzoa, zeinek errealitateari buruz interpretazio zehatz batzuk eginarazten dizkigun; hortaz, mundua = nire mundua eta errealitatea = nire errealitatea... (ergo, egia = nire egia).

Talmud-en arabera: "gauzak ez ditugu diren bezala ikusten, gauzak garen bezala ikusten ditugu" (Nolako a naiz?)...

Normalean gure pentsatzeko erarekin identifikatzen gara. Prozesu razionalak hainbeste hierarkizatzen ditugu, non (bizitzan) "buruarekin" eusten garela uste dugun. Horrela joaten gara gure zentzumena oztokatzen, ezagut ditzakegun emozioen aukera murrizten, gorputzari (naizena) jaramon ez egiten, beharrak aintzat ez hartzen eta, ondorioz, haiek asetzea gu eragozten.

Emozioak modu egokian kudeatzen ikasteko, lehenengo ahal izan behar dugu (hurrenkera honetan): ezagutu, baliodundu, adierazi eta neurriko erabakiak hartu.

NORBERAREN DATUAK

Emozioak gure erabakien eta ekintzen motorra dira. E-motiboa motibatzen gaituena da. Emozionatzen ez baldin bagara, ez gara motibatzen. Gure bizitza, gure harremanak, gure erakundeak gris bihurtzen dira, ez sortzaileak, garapen askiesgarria izateko motelak edo ezinduak.

Emozioek fisiologia eta funtzio bat dute. Horregatik funtzionalak edo disfuntzionalak dira. Difuntzio emozionalean, bere fisiologia (gaizki bideratuta) sintoma eta gaisotasun psikosomatikoen parte izaten pasatzen da (lan eremuan gar-rantzitsuenetakoa: stress jarraitua).

Prozesu emozional baten adibidea:

Berezko segida	Funtzionala	Disfuntzionala
Pertsona bere inguruarekin harremanetan	Esnaturik, bere inguruarekin lotua	Besteratua, bere inguruarekin gutxi lotua
Sentsazioa	Hautemana	Ez hautemana
Emozioa	Ezagutua	Ez ezaguna
Sentimendua	Onartua	Nahastua
Beharra	Garbia	Ez ezagutua ez onartua
Ekintza	Neurrikoa = atsegina	Anbibalentea, moteldua, ez neurrikoa = desatsegina

NORBERAREN DATUAK

Bai zientzilariek bai humanistek adostu dute gutxienez bost emozio oinarrizko eta unibertsalak direla (ugaztun guztiak sentitzen dituzte), fisiologia berezi bat dutelako funtzio biologiko berezi batentzat; guztiak espeziearen biziraupenaren helburua partekatzen dutelarik.

5 emozio oinarrizko eta unibertsalak hauek dira:

Beldurra - Maitasuna - Tristezia - Haserrea -
Poza

Emozio hauen bitartez, behar edo nahi batekin kontaktatzen dugu, eta gure burua asetzeko aukerarekin. Modu honetan, autoerregulatzeko gure gaitasun organikoa esnaturik mantentzen dugu.

"Beharra" horrela defini dezakegu: ez asetzekotan gure existentzia arriskuan jartzen duen guztia.

Hemen gauden guztiok bizirauteko oinarrizko beharrak asetzen dituen gizarte baten partaide garela kontutan harturik, zuzena izango litzateke "oinarrizko beharrak" adierazpena, "oinarrizko atsegingarriak" ideiarekin ordezkatzea.

Inguru honetan (Europa - Espainia - Barcelona - AE mintegia - pertsonak aginte eta erabakitzeke postuetan), autoerregulatzeko gaitasuna, maila sotilago batera eramanda, harremanetan dago ez

NORBERAREN DATUAK

biziraupenarekin, elkar-bizitzeko kalitatearekin baizik. Eta hori da, gaur egun, gure plataforma garapen iraunkorretzat.

Itzul gaitezten, bada, oinarrira, gure emozioekin modu funtzionalean elkar-bizitzen (emozionatzen gaituenarekin bizi, besteekin bizi) ber-ikasteko plataformara:

<u>BELDURRA:</u>		
beldurraren fisiologia eta funtzioa babesa lortzeko da		
Funtzionala	Disfuntzionala	
<p>Balio du ebaluatzeko ea "ahal dudan" (aurreratu-aurre egin), edo hobe "ihes egitea" (baina ez "itsatsita" geratu, geldirik. Izan ere, emozioa = ekintza baterako energia) Alarma bat da</p>	<p>Gehiegizkoa bada, ingurua zerbait mehatsugarri bezala hautematen dut, nahiz eta horrelakoa ez izan. Gaitasun gutxi inguruarekin aurrez aurre jarri eta harremanetan jartzeko. Kausak: segurtasun beharra betea ez izatea, edo bere aurkakoa: gehiegizko babesa. Ezaugarriak: fobiak, antsietatea, paranoiak</p>	<p>Ukatua bada, edo gutxi sentitua, edo ez betea: Ez dakit arriskuak ebaluatzen eta egoera arriskutsuetan jar naiteke. Kausak: indartsu eta segurua iduri nahi izatea. Ezaugarriak: kontra fobia (pertsona erronka jotzaileak, hotzak, jarrera gogorra)</p>

NORBERAREN DATUAK

Gazelak ihes egiten du, zezenak oldartzen du, kakalardoak hildakoarena egiten du eta hotsoek otzantasun keinuak egiten dituzte ar menderatzailearen aurrean. Gizakiok erantzun hauek trebeki nahasten ditugu.

(J.A.Marina)

MAITASUNA:

Maitasunaren fisiologia eta funtzioa haremanetan jartzeko da, lotura atseginak sortzeko.

Funtzionala	Disfuntzionala	
<p>Loturak sortzeko da. Solidarioak, bigunak, maitagarriak, empatikoak, ulerkorrak, eskuzabalak izateko, maitasuna eman eta jasotzeko, etab.</p>	<p>Gehiegizkoa bada, ez dakit harreman atseginak eta atseginak ez direnak bereziten. Kausak: autoestimua baxua, bakardadeari beldurra, bertan behera uzteagatik zauriak. Ezaugarriak: elkar mendekotasuna, depresioa, beste pertsona batekin sinbiosia</p>	<p>Gutxitua edo gutxi sentitua bada: konpromezuari beldurra edo arbuiatzea, (harreman sexualak sortu baina ez emozionalak!!!). Kausak: bertan behera uzteagatik zauriak, familiako eredu murriztaileak, "inbaditua" sentitu Ezaugarriak: isolatzea, maniak izatea, "ez mendeko" egia izatea</p>
<p>Maitasunaren paradoxa da norbera izatea, bi izaten utzi gabe. (Erich Fromm)</p>		

NORBERAREN DATUAK

TRISTEZIA:

Tristeziaren fisiologiak eta funtzioak introspekzioa egiteko balio du.

Funtzionala	Disfuntzionala	
<p>Hausnartzeko balio du aurrera jarraitu baino lehen. Doluak egiteko, bukatu gabeko egoerak ixteko.</p>	<p>Gehiegizkoa bada, espektatiba maila oso altua daukat, zorrotza naiz eta ezerk ez nau betetzen.</p> <p>Kausak: galerak eta etsipenak sarritan.</p> <p>Alaitasunarekin kontaktu gutxi.</p> <p>Ezaugarriak: garratzasuna, sortasuna, besteekiko arduragabekeria, ezkortasuna, atsekabea...</p>	<p>Gutxitua edo saihestua bada, nire buruarekin, bakarrik, egoteko ezgaitasuna edo beldurra.</p> <p>Kausak: tristezia adiurre falta edo ahultasun bezala hartzea.</p> <p>Ezaugarriak: fribolitatea, azakeria...</p>

Minari hitzak eman, hitz egiten ez duen penak bihotz zamatuegiari xuxurlatzen dio eta apurtzera gonbidatzen du. (W. Shakespeare).

NORBERAREN DATUAK

<u>HASERREA:</u> Haserrearen fisiologia eta funtzioa defentsarako da.		
Funtzionala	Disfuntzionala	
Mugak jartzeko balio du, eta horrela lotura osasungarriak sortu eta gordetzeko. Fisikal/ sentimentalki indarrez hartua izatea saihesten du.	Gehiegizkoa bada, joera izaten dut bortitza jartzeko eta erasotzeko/ indarrez hartzeko, defendatu beharrear. Kausak: afektu onen falta edo afektu mugatuak. Balore sendoak gutxi garatuak. Ezaugarriak: haserre bizia, suminkortasuna, antisoziala, sadismorako joera...	Gutxitua, edo saihestua bada: muga egokiak jartzeko eta norberaren burua defendatzeko ezintasuna. Kausak: beldurra, segurtasun falta, norberaren indarrari beldurra. Ezaugarriak: biktimismoa, koldarkeria, erredumina...

Ez nahastu sua aizto batekin. (Pitagoras)

NORBERAREN DATUAK

<p><u>Poza:</u> <u>Pozaren fisiologiak eta funtzioak bizitzeko energia berritzeko balio du.</u></p>		
<p><i>Funtzionala</i></p>	<p><i>Disfuntzionala</i></p>	
<p>Gure energia erregulatzeko balio du. Honako sentimenduak errazten ditu: itxaropena, miresmena, alaitasuna, motibapena, askatasuna, gozamena, etab.</p>	<p>Gehiegizkoa bada, mina edo atsegin ez zaidana ukatzeko joera izaten dut. Kausak: sufrimendu gehiegi (eta hori ukatzea), edo azaleko edo naïf giroetatik etortzea. Ezaugarriak: arazoak txikiagotu, "atsekabeak hoztu", ahalguztetasuna...</p>	<p>Kontaktua baxua bada: nire energia ere baxua da. Kausak: tristeziarekin gehiegizko harremana. Ezaugarriak: ezkortasuna, sortasuna, motibazio falta.</p>

Maitasuna inguratzen gaituen guztiaren azken esanahia da. Ez da sentimendu hutsa, egia da, sormen guztiaren sorreran dagoen poza da. (Rabindranath Tagore)

NORBERAREN DATUAK

~~Gure disfuntzio askok gure eredu mentalen ereikuntzan dute sorrera eta gure garapena oztopatu edo galgatu egiten dute. Honek bai pentsonentzat bai erakundeentzat balio du.~~

~~Korak koloreko ahoa duenari tel eskatu~~

Galderen txanda:

- (betaurrekoteena): Informazio gehiago eman ahal zeniguke gure eredu mentalak ereikitzeke moduari buruz?

- M.L.: Hori jardunaldi osorako gai izango litzateke... baina gure emozioen ezagutzaren hurbilpen honen testuinguruan, esan dezaket 3 puntu garrantzitsu daudela kontutan hartzeko, gure garapena zerk galgaten duen berrikusteko orduan, gure eredu mentaleren inguruan:

Introiektioak (masteakatu eta liseritu gabe irentsi ditugun" besteen" gauzak: aginduak, ideiak, "beharko zenuke..." pila bat),

automatismoak (askotan garai batean erabilgarriak eta eraginkorrak izan ziren jokabideak baina zaharkituak daude), eta iraganeko amaitu gabeko egoerak.

- Ni: Terapia usaina hartzen diot... (irritxoak)

NORBERAREN DATUAK

-M.L.: Aurreiritzi usaina hartzen diot... Esaidazu Juan, zu gimnasia joaten al zara?

-Ni: Bai, sasoiaren egoteko entrenatzen dut: "mente osasuntsua gorputz osasuntsuan"...

-M.L.: Hori oso ondo dago, ariketak oxigenoa ematen diolako garunari eta hobeto funtzionatzen du. Emozioak garunaren funtzioak direla gogoratzen dizut... Beno, zure komentarioa errealitatean galdera bat bada, nik esango nuke hainbat terapiak eta disziplina batzuek, coaching adibidez, entrenamendu ona ematen dutela bizitza osasungarriarentzat, baita emozionalean eta jokabide alorrean ere.

-(Nire eskubiko ilehoria): "Hainbat terapia" esaten duzunean Gestalt-i buruz ari zara?

-M.L.: Horixe! Ikuspuntua ezagutzen duzula somatzen dut. Norbaitek esan zuen Gestalt terapia onegia dela krisialdi pertsonal egoeran edo disfuntzio emozionalak dituzten pertsonen bakarrik aplikatzeko... Pedagogiatik asko dauka, ikuspegi klinikoaz gain. Emozioen ikasketa eta entrenamendu ona eskaintzen du, komunikazioa, motibazioa, sormena... Laburbilduz, gure kontzientziaren zabalpena. Beste aldetik, coaching-ek ere betetzen duen gaia...

-(Ingelesa): Nire nazioak coaching alorreko aitzindari bat eman du eta kirol entrenatzaile bezala hasi zen...

-M.L.: Arrazoi duzu, Jim, Sir John Whitmore-z ari nintzen. Bere ikuspegia guztiz humanista da, ikuspegi gestaltikoa bezalakoa. Uste dut zure ekarpenak, Jim, Juani emandako erantzuna lotzeko balio izan duela. Eskerrik asko.

Tamalez, galderen txadarako denbora amaitu da, beraz bukatzeko, honako nire erabateko uste osoa adierazi nahi dizuet: gure buruarekin eta gure erakundeekin antzekoago hartzen ditugun garapen gaiarekiko hurbilpen maila eta ikuspegiak edozein izanda ere; zalantzarik gabe, eta mikrotik makrorantz, gure eboluzioaren bidea irekiko du.

26. gida

Nire zer alderdi (positiboak eta negatiboak) , ikus ditzaket pertsonaia bakoitzarengan?

- 1) *Juanengan ikusten dut nire...*
- 2) *Jorgerengan ikusten dut nire...*
- 3) *Carlarengan ikusten dut nire...*
- 4) *Mirandarengan ikusten dut nire...*
- 5) *Clararengan ikusten dut nire...*
- 6) *Lolirengan ikusten dut nire...*
- 7) *Telmarengan ikusten dut nire...*
- 8) *Paquitarengan ikusten dut nire...*
- 9) *Ceciliarengan ikusten dut nire...*
- 10) *Nachorengan ikusten dut nire...*
- 11) *Lucíarengan ikusten dut nire...*
- 12) *Sofíarengan ikusten dut nire...*
- 13) *Olafengan ikusten dut nire...*
- 14) *Javierrengan ikusten dut nire...*
- 15) *Albarengan ikusten dut nire...*

Bibliografía – Gomendatutako irakurgaiak

Anatomía del miedo – José Antonio Marina – Anagrama

Emociones, sentimientos y necesidades – Myriam Muñoz Polit (Egilearen ed)

Inteligencia Emocional – Daniel Goleman – Kairós

Palabras a mí mismo – Hug Prather – Cuatro Vientos y RBA

No empujes el río, porque fluye solo – Barry Stevens – Cuatro Vientos

Dentro y fuera del tarro de la basura – Fritz Perls – Cuatro Vientos

El arte de amar - Miedo a la libertad - Del Ser al Tener – Erich Fromm – Paidós

La conciencia sin fronteras, aproximaciones de Oriente y Occidente al crecimiento personal.- Ken Wilber – Kairós

El tao de la Física – Fritjof Capra – Sirio

Un diálogo entre Oriente y Occidente, en busca de la revolución humana – Daisaku Ikeda – Galaxia Gutenberg

Las enseñanzas de Don Juan, una forma Yaqui de conocimiento – Carlos Castaneda – Fondo de Cultura Económica de España

Entrenando para el desempeño empresarial – Sir John Whitmore – Paidós

Metamanagement – Fredy Kofman – Granica (hiru liburuki)
El Management según Maslow: una visión humanista para
la empresa de hoy.-Paidós

Aurkibidea

Sarrera	5
I. zatia : Bost gau eta sei egun	7
I. kapitulua - Astelehena gauean: Liga zuzenean	7
1. gida	11
II. kapitulua – Asteartea: Jardunaldi desberdina	12
2. gida	22
III. kapitulua – Amodio kontu baten emaitzak	23
3. gida	29
IV. kapitulua – Asteazkena: diboak, jainkosak eta “mari-sukaldeak”	30
4. gida	37
V. kapitulua – Produktu zail bat	38
5. gida	42
VI. kapitulua – Belarri finak	49
6. gida	48
VII. kapitulua – Freelance Santua	49
7. gida	53
VIII. kapitulua – Ilargi beteko gaua	54
8. gida	61
IX. kapitulua – Osteguna: Gorbata bat balkoian	62
9. gida	69
X. kapitulua – Hiriko konplizitatea	70
10. gida	77
XI. kapitulua – Showman-a, ama eta kontinentearteko nerbiotako eraso	78
11. gida	84
XII. kapitulua – Bihozkadak, bihotz-taupadak eta palpitazioez	85
12. gida	93
XIII kapitulua. – Gonbidatzailearen gonbidatzailea	94
13. gida	102
XIV. kapitulua – Ceciliaren egonezina	103
14. gida	108
XV. kapitulua – Ostirala: Bakoitzak bere zoroa bizi	109
15. gida	114
XVI. kapitulua – Mugurdiak, ahabiak eta beldur zahar tontor bat	115
16. gida	120

XVII. kapitulua – Ura bezain garbia	121
17. gida	127
XVIII. kapitulua – Bizi den emakumea	128
18. gida	136
XIX. kapitulua – Gizakia Ilargian	137
19. gida	146
XX. kapitulua – Larunbata: Zein da katua, zein saga?	147
20. gida	154
XXI. kapitulua – Amatxoa den pertsona	155
21. gida	161
XXII. kapitulua – Bi maitasun artean	162
22. gida	170
XXIII. gida – Igandea: Bihotza irekitzea	171
23. gida	176
XXIV. kapitulua – Behin, Ibizan	177
24. gida	186
XXV. kapitulua – Heroi bakoitzari bere “kriptonita” heltzen zaio	187
25. gida	194
II. zatia : “Mirandaren oharrak”	195
XXVI. kapitulua – In-formazioa, formazioa-n Ohar pertsonalak	195
Norberaren datuak	198
26. gida	209
Bibliografia – Gomendatutako irakurgaiak	210

lruzkina: egoera arruntak eta bereziak
islatzen dituen giza-gertakizuna: bere
emozionala elkarri lotzen ari diren adin eta
nortasun sorta bat; zein irakurlea bere
hausnarketa eremuan eta autoezagutza
gidatuko duen.



Bartzelonan jaio zen 1955ean.
Buenos Aires-en hezi zen eta 1998tik bere
jaioterrian bizi eta Gestalt Teraupeta
moduan aritzen da.

Arte plastikoetako irakasle bezala aritu zen,
bere argitaletxe propioa zuzendu zuen 10
urtetan, eta erakundeetako kultura berrietan
aholkularia izan zen.
www.trinitorner.com